



ttipi-ttapa



Hutsuneak pediatria zerbitzuan

Eskualdean, kasu gehienetan familia-medikuek artatzen dituzte haurrak eta zenbaitetan zerbitzuak ez du jarraipenik / 10



TTIPI-TTAPA

**5.582 ikaslek
ikasturtea hasi dute
eskualdeko
ikastetxeetan** / 12



ZOKKETA / 39

**Usategietako
tradizioaren besta
irailaren 23an
Lizarietan** / 15-44

**Bortzirietan eta
Malerrekan euskara
doan ikasteko
aukera izanen da** / 18

SINADURAK



ZURIÑE
ZUBILLAGA
IZAGIRRE / 3




AITOR
AROTZENA
ALBITZU / 3



MIKEL
TABERNA
IRAZOKI / 4



JUAINAS
PAUL
ARZAK / 4



Mixel GEREKA, Iturengo irakaslea

**«DALLASEN, ESKOLA
PUBLIKOEK ENPRESEK
BEZALA FUNTZIONATZEN DUTE»**

Iturenen duen irakasle lanpostuan etenaldi bat eginez,
aitzineko ikasturtean Dallasen (Texas, AEB) izan zen,
bertako ikastetxe batean lanean. / 8



Erakutsi eta probextu aukerak!

TTIPI TXARTELA MALEERREKA

Alústiza

%10 DESKONTUA
30€tik gorako
erosketetan

Nagusia, 12 | DONEZTEBE
T. 948 45 01 13

Amaya Picabea
cosmética de belleza y bienestar

%5 DESKONTUA
kosmetikan
%5 DESKONTUA
oparietan 50€tik gora.
Promozioetan ezik

Amezia | DONEZTEBE
T. 948 45 01 63

ARRATE E/TETIKA ZENTROA

%10 DESKONTUA
Skeyndor Eternal
kremetan

Eliza, 18 behe 2 | DONEZTEBE
T. 948 45 02 86

EZ

%10 DESKONTUA
produktuetan

Intzakardi, z/g | DONEZTEBE
T. 948 45 03 64

JUAN J. PICABEA

%10 DESKONTUA
arropa guztietan

Amezia | DONEZTEBE
T. 948 45 16 70

Kimetz Belardenda

%5 DESKONTUA
kosmetikan, opari
artikuluetan eta
haur-eramailetan

T. 948 45 14 73 | DONEZTEBE
info@kimetzbelardenda.com

kukuka

%10 DESKONTUA
pijama eta
barruko arropetan

Zazpigurutze, 1 | DONEZTEBE
T. 948 45 02 52

lorea
SOLUCIONES PARA CUIDARTE

%5 DESKONTUA
elikatze kontzienteko
kontsultetan:
elikatze nutrizional, energetiko
eta emozionala

T. 948 45 14 73 | DONEZTEBE
lorea@kimetzbelardenda.com

Mate Moda

%5 DESKONTUA
50€ arteko erosketetan
%10 DESKONTUA
50€tik gorako
erosketetan
Promozioetan ezik

Nagusia, 4 | DONEZTEBE
T. 948 45 07 27

MALE REKA
ARROPA ETA OSAGARI
PERSONALIZATUAK
Nagusia, 1 - Doneztebe
T. 948 45 15 71
www.male-reka.com
@Male_Reka

%5 DESKONTUA
30€tik gorako
erosketetan

Nagusia, 1 | DONEZTEBE
T. 948 45 15 71

EL BAUL DE Mari Cruz

%10 DESKONTUA
30€tik gorako
erosketetan

Parrokia, 11 | DONEZTEBE
T. 948 45 01 12

Miguelena

%10 DESKONTUA
erloju eta bitxietan
30€tik gorako
erosketetan

Amezia, 1 | DONEZTEBE
T. 948 45 09 25

BERDURU PENTRUS
Nekazari Zerbiztuak
Viente Añorak Arduak

%5 DESKONTUA
zakur eta katuen
pentsuan

Mourges, 20 Nabe 1 | DONEZTEBE
T. 948 45 18 45

CASA EIXEA OSTIZ

%10 DESKONTUA
oinetakoetan

Parrokia, 17 | DONEZTEBE
T. 948 45 02 89

TINTORERIA JAIONE

%10 DESKONTUA
12€tik gorako
erosketetan

Elizagibela, 7 | DONEZTEBE
T. 948 45 05 21

ttipi-ttapa

%10 DESKONTUA
esketetan

Koskontako bidea, 7-1. | LESAHA
T. 948 63 54 58



NIRE TXANDA

ZURIÑE ZUBILLAGA IZAGIRRE

Eraikitzen

Batzuetan teilatutik hasita, besteetan zimenduetatik, edo etxe barnetik, baina eraikitzen. Etengabe ari naiz eraikitzen, bilatzen, galtzen eta topatzen. Zentzua aurkitzen saiatzen, zentzua ahazten saiatzen, hanka sartzen, damutzen eta harro sentitzen. Bizitzaren zurrunbiloan zorabiatzen eta itsaso barea eskaintzen didanean atseden hartzen. Aspertzen, haserretzen, pozten, tristatzen eta batzuetan ere itxaropena galtzen. Gora igotzen eta zaplaztekoa hartzen. Beldurrari haginak ikaraz begiratzen. Arnasestuari eusten eta arnasa hartzen. Baina eraikitzen eta batzuetan deseraikitzen ere. Eraikitzeak baduelako bere garrantzia, nork berea sortzea delako eraikitzea. Habitik alde egitea. Ezagutzea. Bizitzari erraiak antzematea. Bide luze horri ekitea. Amaierarik gabeko ikaskuntza. Desikaskuntza.

«**ERAIKITZEAK
BADU GARRANTZIA
NORK BERE
SORTZEA DELAKO**»



EZPALA

AITOR AROTZENA ALBITZU

Gora Erregea!

Sastre desastrearen azpijokoari itsuarena eginez denek erregearen jantzi ikusezinak goratzen zituzten, umemoko batek erregea biluzik zebilela oihukatu zuen arte. Orain ere, errepidean goazenean, pediarrarena hurbiltzean edo soldata jasotzerakoan, erregea goratu behar omen dugu. Ez al dago inon erregearen biluztasuna salatuko duen haurrik?

NABARMENTZEKOAK



**FERNANDO
ETXEBERRIA**
ARKUPEAK ELKARTEA



**UXUE
ILARREGI**
OIZKO PILOTARIA

Arkupeak Elkarteko mendi taldean egin duen lana eskertuz, elkartekideen aldetik omenaldia jaso du berriki Fernando Etxeberriak. Ezkurakoa 20 urtez mendi ateraldiak antolatzen eta bideratzen ibili da.

Jokalaria titularra gaixorik zelako jokatu zuen Uxue Ilarregik gaztetxoan laxoa txapelketako finala. Bere lehenbiziko finala izan zen eta txapela janztea lortu zuen. Laxoak ere ez du generorik...

ATZERA BEGIRA



2008-09-18 · TTIPI-TTAPA · 478 zk.

Antonio Alustiza artzainarekin solasean

Duela hamar urte Nafarroako Artzain Txakur Txapelketa bederatzigarren aldiz irabazi zuen Antonio Alustiza aresoarrak. Horren harira, TTIPI-TTAPAK elkarriketa egin zion. Aitoritu zuenez, «nire gisara ikasi dut zakurrak hezitzen, eguneroko lana eginez. Ardietan ia egunero ibiltzen naiz eta orduan ikasten da. Eguneroko lanari lehiaketetarako toke bat ere ematen saiatzen naiz, zakurrak ohitu daitezen». Baina bere irudiko, «zakurrek berezkoa dute obedienteak izateko ezaugarria, eta horrek ere badu eragina. Guk ikasten lagundu egiten diogu, baina obedienteak izatea ez dago gure esku». Gaineratu zuenez, «hiru-lau urte dituenean dago zakurra bere onenean. Adin horretan ikasiak eta asentatuak izaten dira».

ttipi-ttapa

erran.
eus
Mendialdeko Albisteak

TOKIKOM

Argitaratzailea

Ttapi-Ttapa Fundazioa
Koskontako bidea, 7 - 1.
31700 LESAKA
T. (+34) 948 63 54 58
F. (+34) 948 63 54 57
WhatsApp 744 48 43 61
info@ttipi.eus

Zuzendaria

Aitor Arotzena

Erredakzioa

Gurutze Pikabea

Nerea Bazterrika

Eneritz Iraola

Publizitatea

Amaia Odriozola

Arantza Agirre

Usua Vicente

Berriemakileak

Arkaitz Mindegia, Josebiñe Agirre,
Koro Iratzoki, Nerea Altzuri,

Joseba Urrotz, Irune Elizagoien,
Maider Petirena, Markel Lizasoain,
Fermin Etxekolonea, Fernando
Etxeberria, Mattin Larraide, Juan
Mari Barriola, Iñigo Imaz, Marga
Erdozain, Maitane Maritorea,
Aranxa Iturralde, Aranxa Gamio,
Jaione Ariztegi, Jaione Zabalo,
Nerea Mortalena, Virginia Oteiza,
Pierre Bastres, Ainhoa Asitz, Itxaso
Arizmendi, Xabier Maritorea,
Maialen Iantzi, Jaione Mindegia,
Olatz Mutuberria.

Fundazioaren Presidentea

Pello Apeztebea

Kudeatzailea

Joxemanuel Irigoien

Administrazioa

Amaia Goia

Lege Gordailua

NA-1324/85

ISSN

1578-4673

Tirada

6.000 ale

Erakunde laguntzaileak

Leitza, Goizueta, Arano, Areso,
Baztan, Sara eta Senpereko udalak,
Malerrekako Zerbitzuen Mankom.,
Zugarramurdi Aklarre elkarteak

2018ko harpidetza sariak

Baztan, Urdazubi	
eta Malerreka	37€
Leitza	24€
Hego Euskal Herria	43€
Ipar Euskal Herria, Europa	77€
Amerika eta Australia	130€

**Nafarroako
Gobernua**



**Gobierno
de Navarra**





KOLABORAZIOAK

MIKEL TABERNA IRAZOKI

Txirrita Lesakan

Berriki jakin dugu Txirritak Legasako gizaseme batekin tratua egin zuela 1915ean, herri hartako alkatearen kontra bertsoak idazteko, eta horregatik epaitua eta kondenatua izan zela. Ez zen kontu horren aipamenik ageri bertsolariari buruz idatzi diren liburu marduletan, baina afera horren berri lehendik ere zerbait zekien jendea bada oraindik ere Legasan.

Gu baino zaharragoak direnek memorian gordeak dituzte guk bertzela inon ikasiko ez ditugunak. Baditugu hor makina bat istorio, klasean klasekoak, betikoz galtzen ahal direnak norbaitek lehen biltzen ez baditu.

Txirritarekin lotua, hain xuxen ere, bada kasu bat gure familiako tertulietan hameka aldiz aditu duguna. Kontatzen dute Alkaia gako Martineko Juantomas Lesakako Herriko Etxera joan zela egun batean, azienda kontuko paperen bat egitera. Goizean goiz joan omen zen, baina ez zen espero zuten ordurako bueltatu. Ilunabartzen hasi zuelarik, Alfonsa,

«BADITUGU MAKINA BAT ISTORIO, BETIKOZ GALTZEN AHAL DIRENAK»

Juantomasen andrea, Martintxe berrira joan zen, senarraren anaiaren baserrira. Honela erran zion koinatuari: «Badakizu, Joxantoni, Juantomas ez da heldu! Zerbait pasatu ote zaio?». Eta gizonak: «Zer nahi duzu? Bila joatea?». Berantetsiak

zegoen andreak eskertu zion borondatea: «Hori egiten bazenuke...».

Hala bada, Joxantoni *Haundi* anaiaren bila abiatu zen. Hura bezalaxe, hau ere ttaka-ttaka joan zen mendiko bidexketan barna: Uskaldapa, Mehaka, Berrotaran baserria... Lesakako karrikara ailegatu zelarik, aisa aurkitu zuen falta zena: Bekoerretxenean zegoen. Ez zen misterio gizonak handik alde egiteko gogorik ez izatea. Ostaturia zantpetaraino betea zegoen, eta Txirrita jo eta fuego bertso kantari. Ez zen bakarrik ari izanen, noski. Ez zuen jokorako lagunik faltako. Joxantoniok berak bazuen horretarako abildadea. Eta, noski, bera ere bertan gelditu zen, etxera erretira egin gabe, koinata kezkatua zegoela jakinagatik. Lehenago Martinean bakarrik falta bazuten gizona, orain Martinean eta Martintxeberrian. Hurrengo eguna ongi argitu eta gero abiatu ziren bi anaiak bueltan. Ez dakigu nola hartu ote zituzten Alfonsak eta haren koinata Antoniak. Emakume haiek pentsatu eta egin zutena jakitea ere polita litzateke.

Bidasoa aldeko bost bertsolari liburuan irakurri genuen Etxalarko Xamuiok aita Zavalari kontatu ziona, Txirrita bertsotan aritu zela egun batean Lesakan bera bezalako bertze etxalartar batekin, Axura deitzen ziotenarekin. Gau osoan aritu omen ziren bertsotan, hernaniarrak egun hartan bota zuen bertso baten hasiera honek salatzen duen bezala: «Gaba uste gabe pasatu zabaldu eguna / hauxen da deskuidua pasatu zaiguna». Han ote ziren egun hartan Martineko Juantomas eta Martintxeberriko Joxantoni?



JUAINAS PAUL ARZAK

Demokrazia deitzen dugun hori

Hiru bat urte direla nire buruari galdetu nion eta TTAPI-TTAPA batean agertu nuen beldur-zalantza bat: «Nafarroakoa irmo mantenduko da? Zuzenean arituz, eskertzekoa den erantzukizun ikaragarria hartu zenuten eta, orain, ez duzue porrotarekin, etendurarekin, bukatzerik. Adostu zenuten horiek nola gauzatu eztabaida dezakezue, beste aferetan nahitaezko ikuspuntu eta jarrera desberdinak erakutsi, eta bakoitzak berea bulkatu... Hori bai, elkartzearekin nahitaezko gobernagarritasun eta iraupena eskaini zenuten: lau taldek, lau urterako...» Zenbat zarete egun? Hori lan galanta!

Ezkerraren ezaugarri endemikoa omen da, beti errepikatzen duen bat delako, elkar muturka aritzea: bete duzue. Batzuk nabarmenki: ikusi ahal izan dugu bat. Sumatu ditugu beste batzuk, euskararen ingurukoak, esaterako, eta gordeka gehiago egonen zirela dirudi. Dirudi ez, begi-bistara ekarri duzue, plazaratu, nafar eta ez nafar guztien aitzinean: Maravillas! Horiek bai arrisku-salto eta ez kanpotarrek

«ORDUAN AUSARTU ZINETEN ORAINGOAN EZIN DUZUE KANPOAN GELDITU»

iturritik plaza berdinean egiten dituztenak.

Batzuk ezkertiarrek zaretelako -auskalo!-, besteen ezker-joera dudatan jar daitekeelako, emaitza beti berdina, betikoa: muturka.

Eta ardura ikaragarria duzue. Dugu! Jakin,

bagenekien eskuina traba ugari sartzen saiatuko zela, eta adibide ederrak eman dizkigute. Zoritxarrez, ordea, *lingua navarrorum* bihurtu dute gezia, indarra ematen diela iruditzen zaie eta zentzugabeetan erortzea ez zaie inporta: euskara, Nafarroan, bortxaz jarri nahi da, bertakoa ez delako! Absurdoa ez da hor mugatzen. Konkistaren borroka berriturik, berrindarturik, arriskuak doinu berria hartu du: Ana Beltran anderearen iritzi beldurgarria dugu, oraingoan, «*Imperialismo vasco*» delako hori dugu etsaia. Nafarroa menpe hartu nahi du Euskadi menpe jartzeko, Espainiatik bereizteko eta, agian, terroristak, etarrak bihurtzeko. Frantzisko Xabierkoari eskatu beharko diogu laguntza. Euskalduna zen, nafarra, eta eskuin nafarrak bideratutako nafarren ikurra, nabarrismoa indartzeko erromes figura. Burua altxatuko balu!

Hasierara itzuliz, datorrenean zer? Heldu diren hauteskundeetan elkarturik aurkeztuko zarete? Ezkerrak, zein ezkerrak, zer lagunduko du? Eta ezker epelak edota agian ezkerra ez den horrek zer? Elkartasunaren porrotak biderako dituen mendekuak eta atzerakadak aldarrikaturik daude, esparru eta eremu guztiak blaituko dituzte. Orduan ausartu zineten, oraingoan ezin duzue kanpo gelditu. Zuei boto emateko aitzakia bat behar dugu, txikia izanik ere, besteak eskaintzen dutena zoritxarrez eta luze ezagutu genuen eta... Animo! Hauteskundeak prestatu!

11 GALDERA LABUR

IÑAKI JUANENA URROZKO ALKATEA

«Inguruko herri ttikiek bizirik segitzea nahi nuke»

Nor da Iñaki Juanena?

Urroren bizi den eta herrian lasai bizi nahi duen gaztea.

Zer zaletasun dituzu?

Mendian ibiltzea, futbolean aritzea, familia edo kuadrilla-koekin egotea... gustatzen zait.

Herriko alkate ere bazara...

Duela lau urtetatik eta aitzineko urteetan zinegotzi ere izan nintzen. Egunerokoan Udaletik pasa, gaiak aztertu, eta zinegotziekin landu behar izaten ditut. Dudarik gabe, zailena denbora hartzea izaten da, aunitz eskatzen du eta dena ailegatu beharra...

Zer du Urrozek bertze herriek ez dutena eta zer falta zaio?

Herriko urtegia eta gazteen elkartasuna. Falta, berriz, zerbitzu on gehiago.

Laster herriko bestak dituzue...

18 urtetan bezala bizitzen saiatzen gara, baina ezin da... Lehendabiziko egunean besta galanta egin eta hurrengoetan lasai, hurrekin, antolakuntzan lagunduz, otorduetan... ibiltzen gara. Denetarako astia izaten dugu.

Aldatu zaizkizu bestak alkate zarenetik?

Besta egunetan askorik ez. Lanak banatu eta denen artean egiten dira. Aurrez lan gehixeago izaten dugu, dena lotzen. Halere, egitaraua osatzeko ostatuan biltzen gara, maiztean egin genuen lehendabiziko bilera irekia denon iritzia eta ideiak bildu eta ardurak banatzeko

Zein momentu da politena?



Gauetz bezpera, jendea gogotsu dago eta; egunez, denek dute beren xarma: mus txapelketa, jokoak, paella jatea, dantzak, aizkora apustua...

Aurten bada berrikuntzarik?

Urtero berrikuntzaren bat sartzen saiatzen gara. Aurten igandean *freestyle* ikuskizuna ekarriko dugu, ikusiko dugu nola ateratzen den... Izena behintzat polita du! (irriz)

Bestak akituta, herria garbitzeko auzolana...

12-15 gazte inguru elkartzen gara, kioskoa kendu, mahaiak garbitu eta bildu, banderillak gorde eta dena txukuntzeko. Ondotik gosari ederra egiten dugu, bukaera emateko.

Zerk egiten zaitu zoriontsu?

Gutti aski dut, baina ezagutzen dudan jendea sasoi onean ikusteak asko pozten nau.

Amets bat?

Bakea mundu osorako, eta bizia inguruko herri ttikiek aitzinera egiteko.

- Ilar gorriak
- Ilar txuriak
- Nafarroako zainzuriak
- BAGORDI Nafarroako ardo ekologikoa

SALMENTA PUNTUAK

Cooperativa del campo - Olaberria auzoa - IRUN
(Danok Anai jatetxetik 700 metrora)

Nekazarien Etxea - Urdanibia Plaza, 7 - IRUN

PIPER ERREEN SALMENTA

LARRAGAKO PIPERRAK (Irunen erretzen ditugu)


- Momentuan erretzen ditugu
- Kontserban nola ipini erakutsiko dizugu
- Nahi izanez gero guk egindakoak eros ditzakezu
- Barietateak: Pikillo, Najerano, Kristal, Piko-Medavia

**PIPERRAK ERRETA,
AZALIK GABEAK eta
HUTSEAN ONTZIRATUAK.
Jateko prest!**

**Tel. 658 880 158
948 040 094**

Astelehenetik ortzirralera:
08:30-14:00 eta 16:00-19:00

Asteazken arratsaldetan itxita
Larunbata: 08:30-13:00



IRAKURLEAK MINTZO

Belaunaldi likidoa

ESTEBAN IRUSTA MALLEA

Horrela deitzen dio Zigmunt Baumanek (Poznan, Polonia, 1925- Leeds, Erresuma Batua, 2017) gaur egungo gizarteari. Zergatik deitzen dion horrela nahiko garbi dago. Likidoa ontziaren formari egokitzen zaion arabera, modernitatea ere horrela aldatzen dela dio. Berak erabili zuen likido hitza lehen aldiz, gaurko gizartearen mugikortasuna, balioen erlatibotasuna, segurtasun falta, noraezean dabilen, beste ezaugarri batzuen artean, gaurko gizartearen berezitasuna definitzeko.

Orain arte gidatu gaituzten betikotasuna, segurtasuna eta balioen sendotasuna atzean gelditzen ari dira. Noraez horretan, bizimodua eta hezkuntza bera ere ezin dira planifikatu epe luzera begira. Ikastetxeetan bilerak, egunak joan eta egunak etorri, etenik gabe egiten dira, ikasturte osoan proiektu berriak planifikatzen eta beste berriagoez ordezkatzeko. Antzeko zerbait gertatzen da estatu mailan, gobernu bat agintzen hasten den bakoitzean. Denek daukate soluzioa aurreko agintarien akatsak eta okerrak gainditzeko; eta horrela jira-biran dabilta beti bata bestea ordezkatzeko duen bakoitzean. Urruti gelditzen dira betirako zirela ziruditen lege eta portaerak. Tradizioek indar handia zuten; herri bakoitzaren bizimoduak aurrekoen modukoa izan behar zuela uste zen, aldaezina. Auto, tren eta hegazkin gabeko garaietatik gatoz. Aldaketa gutxiko sasoiak ziren. Gaur egun, berriz, presaka gabiltza, bizimoduak aldakorak dira. Jendea

munduko alde batetik bestera dabil lana edo oporrak direla eta. Gero eta zailagoa da betiko bizimodua egitea. Eta bizitzako baldintza berri horiek, ondorioz, pertsonen eta herrien nortasuna, izaera, pentsaera eta mentalitatea aldatzen dute. Inguruak garrantzi handia dauka gure bizitzan, eta ingurua aldatzen ari da.

Gizadiak milaka urtetan, geure garaietara arte, ideia sendotan, ziurtzat zituenetan oinarritzen zuen bere bizitza. Ideia horiek, gehienetan, erlijioaren batean zuten bere oinarria, bere euskarria. Historian zehar batzuen aldetik «betiko» ideia horiek baztertzeko izan diren ahaleginek ez dute arrakastarik izan, huts egin dute. Zerbaitengatik iraun dute hainbeste urtetan, eta gizadiaren bizitzan ikaragarritzko eragina izan dutela ezin da ukatu. Bere jardueretan, bere ekintzetan, beti egon dira lehenengo lerroan ideia horiek. Pintore, eskultore, arkitekto, musikari, historian zehar izan diren artista handienak ideia horietan inspiratu dira, gaur egun arte hainbeste miretsi ditugun bere lan bikainak sortzeko.

Bizi ditugun garaia ez dira mundu espiritual horren aldekoak. Alderantziz, badirudi kontrako ideiak nagusitzen ari direla, eta gainera, bizitzaren alde hori berriz ere ezabatu edo gutxienez ezkutatu beharraren aldekoak. Baina badaude baita, eta ez gutxi, erdi ezkutuan dagoen mundu hori, ideia sendoak, gure bizitzako ideia-gidariak, faltan botatzen dituztenak. Historia errepikatzen da, behin eta berriz.

BOTA BERTSOA

PATXI CASTILLO

BERAKO BERTSOLARIA



Euskara musutruk

Doinua: Bazkaltzean gogoia neukan

*Zeinen ederra den hizkuntza bat
Menperatuaz haztea
Nor bait berria ezagutu ta
Modu horretan hastea
Eta gainera, darabilguna
Bertakoa izatea
Ez dakienak aukera bat du
Zintzo ta elegantea
Eskualdean musutruk dugu
Euskaltegiko tartea
Inoiz ez da hain merkea izan
Hizkuntza bat ikastea.*

*Euskarak muga zabalak ditu
Distantzi denak distantzi
Baina gurer a etorri eta
Daukanez aski garrantzi
Pelikula bat osatzeko re
Bada nahiko elegantzi
Taldea lanean egin behar da
Ingurukoez ez ahantzi
Erdi-erdian ipini zaitzez
Ta protagonistaz jantzi
Gure hizkuntzan ikaskuntzaren
Gidoia zuk zeuk idatzi!*

IRAKURLEAK MINTZO

Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



Koskontako bidea, 7 - 1, 31770 LESAKA
info@ttipi.eus



948 63 54 58



Liderrak

gure eskualdean

eta baita azterketa egiterakoan
CIESeK Nafarroa Garaiko
mendialdean hartu
duen 111 udalerrien
eremuan ere

Ttipi-Ttaparekin
zure iragarkiak eragin
haundiagoa du

29.000
irakurle
TTIPI-TTAPA

8.000
irakurle
DIARIO NOTICIAS

10.000
irakurle
DIARIO NAVARRA

2.000
irakurle
ARGIA

4.000
irakurle
BERRIA

6.000
irakurle
GARA

SEXUAREN ARABERA

Gizonak	%56,70
Emakumeak	%43,30

ADINAREN ARABERA

14-24 urte	%16,70
25-34 urte	%05,00
35-44 urte	%16,90
45-54 urte	%25,00
55-64 urte	%20,60
+64 urte	%15,70

IKASKETA MAILAREN ARABERA

Oinarrizko ikasketak	%12,90
Oinarrizko batxillergoa	%11,50
Goi mailako batxillergoa	%38,10
Unibertsitatea	%37,50

«Ongizate eremua utzi eta bertze gizarte batean murgiltzea aberatsa da»

MIXEL GEREKA ITURENGO IRAKASLEA

Iturenen duen behin-betiko irakasle lanpostuan etenaldi bat eginez, aurreko ikasturtean Dallaseko gizartearen «tripetan sartzeko» aukera izan zuen Mixel Gereka

NEREA BAZTERRIKA ITUREN

Oñatin (Gipuzkoa) ditu erroak, baina azken 30 urtetan Male-rrekan bizi da Mixel Gereka: «arrebaren arrimuan etorri nintzen; hasieran Zubietara, eta Iturenera gero». 1992an hezkuntza arloko oposaketak gainditu zituen eta ordutik, Iturenen bertan du lanpostua. Herrian lan eta herrian bizi bada ere, ahal duenean egunerokoarekin hausteko aukerarik ez du galtzen. Aurreko ikasturtean, esaterako, Dallasen (Texas, AEB) izan zen, ikasketxe batean lanean.

Kontaiguzu irakaskuntzan egin duzun ibilbidea...

Unibertsitatera Bideratzeko Ikasturtea bukatuta, magisteritza ikasi nuen. Lehendabiziko lanpostua Plentzian izan zen, Lemoizko zentral nuklearraren gaia pil-pilean zegoen garaian. Euskara irakasle hasi nintzen, eta ikasle asko Plentzian guardia zibil zeudenen seme-alabak nituen. Horiek ofizialki salbuetsiak zeuden, denbora laburrerako zeudelako. Egoera zelebrea zen. 25 ikasletik erdiak ez ziren ikasle ofizialak, gainerakoei ez nizkien notak jarri behar... Zaila izan zen, kokoteraino bukatu nuen. Irakaskuntza alde batera utzi eta Parisera joan nintzen, denboraldi baterako. Urte batzuz Hego Ameriketatik Euskal Herrira joan-etorrian ibili nintzen; 1991n, Leitzako eskolan ingeles irakasle gisa sartzeko aukera izan

nuen arte. Hurrengo urtean oposaketak gainditu nituen; ordutik, Iturenen dut behin-betiko lanpostua.

Ikasketak berrartu zenituen...

Ia 40 urte nituela, Eskoriatzan hizkuntzen psikopedagogia ikasi eta NUPen doktoretza



Dallasko Meadows Museum of Art kanpoaldean.

«BERTAKOA EZ
IZATEAREN
ONDORIOAK BIZI
IZAN DITUT»

«ESKOLA PUBLIKOEN
ENPRESEK BEZALA
FUNTZIONATZEN
DUTE»

egin nuen, hezkuntza eta psikologia arloan (tesi bukaerako lana ez nuen egin). Mondragon Unibertsitatean ere saio batzuk eman nituen, Kulturarteko Hezkuntza irakasgaian. Tarteetan, urte sabatiko bat hartu nuen eta aurreko ikasturtean ere kanpoan izan nintzen.

Dallasen izan zara...

Ministerioak, urtero, *Profesores Visitantes* izeneko programa bat antolatzen du. Horren bidez Ipar Ameriketara, Estatu Batuetara eta Kanadako Alberta probintziara edo Erresuma Batura joateko aukera eskaintzen dute. Probatzea erabaki nuen. Kanadara joateko eskaera egin nuen. Elkarriketara iritsi nintzen baina ez ninduten aukeratu. Madrilén ginela, Kanadara joateko onartuak izan ez ginenoi Estatu Batuetarako elkarriketa egitea eskaini ziguten. Ordu-ra arte ez zitzaidan burutik pasatu ere egin Estatu Batuetara lanera joatea... Dallas non zegoen ere ez nekien... Han nengoenez, elkarriketa egitea erabaki nuen. Onartua izan nintzen eta buelta gehiegi eman gabe, joatea erabaki nuen. Hango gizartearekiko ditugun aurreiritziak benetakoak ziren ikusteko gogoia nuen. Urtebetez Dallas hiriko gizartearen tripetan sartzeko aukera izan dut. Konkretuki mexikarren seme-alabekin egon naiz, 8-9 urtekoekin, zientziak eta gizarte gaiak irakasten. Bi gai horiek gazteleraz ematen direnez, egunerokoa gazteleraz izan da.

Zein zen helburua?

Bi helburu nituen nagusiki. Alde batetik, Iturengo hainbeste urtetako egunerokoari astindu bat ematea eta ongizate eremutik ateratzea; eta bestetik, ingeles mailari bultzada ematea. Ongizate eremutik atera eta urtebetez eremu ezezagun batean nire tokia hartu eta aurrera egitea lortu dut. Ingelesa ere hobetu dut, urtebetez hizkuntza hori hitz egiten den eremuan bizita... Baina, zeregin nagusia

gazteleraz izan denez, *spanglis*ha hobetu dudala esanen nuke. *Spanglish*a mexikarrek gazteleraz egiteko duten modua da, oso bitxia da beraien hizkera, beraientzat nirea den bezala.

Bizimoduan zein alde ikusi duzu?

Batetik, gizarteratzeko orduan, amerikarra ez zarela ohartzen direnean, latinotzat hartzen zaituzte. Han askorentzat latino bat baino ez naiz izan, konotazio guztiekin. Politikoki zuzenki tratatu naute, baina nire azalean bertakoa ez izatearen ondorioak bizi izan ditut. Hori momentuka zaila izaten da. Beltzen eta zurien arteko bizimodua nahiko normalizatua egonen zela uste nuen, baina oso urruti daudela ohartu naiz. Beltzak alde batetik eta zuriak bestetik daude; eta hirugarren maila batean daude mexikarrak. Gizartearen ia erdia dira latinoak Dallasen, baina hala ere mexikarrak hirugarren mailako biztanleak dira eta hori nabaria da. Lan okerrean, bertako jendeak nahi ez di-tuenak, haiek egiten dituzte. Zuriak lehenesten dira, zentzu guztietan: negozioetan, ekonomian, parlamentuetan... Bigarren mailan daude beltzak. Arrazakeria kulturala da. Horrez gain, harremanek, kontsumoak, aisialdia antolatze-ko moduak, erlijioak... ez du hemengoarekin zerikusirik. Izan protestanteak, izan kristauak... erritu erlijiosoak dituzte. Amerikar izatearen harrotasuna ere oso errotua dago.

Eta Hezkuntza Sistemari dago-kionez?

Badakit molde bat baino gehiago daudela, gure kasuan Dallas Independent School District izeneko erakunde batek kontratatu gintuen. Eskola publikoa da, baina publikotasuna izenari baino ez zaio lotzen. Diru publikoa erabiltzen da, baina funtzionatzeko modua enpresen funtzionamenduari dagokio: etekinaren arabera antolatzen da. Eskola guz-



Mixel Gerekaren ikasleak gelan, maiatzaren 5ean ospatzen duten mexikar festan.

tiek froga batzuk pasatzen dituzte. Froga horietako emaitzen arabera, ranking bat sortzen da eta horrek baldintzatzen du eskolaren aurrekontua. Horrela bada, egoera sozioekonomiko txarra dagoen toki batean normalean emaitzak okerragoak dira eta emaitzak kaskarrak badira hurrengo urteko aurrekontua murrizten dute. Aurrekontua murriztuta emaitzek ere okerrera egiten dute... Zurrumbilo bat sortzen da. Beste alde bat aipatzeagatik, Euskal Herrian funtzionario zaren momentutik, ez dago kontrolik. Han hori ez da gertatzen. Alde batetik, egunero, eskola hasi baino lehen, eguneroko programazioa eraman behar dute: zer ikasiko den (eta helburua), nola irakatsiko den (galdera zehatzak) eta zer emaitza espero dituzun (ehunekotan).

Sistema zurruna, beraz.

Inprobisazioak ez du tokirik. Nik 20 behaketa inguru izan ditut. Gelako ateak irekita izaten nituen, eta bat-batean pertsona bat satzen zen. Ez zuen 'egun on' ere esaten eta eseri edo gelan barrena ibiltzen zen 10-20 minutuz, oharrak hartuz. Ikasleren bati galderak ere egin ahal dizkiete. Egun batzuetara *feedback*a bidaltzen

zuten: zer ikusi zuen, zertan ari zinen, zer egin beharko zenukeen, berak nola ikusi zuen... azalduz. Ikusitakoa irakasleak aurrez zehaztutako eguneko programazioarekin kontrastatzen dute. Ikasturte bukaeran, badira bizpahiru behaketa ofizialak direnak, zuzendariarenak, zuzendariordearenak edo hezkuntza departamentuarenak. Horietan kalifikazio bat jartzen dute, ehunekotan. Emaitza horren arabera izaten da hurrengo urteko soldata. Ikasleen emaitzen ardura osoa irakaslearengan dago. Saiatu naiz Euskal Herriko esperientzia partekatzen, erdaldunak euskalduntzen egin dugun prozesua azaltzen... gustura entzuten dute baina ez dute al-daketarik nahi. Ikasleek azterketa asko izaten dituzte. Ebaluazio aldiak sei astetik behin izaten dira eta aldi bakoitzean, gutxienez, hamabi kalifikazio sartu behar izaten dira. Gainera, beraientzat %70etik beheetiko kalifikazioa porrota da. Emaitzak pasilloan jartzen dituzte: irakaslearen izenaren ondoan ikasleen emaitzak nolakoak diren adierazten da, semaforo koloreekin. Presio handia dago. Ohitzen da, baina...

Nolako esperientzia izan da?

Ongizate eremutik ateratzea eta egunerokoa urrundik ikustea oso aberatsa da: gehiago baloratzen da utzi duzuna, orain arte egindakoa, gizartea, jendea, harremanak... Beste kultura bat ezagutzea beti da aberatsa, eta merezi du. Garrantzi handia ematen diegun gauzak ez direla horren garrantzitsuak edo batzuek beste modu batera bizi dituztela jabetzen zara... Hezkuntza munduan edozeini aholkatuko nioke, bereziki gazteei. Gogorra dirudi baina handik gauza onak eta aberatsak ere ekarri ditut. Akaso han duten kontrol hori zorrotzegia da baina moldatu daitezke hemengo sitemara. Hemen inolako kontrolik ez egotea ez da ona... Lana ikusi behar luke-tela, baloratu behar lukeela... uste dut, beti ere hobetzeko helburuz, ez han egiten duten interes ekonomikotik, enpresa ikuspegi horretatik.

Hurrengora begira hasia zara?

Gustura joanen nintzateken toki asko ditut, Madagaskar esaterako. Halere, turismo tradizionala baino nahiago ditut luzeagoak egin, bertako gizartean murgilduz. Tokiak internetez ere ikus daitezke eta...

Pediatria zerbitzuarekin bueltaka

Pediatren faltan, kasurik gehienetan familia-medikuek artatzen dituzte eskualdeko haurrak. Malerreka eta Bertizaranan, Leitzaldean eta Urumealdean neska-mutikoek gaur egun ez dute mediku finkorik



G. PIKABEA

Ez da giro pediatria zerbitzua aipatzean. Gurasoak haserre, kalitateko zerbitzua berma dezaten eskatuz; profesionalak ahal dutena egiten dutela erranez, eta osasun sailaren erantzuna pediatarik ez dagoela. Gaur egun, ohiko bihurtu da haurra pediatararengana eramane eta familia-mediku batek artatzea, baina kontua haragadoa.

Malerreka eta Bertizarana

Ekainean Bertizarana eta Malerrekako pediatrik baja hartu zuenetik, pediatarik gabe daude Doneztebeko Osasun Zentroan, ez dute ordezkorik jarri. Monica Martin osasun zentroko zuzendariaren arabera, «hasieran zerbitzua osasun zentroko familia-medikuekin ematen hasi ginen, baina eskas iruditzen zitzai-gun». Hutsune hori estaltzeko eskaeraegin ondotik, «uztailean Elizondoko pediatria etorri zen arratsalde. Abuztuaz geroztik, berriz, astearte eta ortzegunetan 16:00etatik 20:00etara Lesakako pediatria etortzen da. Goizez haurrak familia-medikuek artatzen dituzte». Berak «ez dago pediatarik eta daudenak Iruñean gelditzen dira», dio.

Gurasoen ustez, berriz, «zerbitzua ez da nahikoa. Gure seme-alabek ez dute erreferentziako medikurik, ezta beraien historia ezagutzen duen inor ere ez». Horregatik osasun zentroan erreklamazioak jartzeko deia eginga dute, «zerbait lortzeko bide bakarra» hori izan daitekeela iritzita.

Martinek, bere aldetik, onartu digu, «zerbitzua baldintza hobeetan» ematea gustatuko litzaiekela, baina aldi berean, azpimarratu duenez, «nahiz eta erreferentziako pediatarik eta jarraipena duen medikurik ez izan, zerbitzua ematen da eta ahalik eta hoberen egiten saiatzen ari gara. Ezjakintasunagatik ez dira gaixoak Iruñera bideratzen».

Leitzaldea eta Urumealdea

Egoera «berezian» daude Arano, Areso, Goizueta eta Leitzako 600 haur inguru artatzen dituen Leitzako Osasun Zentroko pediatria zerbitzuan. Halaxe onartu digute osasun

zentroko langileek. Otsailaz geroztik, pediatria titularrik gabe daude. Kontatu digutenez, «maiatza arte, astean lau arratsalde ordua arte egondako pediatrik kontsulta pasatu zuen». Geroztik, ordea, «tar-teka eta ez egunero», pediatrik edo familia-medikuek betetzen dute lanpostua, «goizez edo arratsalde». Lehenagoko pediatria titularrak Lekunberrin, Leitzan eta astean behin Goizuetan goiz erdiz pasatzen zuen kontsulta, baina orain, Leitzan bakarrik dute zerbitzua eta erran bezala, ez da egunero. Gurasoek zerbait egiteko ordua dela diote eta osasun zentroan ere argi dute: «ez dakigu noiz konponduko den arazoa, baina soluzio sakona behar du».

Urdazubi, Zugarramurdi, Baztan Elizondoko Osasun Zentroan iazko urtea mugitua izan zuten. Ana Ariztegi zentroko zuzendariak kontatu digunez, «bi pediatria genituen, bat lanaldi

osoan eta bertzea erdian, eta iaz, bat otsailean eta bertzea abenduan joan ziren. Larri ibili ginen». Gurasoak karrikara atera ziren eta elkarretartatze jendetsuak egin zituzten.

«Bi pediatrik joan zirenetik familia-medikuak ari dira haurrekin lanean», azaldu digu Ariztegi. «Nahiago genuke pediatria bat izatea, hori delako formazioa jaso duen profesionala, baina ez dago pediatarik eta familia-medikuak ere guti dira». Horren adierazle, udan, «baten baja eta gure oporrak ezin betez» ibili direla gaineratu digu, «Belateko obrekin inorke ez du eskualdera etorri nahi».

Bortzirriak

Urteetan pediatria bakarra arduratu da bortz herrietako hurrez, baina joan den apirilaren 16az geroztik, %40 zabaldua dute zerbitzua. Amaia Irastorza Lesakako Osasun Zentroko erizain nagusiaren hitzetan, «Lesaka, Arantza, Etxalar, Igantzi eta Berako haur batzuk lanaldi osoan Lesakan ari diren pediatrik eta erizainak artatzen dituzte eta Berako gainerako haurrak lanaldi murriztuan Beran ari diren familia-medikuarengana eta erizainarengana joaten dira».

KASU GEHIENETAN HAURRAK FAMILIA-MEDIKUEK ARTATZEN DITUZTE

LEITZALDEAN ETA MALERREKAN ZERBITZUAK EZ DU JARRAIPENIK

Zer iruditzen zaizue pediatria zerbitzua?



NEREA PETIRENA
SUNBILLAKO GURASOA

«Profesionalak ahal dutena egiten ari dira»

«Bi aldeak» ezagutzen ditu Petrirenak, «osasun zentroker langilea eta gurasoa naizelako». Ama den aldetik, «nahiko atentzio» baduela adierazi digu, baina badaki «arazoak badirela eta zerbitzua ez dela nahikoa». Bere ustez, «osasun zentroker langileak ahalik eta hoberen egiten saiatzen ari dira». Argi du sunbildarrak: «jendea hemen solasean aritzeak ez du deusetarako balio. Arazoa Iruñetik dator eta harat bideratu behar da».



JAIONE SUBIZAR
ZUGARRAMURDIKO GURASOA

«Ez dugu pediatriarik eta espezialista bera da»

Etiket 40 kilometrora, Elizondora, eraman behar izaten ditu haurrak: «ez dut deus erratekorik oraingo medikuaren inguruan, baina ez da pediatria eta haurren espezialista pediatria da». Zerbitzua «eskasa» dela dio: «Elizondon ez badago tarterik, herriko medikuarengana eramaten ditut. Eri badaude eri daude». Iruñera bidali izan dutela ere aitortu digu eta «urrun» gelditzeaz gainera, «horretarako bidali zaituzte?» galdetu izan digute.



MAITE BERTIZ
NARBARTEKO GURASOA

«Kalitateko zerbitzua ematea nahi dugu»

«Zerbitzua hagitx murrizta da. Ez du jarraipenik eta ez dugu erreferentziazko mediku bat». Halaxe dio Bertizek. «Lehen pediatria euskalduna eskatzen genuen, eta orain egoera nola dagoen ikusita, gure haurrekin lan egitera dedikatuko den familia-medikua eskatzen dugu. Aitzinetik zeudenez ez ziren ikasketaz pediatrik baina urte aunitzez formatu egin ziren». Narbartearrak «kalitateko zerbitzua» eskatzen du.



OIHANA TELLETXEA
DONAMARIAKO GURASOA

«Hobetu beharrean, gibelera goaz»

Egoera dagoen bezala ikusita, «hobetu beharrean, gibelera goazela» iruditzen zaio Telletxeari. Kontatu digunez, «maiatzaz geroztik haurren bi urteko azterketa egiteko esperoan nago». Lanbidez erizain laguntzailea da baina zerbitzuarekin «desilusioak» hartu dituela dio: «garaiz plaka bat ez ateratzeagatik alaba ingresatu zidaten. Donezteben kasurik egiten ez zidatela eta Iruñera larrialdietara eraman eta ZIU sartu zuten».



IRATXE HUARTE
ELIZONDOKO GURASOA

«Eritu baino lehen abisatu behar dut?»

Huarteren haurrak familia-mediku batek artatzen badiu ere, «kontent» dago: «ez da pediatria baina konfidantzazko norbait badugu. Hala ere, aunitzetan «haserre» sentitu izan dela kontatu digu: «hainbertze aldiz tokatu izan zait lekurik ez egotea, 08:30ean deitu eta tokirik ez dagoela. Zer da hau, eritu baino lehen abisatu behar dut?». Bikiak izanda, «bi hitzordu segidan lortzeko arazoak» izaten dituela ere aitortu digu.



ENERITZ AROZENA
GOIZUETAKO GURASOA

«Lehen murrizta zen eta orain hori ere ez»

«Lehen astean behin pediatria herrian izaten genuen eta zerbitzua murrizta zen. Orain hori ere ez dugu», dio goizuetarrak. Seme-alabak gaixotu izan direnean herriko medikuarengana eraman izan dituela kontatu digu, nahiz eta aitortu digun nahiago lukeela «pediatria batek artatzea». Gehiago ere onartu digu: «aukera badudanez, herrian zerbitzurik ez dagoenean, pribatura, Donostiara, eraman izan ditut».



AMAÏUR ALKAIN
LEITZAKO GURASOA

«Arazoari soluzioa emateko ordua da»

Jasotzen duten zerbitzua «txarra» da Alkainentzat: «uztailean pediatria erdaldun bat jarri ziguten, baina herri askotara joaten da, ez dakigu bere ordutegia zein den eta jarraipenak egiteko zerbitzua eskasa da. Hori nabaritzen da atentzioan». Garbi mintzatu da: «nahikoa da, Leitza eta inguruan jaiotze-tasa asko haunditu da eta pediatria bat egoteko ordua da, haurrek jarraipen minimo bat izan behar dute. Arazoa ez da oraingoa eta soluzioa emateko ordua da».



RAUL IPARRAGIRRE
BERAKO GURASOA

«Kontent gaude zerbitzuarekin»

«Kontent gaude zerbitzuarekin, ez dugu arazorik izan». Hala aitortu digu Iparragirrek. «Kontent» dago pediatriarekin, baita erizainarekin ere eta bien arteko «elkarlana garrantzitsutzat» jo du; «egon daitezkeen hizkuntza arazoak erizainarekin ekiditen dira». Bortzietan zerbitzua zabaldu zutenetik esperatzeko tartea «aunitz murriztu» dela dio eta «herrian zerbitzua izatea erosogoa» dela onartu arren, «Lesaka bertan dago eta ez da deus ere kostatzen».

Eskualdeko 5.582 ikaslek hasi dute ikasturtea

laz baino 39 ikasle guttiago hasi dira Baztan, Bertizarana, Bortziriak, Leitzalde, Malerreka, Urumealde eta Xaretako ikastetxeetan

HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZAK

	HAUR HEZKUNTZA			LEHEN HEZKUNTZA		
	A eredu	B eredu	D eredu	A eredu	B eredu	D eredu
BAZTAN	0	0	202	5	0	495
Almandoz IP			2			3
Amaiur IP			7			21
Arizkun IP			7			26
Arraioz IP			10			17
Azpilkueta IP			12			4
Baztan Ikastola			57			142
Elizondo IP			59	5		162
Erratzu IP			11			25
Gartzain IP			5			8
Irurita IP			18			46
Lekaroz IP			6			4
Oronoz IP			4			24
Ziga IP			4			13
BERTIZARANA	0	0	22	0	0	41
Legasa IP			11			24
Narbarte IP			11			17
BORTZIRIAK	11	10	265	29	29	518
Arantza IP			24			36
Bera (Ricardo Baroja)			65			143
Bera (Labiaga Ikastola)			45			101
Bera (Jesusen Bihotza)	11	10	2	29	29	2
Etxalar IP			26			54
Igantzi IP			16			34
Lesaka (Irain IP)			57*			80
Lesaka (Tantirumairu)			30*			68

*2 urteko ikasleak barne.

	BIGARREN HEZKUNTZA			BATXILERGOA		
	A eredu	B eredu	D eredu	A eredu	B eredu	D eredu
BAZTAN	28	0	325	0	0	127
Lekaroz	28		325			127
Elizondo						
BORTZIRIAK	18	14	354	0	0	103
Arantza IP			16			
Bera (Toki Ona)	18	14	283			103
Bera (Labiaga Ikastola)			55			
LEITZALDEA	0	0	137	0	0	84
Goizueta			12			
Leitza (Amazabal)			125			84
MALERREKA	0	0	217	0	0	0
Doneztebe (Mendaur)			217			
XARETA	154	115	11	0	0	0
Senpere**	154	115				
Urdazubi-Zugarramurdi			11			
Guztira	200	129	1.044	0	0	314

**Senperen Bigarren Hezkuntzako datuak Arretxea Kolegiokoak dira eta Heziketa Zikloko datuak Laborantz Lizeokoak.

	HAUR HEZKUNTZA			LEHEN HEZKUNTZA		
	A eredu	B eredu	D eredu	A eredu	B eredu	D eredu
LEITZALDEA	0	0	144	0	0	259
Areso IP			8			23
Goizueta IP			16			42
Leitza IP (Erleta)			120			194
MALERREKA	0	0	149	13	3	327
Beintza-Labaien IP			3			2
Doneztebe (S. Migel)			100	13	3	207
Ituren IP			20			49
Saldias IP			5			6
Sunbilla IP			21			63
XARETA	92	154	99	202	224	162
Sara (Publikoa)		15		2	18	
Sara (St. Joseph)		40		12	56	
Sara (Olhain Ikastola)			43			75
Senpere (Publikoa)	22	69		75	102	
Senpere (Amotz publ.)	33			51		
Senpere (Zaldubi ikas.)			45			55
Senpera (St. Joseph)	37	30		62	48	
Urdazubi-Zugarramurdi			11			32
Guztira	103	164	881	249	256	1.802

HAUR HEZKUNTZA

-%3,05

LEHEN HEZKUNTZA

+%0,57

HEZIKETA ZIKLOAK							
LHB		OLH		Erdi M.		Goi M.	
A	D	A	D	A	D	A	D
2		28		95		34	
	2		28	24	71		34
0		0		35		38	
				35		38	
0		0		0		0	
0		0		0		0	
0		0		0		208	
						208	
2		28		130		280	

BIGARREN HEZKUNTZA

-%0,36

BATXILERGOA

+%0,64

HEZIKETA ZIKLOAK

+%0,46

Udalak bertako egurra erabiliko du energia sortzeko

Aurten 200 tona pinu ezpaldu dituzte eta urte osorako nahikoa erregai izatea espero dute

TTIPI-TTAPA

Herriko berokuntza-sistema hornitzeko, herriko egurra erabiliko du Udalak. Iaz, pago egur lote batzuekin egin zuen proba eta emaitza ona izan zen. Ezpalaren hezetasuna %30 azpitik izatea lortu zen eta erretzerako orduan ez zen inolako arazorik izan.

Aurten pinuarekin egingen dute frogia. 200 tona inguru pinu ezpaldu dituzte eta urte osorako nahikoa erregai izatea espero dute. Ekonomikoki, pinua merkeagoa denez, emaitza hobekia izatea espero dute. Era berean, inguruko intsignis pinuek duten egoera kaskarra ikusirik, irtenbidea emateko modua ezpaldu eta energia sortzea izan daiteke. Horrekin, kirodegia, haur eskola, insti-

tutua, ikastola eta eskola berotuko dira.

45.000 euro aurreztuak

2014az geroztik, instalazioa martxan jarri zenetik, 1.900 Mw energia kontsumitu da biomasa instalazioan. 250.000 litro inguru gasolio aurreztu dira. Udalaren arabera, dirutan 45.000 euro aurreztu dituzte: «tokiko garapena hobetzeko bidean bertako energia garbiak bultzatzea ezinbeberetzeko apustua iruditzen zaigu eta horietan biomasak emaitza onak ematen dituela garbi dago, bai ekonomikoki, baita ekologikoki ere. Beti ere gure mendien ustiaketa jasangarria izan dadin neurriak hartuz eta botatzen diren eremuak berriz ere landatuz».



Makina egurra ezpaltzen. Aurten 200 tona pinu-egur erabili dira. UTZITAKOA



UTZITAKO ARGAZKIA

'Ikasi dizut' kanta minbiziaren kontra

"Minbiziaren borrokan" daudenei eskainitako abestia sortu dute modu kolektiboan Beran Ikasi dizut. "Zuen minbiziaren borrokan ikasi dizuguelako, zuetaz harro!" esaldiarekin aurkeztu dute abestia eta bideoklipa. Tartean daude Beñardo Goietxe eta Dani Irazoki eta bideoklipa Katubik egin du.

Illeketako etxeei errotuluak paratu dizkiete izenarekin

Euskara Batzordeak sustatu du ekimena, Pello Iratzokik auzoko etheen izen bilduma aurkeztu ondotik. Ekimenak bi helburu ditu: galtzear diren etxe izenen erabilera bultzatzea, eta idazkera zuzena bultzatzea. Andres Iñigo euskaltzainaren gomendioei jarraitu zaie.

Agerrako bestetako zozketa-txartel sarituak

Agerrako bestetan saldu zituzten txartelek dagoeneko badituzte irabazleak. Lehendabiziko saria 2.966 zenbakia-arentzat izan da (baskarian saldua); bigarrena, 344, Telletxea janari-dendak banatu du; eta hirugarrena, 992 (Txaro Zubietak saldua).

'Naturarekin bat egiteko musika' irailaren 22an

Naturarekin bat egiteko musika izenburupean, Iruñeko In Tempore abesbatzak (San Jose abesbatza) kontzertua eskainiko du larunbat honetan, irailak 22, San Esteban Elizan. Saioa talde instrumentalarekin izanen da eta 20:00etan hasi-ko da.


Pirritx, Porrotx eta Marimotots irailaren 30ean

Pirritx, Porrotx eta Marimotots-ek *Borobilean* ikuskizuna eskainiko dute irailaren 30ean. 11:00etan hasiko da, Eztegaran. Sarrerak Purienean (Bera), Telletxea (Lesaka), Kimetz (Doneztebe) eta Etxalarko Herriko Ostatuan (0-2 urtekoek euro bat, gainerakoek 7 euro).



TXIMISTINDAR
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
Andueza e Iriarte, SL
Zalain Industrialdea, 42B-4.pab BERA
T. 948 631 452 | 639 608 034 | 639 125 046





Denda. 948 631 217
T. 630 136 863
Julio Caro Baroja, 6 - BERA
jauzenabera@gmail.com

Elektrizitate lanak orokorrean
Erreformak, etxe berriak
Lantegietako mantenu lanak

Etxetresnen salmenta, instalazioa eta etxez etxe konponketa
Antenak, satellite bidezko instalazioak

Erraldoi Topaketa antolatu dute larunbaterako

Elutxa txarangaren 5. urteurreneko ekitaldien baitan Baztan eta Bidasoaldeko hainbat talde etorriko dira

AITOR AROTZENA

Bosgarren urteurrena ospatzeko urte osoan gauzatzen ari den egitarau zabalaren baitan, Erraldioen Topaketa antolatu du irailaren 22rako Elutxa txarangak. Parte hartuko duten taldeei dagokionez, hau idazterakoan Arantzako erraldoiak etorriko ote diren edo ez zehaztu gabe badago ere, Lesakako konpartsa, Zarandiako Erraldoiak, Etxalar-ko erraldoiak, Berako konpartsa, Igantziko kankailuak, Baztango erraldoiak, Legasako konpartsa, Lesakako Gaitariak, Igantziko Gaitariak, Ezpelur Gaitariak eta, nola ez, Elutxa Txaranga ospakizunean izanen dira.

Egitaraua

Egitarauari dagokionez, larunbat goizeko 10:30ean di-nak eskainiko dituzte karrikaz karrika lau gaitero taldek. Ondotik luntxa izanen dute Harriondoan eta 11:30 aldera desfilea. Lau geldialdi izanen ditu ibilbideak: Zahar Etxean lehendabizikoa (talde guztiek banaka dantzatzeko dute), bigarrena Eskol-ttikin (bi taldek dantzatzeko dute), hirugarrena plazan (geldialdi nagusia, erraldoi talde guztiek dantzatzeko dute), laugarrena Bittirian (bertze bi talderen dantza), eta azkena Irubide jatetxean. Bertan bazkalduko dute talde



Erraldoi Topaketa egin zen 2015ean.

partehartzaileek eta 18:00k aldera konpartsa guztien jautsiera egingen dute. Eskol-ttikin, ezaguna den *Polonesa* dantzatzeko dute eta erraldoiak gordetzeko garaia ailegatu izanen da.

Halere, txarangarekin poteo bat egingen dute herriko ostuetan eta 20:00etan plazan bukatuko dute, Guateke Band taldearen musika aditzeko eta dantzatzeko. Guateke Band 60-80. hamarkadako kantak jotzen dituen taldea da, eta bertan Javier Igoa musikari lesakarrak jotzen du. Bi orduz ariko dira jotzen eta giroa jar-tzen.

Ez dira larunbatekoarekin Elutxa txarangaren urteurreneko ospakizunak bukatuko. Azaroan Txaranga topaketa egin nahiko lukete eta urte bukaeran CDA grabatu.



UTZITAKO ARGAZKIA

Luciano Mitxelena Espainiako txapeldun

Transbidasoa-Iñurrieta taldean ari den Luciano Mitxelena txirrindulariak Espainiako master-60 txapelketa irabazi du irailaren 8an Sorian. 71 kilometroko ibilbidea egiteko ordubete, 56 minutu eta 41 segundoko behar izan zituen. Ia bortz minutuko aldea atera zien bere kategoriako hurrengoei.

Herri dantza ikastaroa eskainiko du Beti Gaztek

Jauziak, Muxikoak eta bertze zenbait herri dantza ikasteko aukera eskainiko du Beti Gazte-
tek ikasturte honetan, ortze-gunetan 19:00etatik 20:30era elkartearen egoitzan. Izena emateko 676 061 473 telefonora (Alejandro) deitu behar da arratsaldez edo whatsapppe.

Herentziak eta testamentu bitala hizpide

San Fermin erretiratu eta pentsiodunen elkarteak antolatu-tuta, herentziak eta testamen-tu bitalari buruzko solasaldi interesgarria eskainiko du Teresa Dapena adituak irailaren 25ean, astearte arratsal-deko 4:30ean jubilatuen egoi-tzan.

Ostatuetako itxiera ordua eta zarataren inguruko bandoa

Aste bukaeretan ostatuen itxiera orduari eta hauen zarata-mailari buruzko kexak jaso dituzte Herriko Etxean eta horregatik, bandoa argitara eman zuen Udalakabuztuaren 8an. Ostatuetakoa nagusiei legezko arauak zorrotz bete ditzaten eskatu zaie.

Agoitz Irazokik Kontxako bigarren bandera lortu du

Segundo eskas batengatik izan bada ere, Hondarribia arraun taldeak lortu du Donostiako Kontxako bandera preziatua irabaztea eta bertan aritu da Agoitz Irazoki herritarra ere. 2013an ere irabazi zuenez, bigarren bandera da herriko arraunlariarentzat.

 **Hemen erabili**
kattagorria
LESKA
948 627 514
www.kattagorria.com

IRU-BIDE
OSTATU • JATETXEA
Arratzubi Kalea 3
31770 LESKA
T. 948 63 71 27

JAKONE-GOROTEGIA
Etxean egindako produktuak
948 630 786 • Altzate, 21 • BERA


744 484 361
ttipi-ttapa

Usategietako tradizioaren besta igandean Lizarrietan

Etxalar eta Sararen arteko hitzarmena berrestez gain, hainbat ekitaldi egingen dituzte

IRUNE ELIZAGOIEN

Bertze urte batez, Etxalarko Usategiak antolatuta, usategietako tradizioaren besta ospatuko dute igandehonetan, irailak 23, Lizarrietan.

Egitarau zabala antolatuta dute. 10:00etatik 13:00etara artisauen erakusketa eta salmenta postuak paratuko dituzte. Horrez gain, *Usoak sarean* erakusketak eskainiko du Sarako Ondareak. Usazaleen paletak egiteko erakustaldi parte-hartzailea egingen dute eta haurrentzako puzgarriak ere izanen dira. Taloekein hamaiketako egiteko aukera izanen da.

10:30ean botaluze pilota partida hasiko da. 11:30ean Usategietako makila (karrote) botatzeko munduko V. txapelketa egingen da eta ondotik, nahi duenak paleta botatzeko aukera izanen du.



Karrote txapelketako sariak, iaz.

12:30ean 2011ko irailaren 4ko Sara eta Etxalarren arteko hitzarmena berresteko ekitaldia egingen dute. 13:00etan Sarako dantzariak saioa eskainiko dute eta token aritze-ko aukera izanen da.

14:00etan bazkaria egingen da eta eguerdian eta bazkal ondotik, Joxe Anjel akordeoi-laria ariko da. Bazkarirako txartelak irailaren 20a baino lehen erosi behar dira, Elutsan edo Herriko ostatuan (22 euro).

Muxikoak ikasteko aukera urritik aitzinera

Urriaren 3tik aitzinera muxiko ikastaroa izanen da asteazkenetan Larraburuan, 19:00etatik 20:00etara. Bazkideek 14 euro ordainduko dute hilabeteetan eta bazkide ez direnek 16 euro. Izena emateko 664387343 edo 948635166ra deitu behar da irailaren 23a baino lehen.

80 ikaslek hasi dute ikasturtea Landagain eskolan

Irailaren 7an hasi zuten ikasturte berria Landagain eskolan. Bortz ikasle berri hasi eta zortzi gaztetxok eskola utzi ondotik, 80 ikasle izanen dira guztira. Gogotsu eta animoso ekin diote guztiek ikasturteari eta lanerako gogoz itzuli direla ikusi dute irakasleek.



Irailaren 8ko enkantea. JOSE MARI TELLETXEA

Udalak 38.435 euro bildu ditu Usategietako enkantean

I. ELIZAGOIEN

Iarmendi inguruko 21 uso ehiza postuen enkantea irailaren 8an egin zen Herriko Etxean. Azkenean, 38.435 eurotan eman ziren, hasierako prezioaren gainera (34.465 euro). Ustekabea 21. postuarengatik lehia handia izan zen eta hasieran 1.670 eurotan atera zena, azkenean, 8.770 eurotan eraman zuten.

21 postuetatik 12 hasierako prezioan atera zituzten, inolako hobetzerik gabe. 10. postua 151 tanto hobetu zuten (1.210 euro gehiago). Aldiz, 1., 13., 15., 16., 17. eta 18. postuak hutsean gelditu ziren eta inork ez zituen hasierako 720 edo 925 euroak ordaindu. Posturik garestienak, zortzigarrena eta hamaikagarrena, hasierako 3.290 eurotan atera ziren.

Sesta

Sesta emateko prozedura segituz, sei egun naturaleko epea izaten da lehenbiziko egunean egindako behin-behineko esleipenak hobetu ahal izateko. Horren arabera, bigarren enkantea asteartean, irailak 18, egitekoa zen irailaren 8an

Enkantea

Postuak	Tasazi.	Errematea
1. postua	925	0
2. postua	925	925
3. postua	2.225	2.225
4. postua	1.730	1.730
5. postua	2.225	2.225
6. postua	1.730	1.730
7. postua	2.225	2.225
8. postua	3.290	3.290
9. postua	2.245	2.245
10. postua	2.245	3.755
11. postua	3.290	3.290
12. postua	1.670	2.520
13. postua	1.465	0
14. postua	925	925
15. postua	925	0
16. postua	720	0
17. postua	720	0
18. postua	720	0
19. postua	925	925
20. postua	1.670	1.670
21. postua	1.670	8.770
GUZTIRA	34.465	38.435

ITURRIA: ETXALARKO UDALA


hutsik gelditutako postuak eta sesta emateko epean hobetu diren postuak (hala bada) enkantean berriro ateratzeko.

Errentan ateratzen dena ordaintzeko irailaren 21era arteko epea izanen da.



· INGENIARITZA ELEKTRIKOA
· PROIEKTU ELEKTRIKOAK
T. (0034) **636 617 450**

· BOLETIN INDUSTRIA
· INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
Legia. 23 - **BERA**



F. LANCHAS
Akutxiladorea eta bernizatzailea
Parket eta parket flotatzailea jartzea
Mota guztietako zolak
Tel: 948 630 735 M: 607 406 781



Lehenago duxak ziren tokian orain bi gela egokitu dituzte. AITOR ELEXPURU

76 ikaslek eta 10 irakaslek hasi dute ikasturtea eskolan

Ikasleak borts taldeetan banatuak daude eta hainbat obra ere egin dituzte uda honetan eskolan

NEREA ALZURI

2018/2019 ikasturtean murgildu dira herri eskolan. Haur eta Lehen Hezkuntzakoak irailaren 6an hasi ziren eta DBHkoak, berriaz, biharamunean. Guztira 76 ikasle eta hamar irakasle dira eta ikasleak borts taldeetan banatuak daude.

Haur Hezkuntza hiru urteko zazpi hasiberriak eta lau urteko bederatzi neska-mutikoak talde berean daude; borts urteko zortzi ikasleak eta Lehen Hezkuntzako lehenbiziko mailako bertze zortzi ikasleak ere talde berean sartu dituzte. Bigarren mailako zortzi ikasleak hirugarren mailako zazpi ikasleekin egonen dira. Lau garren (lau ikasle), bosgarren (zortzi ikasle) eta seigarren mailakoak (ikasle bat) talde berean ariko dira, eta DBHkoak bertze batean.

Azken talde honetan hamaisei ikasle dira, zazpi lehenbiziko mailan eta bederatzi bigarren mailan.

Eskolako lanak

Udan, Herriko Etxeak eta Guraso Elkarrekin hainbat obra eta konponketa lan egin di-

tuzte: argiteria aldatu, Haur Hezkuntzako komunak egokitu, jantokia intsonorizatu, margoketa lanak... Bikoizketarako bi gela berri ere badira, Nafarroako Gobernu Hezkuntza Departamentuaren diru-laguntzarekin eginak.

Eskolatik eskerrak eman nahi izan dituzte gurasoek eta hainbat herritarrek auzolanean eskolan egin dituzten lanengatik.

Jarduerak

Jarduera batzuen berri ere eman digute. Hala, irailaren 28an Donostiako Zinemaldi-
ra joan dira.

Bertzalde, iaz hasitako *Denboraren joana* proiektuarekin segituko dute; fruten eta barazkien kontsumoa sustatzeko kanpainak aurten ere jarraituko izan du; eta berdintasuna lantzeko SKOLAE programak ere garrantzi handia izan du.

Jangela zerbitzua

Ikasturte hasieratik jangela zerbitzua ere martxan da. 67 hurrek bi txandatan bazkal-
tzen dute.

Pilota eskolan apuntatzeko epea zabalik

Ekaitza Elkartetik jakinarazi dutenez, urrian hasiko da pilota eskola, eta neska-mutikoek astelehenetan izanen dituzte pilotako entrenamenduak. Eskolaz kanpoko jarduera honetan parte hartzeko irailaren 28a baino lehenagotik eman beharko da izena.

Euskaraldiaren aurkezpena aste honetan

Euskaraldiaren prestaketak aitzinera doaz herrian eta ize-na emateko garaia hurbiltzen ari den honetan, herritarrei Euskaraldiari buruzko azalpenak emateko bilera irekia egitekoa zen asteartean, irailak 18, 16:00etan Herriko Etxean.



MIKEL LARRETxea

Eguraldi eta giro ederra Eguzkialdean

Pantxo Mitxelena botatako txupinazoarekin hasi ziren Eguzkialdeko bestak. Aizkora desafioan, Etxeberria aita-semeak Donato Larretxea eta Asier Pellejeroren kontra aritu ziren; herri-bazkarian, ez zuten nolanahiko otordua egin eta Beñat Mitxelena arduratu zen bazkalondoa girotzeaz.



Astelehenetik
ortziralerara:
07:15etik
aitzinerara

Larunbata
eta igandea:
08:00etatik
aitzinerara

948 631 076 • BERA



BILTEGIA: 948 630 102
SAKELAKOA: 633 480 563

Bidasoa, 76 - atea 21-22 • BERA



T. 948 634 179 | ARANTZA
www.arantza.net



albergea jatetxea ostatua

Giro ederra mendi bizikleta zeharkaldian

60 heldu eta 35 haur inguruk parte hartu dute aurten 28. aldiz egin den ibilaldian

TTIPI-TTAPA

Uda akabailako aspalditxoko hitzordua bete zen irailaren 2an Igantzin: mendi bizikleta zeharkaldia. Izan ere, hogeita zortzigarrena zen aurtengoa. Eguraldia lagun izan zuten txirrindulariek baina iaz baino 40 lagun inguru gutiago hurbildu ziren ibilbidea egitera. Halere, erran behar da, Biltoki Elkarteak prestatuta betiko harrera egin zitzaizela etorritakoei, bikaina betiko moduan.

Ibilbideak aukeran

Goizeko bederatzieta abiatuta, 33 kilometroko ibilbidea egin zuten batzuk eta 23koa bertzeek, Unanuko itzulia alde batera utzita azken horiek. Guztira 60 bat heldu atera ziren eta ibilbide gogorra gehien erranetan.

Parte-hartzaile ilustre bat izan genuen azkarrena helmugan: Jon Bru beratarrak, txirrindulari profesional bikaina izandakoa. Azpimarratzekoa da Sunbilla aldetik etorritako taldea ere, alde hartan txirrindularitza osasuntsu dagoen seinale.

35 haur ingurua

Haurrek, berriz, 10:00etan hasita, bi aldiz bete zuten herri inguruko ibilbidea, Talaia eta Simonbaita aldean. 35 haur inguru animatu ziren eta batzuk euren kabuz eta bertzeak gurasoek lagunduta hagitz giro polita paratu zuten, ibilbide haundikoak mendian barrena zebiltzan bitartean.

Errandakoa, antolaketa bikaina eta zerbait egokitzeko edo birplanteatzeko beharra akaso.



Helduak eta haurrak irailaren 2ko mendi bizikleta ibilaldian. OSKAR TXOPERENA



Kanttonberri 12 · BERA
T./Fax: 948 630 018

ETXERA
ERAMATEKO
ZERBITZUA
URTE OSOAN



HARATEGIA / URDAITEGIA
Enaut & Nekane



TELEKOMUNIKAZIOAK

ANDONI LASAGA APEZTEGUIA

- ▶ TDT instalazioak
- ▶ TB instalazioak (satelite, lurrekoak)
- ▶ Instalazio indibidualak eta kolektiboak
- ▶ Satelite bidezko interneta
- ▶ Internet konexio simetrikotik ultrasterra

T. 637 40 86 40 · 31780 BERA · andonimabako@gmail.com



DONEZTEBE
Parrokia karrika, 21 | T. 948 450 266
arnedo.ind@allianzmed.es

BERA
Eztegara pasealekua, 26 | T. 948 625 259
info@arinseguros.com



691 384 651 (WhatsApp)



arnedo-inda.allianz.es

BIDAIA ASEGURUAK

Atzerrira bidaiatzekotan zabilta?

Ustekabeko arazorik izan ez dezazun, Allianz-ek BIDAIA ASEGURUA eskaintzen dizu.

Jarri gurekin harremanetan eta zure zalantzak argituko dizkizugu.





Bortzirietako eta Malerrekan udal ordezkariak kanpainaren aurkezpen egunean. UTZITAKO ARGAZKIA

Bortzirietan eta Malerrekan euskara doan ikasteko eta hobetzeko aukera izanen dute

Euskara zerbitzuek egitasmo honekin herritarrek euskara ikasi edo hobetzera animatzea dute helburu

TTIPI-TTAPA

Aitzineko egunetan trailerra zabaltu eta sortutako jakin-minaren ondotik, irailaren 5ean aurkeztu zuten *Musutruk. La película*. Ez da, ordea, film bat, Bortzirietako Euskara Mankomunitateak eta Malerrekan Mankomunitateak herritarrek euskara ikastera edo hobetzera animatzeko egindako kanpaina baizik.

Euskara dohainik

2018/2019 ikasturtean Bortzirietan eta Malerrekan errolatuta dauden biztanleek euskara ikasi edota hobetzeko aukera izanen dute, doan. Ikasleen aprobetxamendu egokia ziurtatuz gero, bi entitateek matrikularen %100a ordainduko dute.

Kanpaina Malerrekan eta Bortzirietako alkate eta zinegotziek aurkeztu zuten, Ernesto Dominguez Zubietako alkateak, Mentxu Peña Arantza-k alkateak eta Bortzirietako Euskara Mankomunitateko lehendakariak, Mari Joxe Bereau Iturengo alkateak, Miguel Mari Irigoien Etxalarko alkateak, Marga Erdozain eta Pe-

llo Grazena Doneztebeko zinegotziek eta Juankar Unanua Igantziko alkateak. Aurkezpenean adierazi zuten, «Bortzirietan eta Malerrekan errolatuta dauden biztanleek bertako hizkuntza jakiteko eskubidea dute». Horrela bada, «eskubidea bermatzeko erabakia» hartu dute, «baliabideak eskainiz».

Bai Malerrekan, bai eta Bortzirietan ere, euskaraz jakin badakiten eta egunerokoa erabiltzen duten biztanleak «asko» direla uste dute. Aitzitik, ezagutza ez da unibertsa: «%20ak ez du ongi menperatzen». Erakundeek «pertsona askok euskaraz hitz egiten edo behintzat ulertzen ikas dezaketela» adierazi dute. Bortzirietako Euskara Mankomunitateak eta Malerrekan Mankomunitateak argi dute euskara jakiteak ateak irekitzen

dituela eta bizi baldintzak hobetzen dituela.

Izen-ematea

Bortzirietako euskaltegia edo Malerrekan euskaltegia eskainiko den ikastaroan irailaren 28ra arte eman daiteke izena, eta diru-laguntzei buruzko informazioa euskara zerbitzuetan eskuratu ahal izanen da.

Deialdiari buruzko informazio zehatza mankomunitateetako webguneetan ikusgai dago: www.bortziririak.eus eta www.malerrrekakomankomunitatea.eus.

Bakeari, Giza Eskubideei eta bizikidetasunari lotutako laguntzak

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuak terrorismoaren eta 36ko indarkeriaren biktimen errekonozimenduzko ekitaldiak, laguntza memorialistak, kulturartekotasuna sustatzeko ekintzak eta bakea, bizikidetasuna eta Giza Eskubideen inguruko balioen sustapeneko jardueretarako 170.09,51 euro eman ditu. 19 toki erakunde eta irabazi-asmorik gabeko 17 elkarte jaso dute laguntza eta tartean, Berako Udala eta Bortzirietako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea izan dira onuradunak. Diru-laguntza horiekin, biktimen erreparazioa egiten, memoria bultzatzen eta bakearen kultura nahiz errespetuaren, aniztasunaren, kulturartekotasunaren eta bizikidetasunaren balioak sustatzen laguntzen duten jardueren inguruko inbertsioan eta antolaketan laguntzen duten ekimenak bultzatu nahi izan dituzte. Berako Udalak, 36ko kolpe militarren biktimen oroimena eta errekonozimenduen harira jarritako monolito eta plaken ordainetan 6.000 euro jaso ditu eta Mankomunitateak gurasoentzat antolatutako sare sozialen erabilerrari buruzko Sare-on ikastaroengatik, 175 euro.

**IZENA IRAILAREN
28RA ARTE EMAN
DAITEKE
EUSKALTEGIETAN**

E D A R I A K

MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel.: 948 63 10 27 - Fax: 948 62 52 11
tabernabera@gmail.com
www.tabernaedariak.eus



Joan den urteko ikastaroaren inaugurazioan, erdian, Belen Compains pediatria.

Haur elebidunen hizkuntza-garapena ezagutzeko ikastaroa

Ezohiko garapena duten haurren hizkuntza-garapenaz ariko dira irailaren 28an eta 29an Lesakako Kultur Etxean

TTIPI-TTAPA LESAKA

Haur elebidunen hizkuntza-garapena hobeki ezagutzen laguntzeko ikastaroa antolatu dute aurten ere, aldi honetan EHUren udako ikastaroen barne. Lesakan izanen da, irailaren 28an eta 29an, eta bereziki osasun arazoan edota arazo-sozialen ondorioz ezohi-

ko garapena duten haurren egoera landuko dute. Zehazki, *hizkuntzaren garapenaren alderdi soziolingustikoak haurtzaroan. Ezohiko garapenean eskuhartze eta baloraziorako pausoak* da ikastaroaren izenburua. Hezkuntza eta osasun arloko hainbat profesionalak parte hartuko dute.

Irailaren 28ko egitaraua

Ortzirale arratsaldean, irailak 28, 16:00etan, Belen Compains Beaumont Lesakako Osasun Zentroko pediatriak ikastaroa inauguratuko du. Ondotik, Begoñako Andra Mari Irakasleen Unibertsitate Eskola-Hizkuntza eta Literaturaren Didaktika Saileko Ane Ortega Garciak hizkuntzen egoera soziolingustikoa eta hezkuntzaren paperaz solasaldia eskainiko du.

17:30etik 17:45era geldialdia egingen dute, eta ondotik, orientatzaileen eta gurasoen arteko mahai-ingurua prestatu dute. Belen Compains pediatria izanen da moderatzailea eta Aranzazu Mikeo Arraras Lekunberriko eskolako orientatzaileak eta Nerea Martinez Lasheras, Anatxo Manzano Garraio eta Maria Angeles Razkin Lizarraga gurasoek parte hartuko dute.

Irailaren 29ko egitaraua

Larunbatean, 09:00etan, Nafarroako Unibertsitate Publiko irakaslea den Paula Kasares Corralesek belaunaldien arteko euskararen transmisioari buruzko hitzaldia eskainiko du. 10:00etan Naira Delgado Marquez *hizkuntza te-*

rapeutak eta logopedak entzumen-trastornoak dituzten haurretan hizkuntza garatzeko entzumen eta hitzezko terapia solasaldia eskainiko du.

Ordu erdiko atsedenaldiaren ondotik, 11:30ean, Leire Diaz de Gereñu Lasaga eta Ines M. Garcia Azkoaga EHUko doktore eta irakasleek hartuko dute hitza. *Ezohiko garapena duten haurrei hizkuntza erakusterakoan irakasleen sinismen eta praktikak izanen dute hizpide. 13:00etatik 15:00etara bazkaria egingen dute eta ikastaroa borobiltzeko Diaz de Gereñu eta Garcia irakasleen txanda izanen da berriaz: hizkuntzaren ezohiko garapena eta gaitasun komunikatiboak lantzeko alternatiben inguruan ariko dira.*

Ikastaroarekin, arazoak hautematerakoan, baloratzekoan edo horietan esku hartzerakoan dauden gabeziak atzeman eta hobekuntzak egiteko proposamenak bildu nahi dituzte.

Izen-ematea

Maiatzean ireki zuten ikastaroan izena emateko epea, baina oraindik ere norbaitek ikastaroan parte hartu nahi badu badu aukera, uik.eus atarian.

1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

Funda nordiko eta edredoietan espezialistak

edredoi fundak · albornozak · edredoi nordikoak · ohe estalkiak · maindireak · mantelak · kuxinak · toailak

Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634



20 urtez egindako lana eskertuz, omenaldi hunkigarria egin zion Mendi Taldeak. UTZITAKO ARGAZKIA

Fernando Etxeberriari esker ona adierazi dio Mendi Taldeak

Omenaldira 1999an sortutako mendi taldeko kide batzuk joan ziren eta Jose Mari, Pantxito eta Juan ere gogoan izan zituzten

JOSE LUIS LEGARRA

Erretiratuen elkarteko kideek urteetan buru-belarri lanean aritu diren boluntarioen lana eskertzeko eta merezitako atsedena emateko omenaldiak egin izan dituzte. Berriki, elkarteko mendi batzordeak 20 urtez mendi-irteerak eta ateraldiak antolatzen eta bideratzen ibili den Fernando Etxeberriari esker ona adierazteko ekitaldia egin zion. Bertzeak bertze, Pirinioetako ateraldiak eta Santiago Bidekoa antolatzen ibili da Etxeberria. Kasu honetan, kideek lanean jarraitzeko eskatu diote.

Omenaldi ederra

Abuztuaren 21ean egin zioten omenaldia. 62 mendizale bildurik, Mendaurrera joan ziren. Ondotik Donezteben egin zuten bazkarian 71 kide bildu ziren.

Ezurrako Fernando Etxeberriari bazkaltzen hasi zirenean eman zioten omenaldia-
ren berri, aitzinetik esanez gero ez lukeela onartuko uste baitzuten.

Idazkariak, Garbiñe Azpirozek, Juan Migel Saizar txistulariaren laguntzaz, aureskua dantzatu zion.

Teresita Nazabal eta Ramon Tapiak eta 20 urteotan egindako lana goraipatu zuten. Ibilbideari keinu eginez, Goiz Mendi Taldea 12 kideekin hasi zela eta gaur egun, hileroko irteeretan 60-70 mendizale biltzen direla gogoratu

LEHENDABIZIKO MENDI TALDEKO ZENBAIT KIDE BILDU ZIREN

zuten: «elkarteko kideek eskuzabaltasunez egin duzun lana eskertu eta elkartean jarraitzeko eskatu nahi dizugu, batzordeko gainerako kideen laguntzarekin».

Mari Paz Huizi eta Paula Huarteren eskutik jaso zituen oroigarriak: batetik, 'Arkupeak Mendi taldeko zure lagunenez partez. 2018/08/21' grabatua daraman kopa, antolatze-lanetan nagusi izan dela adieraziz; eta bertetik, mendian ibiltzeko bi makil oparitu zituzten.

Juan saxofoi-jolearen laguntzaz bertsoak ere kantatu zituzten: *'Ene! Zenbat menditarra/ zuk gaituzun eramanda/ ikusi ditugu hainbat/ tontor, erreka ta landa,/ harat eta honat ibili/ gara dinbi eta danba/ Txangoak egin ditugu/ ongi jan eta edanda. Guzia prest dena gertu/ edonora ere joanda/ beti lagun beti jator,/ aholku onak emanda,/ lan handia egin duzu/ bihotz bihotzez erranda/ zure laguntza Fernando/ plazer handia izan da.*

Fernando hunkituta eta hitzik gabe gelditu zen: «bihotz-bihotzez mila esker aunitz» baino ezin izan zuen erran. Tomas eta Juanen musika, kantu eta dantzekin bukatu zuten besta.

Mediterraneoko itsas-bidaia irailean egitekoa zuten

TITIPI-TTAPAREN 717. zenbakian Mediterraneoko itsas-bidaia abuztuan eginen zela adierazi zen. Akatsa izan zen. Izan ere, abuztuan elkarteko kideak Eroski bidaiak agentziako antolatzailearekin biltzekoak ziren, azken zehaztapenak lotzeko. Itsas-bidaia, ordea irailaren 17tik 24ra, astelehenetik astelehenera, egitekoa zuten. Bertzeak bertze, Naples, Civitavechia, Livorno, Niza... bisitatzekoak zituzten. Hurrengo aldizkarian bilduko dira bidaiari buruzko zehaztapenak.

Bidaia eta ateraldi gehiago antolatzen dabilta

Batetik bertzera dabilta Arkupeak elkarteko kideak. Aurtun ere, Arantzazu eta Lezora joateko asmoa dute. Joan den urtean arrakasta handia izan zuten bi bidaia horiek; Arantzazura 220 lagun joan ziren; Lezoko San Kristoren bestara, berriki, 118 kide. Bidaia horiez gainera, mendi-irteerak ere badituzte esku artean. Mendaurrera eta Gorbeara ateraldiak prestatzen ari dira. Bidaiei nondik norakoak hurrengo zenbakian, urriaren 4ko datarekin argitaratuko den TITIPI-TTAPAN, bilduko dira.



Joan den urtean Arantzazun.

IGANTZI KO BESTAK

Irailaren
22a, 23a eta
28tik urriaren
1era



Olaia
MATXIKOTE
Igantziko
gaztea

«Egindako lana
baloratzeak urtetik
urtera segitzeko gogoia
ematen digu»

«Aukera duen guztietan» musika edo dantzaren inguruan ibiltzen den gazte igantziarra da Olaia Matxikote. Zaletasuna ongi errotua du. Izan ere, «hiruzpalau» urte zituela hasi zen herriko dantza-taldean, eta ordutik, «asteen behin bederen eta emanaldiak hurbildu ahala maizago» biltzen dira. Guztira «ehun dantzari inguruk eta hainbat musikari finek» osatzen dute taldea, baina ageriko emanaldiaren gibeletik «lan haundia» egiten dutenak ere badaude: «muntaketa-lanetan aritzen direnak eta arropak josten laguntzen digutenak, erraterako».

DANTZAREN BUELTAN BESTA

Urtean zehar hainbat emanaldi egiten dituzte dantzariak herrian: «San Joan Egunean San Joan Xarren dantzatzan dugu, eta azken aldian maiatzean eta abenduan ere emanaldiren bat antolatu izan dugu». Herriko emanaldi guztiek xarma dutela iruditzen zaio: «bertako eta hurbileko jende aunitz hurbiltzen da ikustera, eta egindako lana baloratzea eskertzekoa da, horrek ematen digu urtetik urtera segitzeko gogoia». Emanaldiak bat baino gehiago badira ere, herriko besten bueltan dantzak «presentzia handiagoa» du igantziar gaztearen ustez: «aitzineko aste hondarrean emanaldia antolatzen dugu, ilunabar batean egiten diren muxikoek geroz eta indar handiagoa dute eta San Migel Egunean bai goizeko dantzak, baita arratsaldeko soka-dantzak ere

bereziak dira».

Izan goizeko eta arratsaldeko dantza saioengatik, edota goizeko karrika-bueltagatik San Migel Eguna «luzea baina berezia da» igantziar gaztearentzat. Bezperako giroa, herritarren gogoak eta Biltoki elkarteko afaria «hagitz gustuko» baditu ere, «eguneko besta geroz eta gehiago» gustatzen zaio: «goizean atera, eguerdiko giroaz gozatu, etxean edo hor barrena bazkaldu eta arratsaldeko ekitaldiak ikusi...» denetarik egiteko aukera izaten du: «batzuetan familian, bertzeetan kuadrillarekin edota haurren inguruan biltzen gara: dantzetan, erraldoi eta buruhandien konpartsaren bueltan, erraterako».

Baina ttikienak oheratzen direnean, «indarrek iraun bitartean arratsez ere hor ibiltzen gara» aitortu digu: «herriko eta plazako giroa gustatzen zaizkit, baina kontzertuetan eta ostatu giroan ere ibiltzen naiz». Gaua behar baino gehiago luzatzen bada, biharamunean «goiz-goizetik gorputza martxan jartzea» da gakoa. Ajeari ernatzeko astirik eman gabe, «ehuneko ehunean» bizi ditu bestak Olaia Matxikotek: «ahalik eta hoberen aprobetxatzen saiatzen naiz, goizez, arratsaldez eta gauez, beti bada gozatzeko aukerarik». Hori bai, besten ondotik, «gorputza bere onera bueltatzeko», egun batzuk behar izaten ditu, baina... «bertze aukerarik ez dago!» dio irri artean.



OKILA
zurgindegia

- tarimak, leihoak, atek, eskailerak...
- obretako lanak orokorrean

Lander Sein
Mikel Anburua



On egin janak eta kalterik ez edanak!

607 88 39 68 · lander@okila.eu
Piedadeko auzoa, 32 · IGANTZI

Bide berriak
Iparraldeko abentura parkerik handiena
Haurrentzako gune berriak



KULTURKARI
Diseinu grafikoa | Publizitatea

EGUTEGIAK



- SAKELEKOAK
- PARETAKOAK
- MAHAI-GAINEKOAK
- FORMATU BEREZIAK

- Pertsonalizatuak
- Hainbat paper motatan

Eskatu aurrekontua
konpromisorik gabe!



(0034) 948 63 54 58 | www.kulturkari.com

GORA SAN MIGELAK!

borzud

IMPRESA - HOPISTEGIA

948 631 521

material guztietan inprimatzen dugu
hamisetak / oparitzeko artikulua

**ONGI PASA
BESTAK!**

Ingurumen Zerbitzuak

ezpala

- PINADIEN BALORAZIOAK
- LUR NEURKETAK
- KARTOGRAFIA, PLANOAK ...
- INGURUMEN TXOSTENAK OROKORREAN

ANDRES ZELAIETA ELTZAUDIA
IGANTZI - LEGASA · T. 606 31 45 26
andreselaieta@hotmail.com

**ONGI PASA
BESTAK!**



TALOTXA

IGANTZI ERAIKUNTZAK S.L.

Piedadeko auzoa, 8 · 31790 IGANTZI
Tel. 608.202.126 / 618.901.810

KULTURKARI
Diseinu grafikoa | Publizitatea



**SARRERAK eta
BOLETOAK** egiten ditugu

Baita
TXARTELAK ere



(0034) 948 63 54 58 | www.kulturkari.com



IRAILAK 22, larunbata

09:30 Gosaria Ziobin. **10:00** Plater-tiroketa Ziobin. **12:00** Herriko pilota partiden finalerdi eta finala. **20:00** Herriko dantza-taldearen emanaldia. **22:00** Afaria Biltokin, Mikel Bermejoren eta Jose Kruz Gurrutxagaren bakarriketak girotua.



IRAILAK 23, igandea

10:00 Karrika buelta txistulariekin. **12:00** XV. gazta lehiaketa. **12:00** Ardo dastaketa. **18:30** Karrika buelta kankailu eta buruhaundiekin. **19:00** Gazta eta opil dastaketa Iñaki eta Joxe Agustin trikitilariekin.

IRAILAK 28, ortziralea

16:00 Ginkana. **20:00** Altxaferoa. **Ondotik** Elutxa txaranga eta karrika buelta kankailu eta buruhaundiekin. **00:00-04:00** DJ Txingudi.



IRAILAK 29, larunbata

09:30 Karrika buelta txistulariekin. **10:00** Karrika buelta espata-dantzari eta txistulariekin. **11:30** Meza Nagusia Igantziko abesbatzarekin. **Ondotik** bandera arbola doinuari dagokion ikurrin agurra eta herriko espata-dantzari eta dantzarien saioa. **17:00** Dantza-luzea Foru Plazan. **17:30** Afizionatuen arteko pilota partidak: Telletxea-Gaskue/Canabal-Apezetxea eta Tainta-Aldabe/Urbietia-Alduntzi. **20:00-22:00** | **00:00-01:00** Burrunba Elektrotxaranga. **22:00** Herenegun taldea. **00:00-01:00** Betizuak zezen-plazan Burrunba Elektrotxaranga alaitua. **01:00-05:00** Oharkabe taldea.



ARGAZKIAK: Oskar Txoperena

IRAILAK 30, igandea

10:00 Karrika buelta gaiteroekin. **12:00** Haurrentzako entzierroa eta karrika buelta kankailu eta buruhaundiekin gaiteroek lagunduta. **12:00** Haur eta helduentzako toka txapelketa frontoian. **18:00** Herri-kirolak: 1. Haurren proba konbinatuak | 2. Euskal Herriko koxkor biltze finala. | 3. Nafarroako II. Mailako aizkora finala. | 4. Herriarren arteko desafioa. **20:00** Muxikoak Foru Plazan. **21:00-00:00** Treku taldea.



URRIAK 1, astelehena

10:00 Karrika buelta txistulariekin. **10:00-12:00** | **15:00-18:00** Haurrentzako puzgarriak frontoian. **11:00** Haurrentzako animaliak zezen-plazan. **12:00** Betizuak zezen-plazan Elutxa txarangak alaitua. **14:00** Haurren herri-bazkaria. **14:00** Herri-bazkaria Andoni Egaña eta Sustrai Colina bertsolariekin, Elutxa txarangak alaitua. **Ilunabarrean** Irrintzi txapelketa. **20:00-00:00** Joxe Anjel akordeoilaria.

AINHOA
estetika
Bestak gozatu!

661 432 630 amitxebe2@hotmail.com
Eztoganaga, 4 - behea · 31790 Igantzi (Na)



ZUMARBEL
creaciones metálicas
Igantzi (Navarra)
948 63 74 11
ONGI PASA BESTAK



Lehen A.T.M. S.A
Berrizaun 25,
31790 IGANTZI
T. 948 63 74 11
@ info@zumarbel.es
www.zumarbel.es



***Igantzik Udalak besta onak opa dizkizue
igantziar eta bisitari guztiei***

Hiru urteko bortz ikasle hasi dira eskolan

Guztira 84 ikasle eta 19 irakasle izanen dira ikasturte honetan

MAIDER PETRIRENA

Udako oporrak akituta, eskolako neska-mutikoek irailaren 7an eman zioten ikasturteari hasiera. Aurtengoan bortz ikasle izan dira lehenbiziko aldiz eskolan hasi direnak: Aiara Apezetxea Agirre, Aritz Bertiz Juanenea, Aner Petrirena Gonzalez, Libe Agirre Salaberria eta Iraia Zugarramurdi Bucinska. Horrela bada, guztira 84 ikasle dira, 21 Haur Hezkuntzan eta 63 Lehen Hezkuntzan.

Irakasleei dagokienez, 19 ariko dira herriko eskolan la-

nean, ibiltariak barne. Iraileko eta ekaineko hilabeteetan goizez bakarrik izanen dute eskola baina jangela zerbitzua erabiltzen duten ikasleak 15:00 bitarte bertan egoteko aukera izanen dute.

Eskolaz kanpoko ekintzak ate joka

Eskolaz kanpoko jarduera gehienak urrian hasiko badira ere, batzuk dagoeneko hasiak dira. Kenpo kai ikasi nahi dutenendako, irailaren 26an ate irekien eguna egingen dute frontoian, 18:00etan.

Kontxako Bandera lortu du Iker Mariezkurrenak

Iker Mariezkurrena Imaz herritarrek ez du aise atzenduko irailaren 9a, egun horretan bere lehendabiziko Kontxako Bandera lortu baitzuen. Segundo eskas batengatik bertzerik izan ez bazen ere, Donostiako estropada txapelketa ezaguna irabazi zuen Hondarribia Arraun Taldeak eta sunbildarra arraunen aritu zen banderaren zati bat herrira ekarriz. Zorionak taldeari eta bereziki Ikerri!



Ulibeltzak elkartearen besta larunbat honetan ospatuko dute

M. PETRIRENA

Larunbat honetan, irailak 22, Ulibeltzak elkartearen besta ospatuko dute. 10:00etan jotatuko den mus txapelketa-ekin hasiko dira ospakizunak. Parte hartzeko nahitaezkoa izanen da bikote bakoitzeko bat behintzat elkarteko baz-

kidea izatea. Mus txapelketa-ren ondotik, 14:00etan, aitzinetik izena emana duten bazkideak eta horien bikote-kideak mahaiaren bueltan bilduko dira bazkaltzeko eta ondotik, Mikel Salaberri akordeolariarekin musika izanen dute.



IKER URROZ, JOSETXO APEZTEGIA ETA MAIDER PETRIRENA

Giro polita mendi bizikleta ibilaldian

Arrakasta haundia izan zuen irailaren 9ko mendi bizikleta ibilaldiak, 125 txirrindularik parte hartu baitzuten. Horien artean, aipatzekoa da 20 bat gaztetxo atera zirela eta gazteenak zazpi urte zituela. Zozketak ere egin zituzten eta tartean, bizikleta bat. Hori Jabier Iriarteri tokatu zitzaion.



Lizun
GAZTANDEGIA

Sunbilla · Tel: 948 450 862



IDIAZABAL

Alberto RETEGI

abokatua

abokatua

948 630 763 · Alzate, 17 · BERA



2019/2020 URTEETAN EZKONTZEKO ASMOA DUZU?

ZURE EZKONTZARAKO
BEHAR DUZUN GUZTIA
HEMEN AURKI DEZAKEZU.
III. EZKONTZA AZOKA

URRIAK 13 ETA 14

FICOBAN



IRUN

www.losmunecosdelatarta.com

losmunecosdelatartairun@gmail.com

Besta ttikiak asteburu honetan ospatuko dituzte

Ortzirale arratsaldean Adano elkartearen aldeko erremonte partidak antolatu dituzte

MARGA ERDOZAIN

Iraileko hitzordu haundiari hutsik egin gabe, Burrunba gazteen taldeak besta ttikiak prestatu ditu asteburu honetarako, irailak 21 eta 22.

Ospakizunak ortziralean hasiko dira. 18:00etan erremonte partidak jokatuko dituzte Ezkurra pilotalekuan. Sarrerak bortz eurotan paratuko dituzte salgai eta lortutako dirua Adano minbizia duten haurren aldeko Nafarroako elkartearendako izanen da. 20:00etan, Santa Luzia plazan, bestei hasiera ofiziala

emanen dien suziria botako dute. 21:30ean zopak izanen dira eta 00:00etatik 04:00etara Gabenara taldearen eskutik dantzaldia izanen da.

Larunbatean, 11:00etan, Santa Luzia plazan, haur dantzariak euren saioa eskainiko dute. 14:00etan bazkaria egingen da eta 15:00etatik 19:00etara 4x4 erakustaldia izanen da Aparan industrialdean. Arratsaldean musika emanaldi bat izanen da eta eguna borobiltzeko, Oharkabe taldearekin dantzaldia antolatu dute gazteek.



Errekako dantzariak Zugarramurdiko lezean izanen dira.

Herritarrek Zugarramurdin egingen den 'Hego haizeak, Ipar doinuak' kontzertuan

M. ERDOZAIN

Urriaren 6an, Zugarramurdiko lezeak oholatza ederra bilakatu dira *Hego haizeak, Ipar doinuak* izeneko emanaldi berezia plazaratzeko. Lehenbiziko aldiz, herriko Mendi Abesbatza, Mendi Ttiki eta Erreka Dantza Taldea, Donostiako Txistulari Taldearekin

eta Pauline, Juliette, Jon Itçaina eta Guy Saldubeherekin elkarlanean ariko dira. Beraien ahotsak, musika-tresnak eta dantzak uztartuko dituen emankizuna 20:00etan hasiko da. Sarrerak Titi ostatuan eros daitezke: helduek 15 eurotan eta 6-12 urte bitarteko haurrek 10 eurotan.

Euskara ikastea debalde aurtengo ikasturtean

Malerrekako Mankomunitateak aurkeztutako kanpainaren barrenean, herriko IKA euskaltegiak zabalik du izena emateko epea. Interesatuak irailaren 28ra arte izanen dute apuntatzeko aukera. Aipatzekoa da, aurtun lehendabiziko aldiz, Malerrekako herritarrek euskara musu-truk ikasten ahal izanen dutela. Horren inguruko informazio gehiago nahi duenak euskaltegian aurkituko du, 948 451555 telefonora deituz edo malerreka@ikaeuskaltegiak.eus helbidera idatziz.

N-121 errepidearen etorkizunaz batzar irekia astelehenean

Irailaren 24an, astelehena, 20:00etan, N-121 errepideari buruzko solasaldia egingen da Herrigunean. Bertzeak bertze, Belateko eta Almandozko tunelen itxieraren ondorioz izan diren trafikoko murrizketen eragina aztertuko da eta etorkizunari begira, zer nolako neurriak hartu behar diren. Udalak herritarren eta profesionalen iritzia bildu nahi ditu. Ariketa hau eskualdeko herri guztietan egingen da. Ondotik, udaletxe guztiak Nafarroako Gobernuari dagokion eskakizuna adosten saiatuko dira.

Koteto Ezkurraren agurreko afaria urriaren 6an egingen dute

M. ERDOZAIN

Erremontea utziko zuela iragarri zuenetik, hainbat agur egin dizkiote Koteto Ezkurari. Eta horiei hainbat herritarrek antolatutako afaria gehitu behar zaie, urriaren 6an, larunbata, egingen dutena. Egun horretan Kotetok partida berezia jokatu du eta lagun arteko hitzordu hori emozioz eta sorpresaz beterik izatea nahi dute.

Lerro hauen bidez, doneztebar guztien izenean, eskerrak eman nahi dizkiogu Kotetori, bere ibilbide emankorragatik



Koteto uztailako omenaldian. M. ANDRES

eta bai kantxan eta bai kanpoan egindakoagatik ere. Josi zure txapel guztiak eta egin ezazu alfonbra hegalar bat gelditzen zaizkizun ametsak eta partidak lortzeko!

Euskaraldia aurkezteko hitzorduak antolatu dituzte Malerrekan

M. ERDOZAIN

Irailaren 20an Euskaraldia ekimenean parte hartzeko izena emateko epea irekiko dela eta, bertako talde eragileak hainbat aurkezpen aurreikusi ditu. Urriaren 3an, Mankomunitatean, eskualdeko elkarte eta taldeei aurkeztuko diete

ekimena. Urriaren 12an Zubietan aurkeztuko dute eta Donezteben eta Iturenen urriaren 19an. Eratsunen buzoneoa egingen dute eta 20an eskaerak hartuko dituzte. Gainerako herrietako udalei urriaren 3ko bilerara joateko proposamena egingen diete.



Euskararen Egunaren harira, herriko haur eta gaztetxoendako mikro-ipu eta ilustrazio lehiaketa antolatu dute. I. ZUBIALDE

Mikro-ipu eta ilustrazio lehiaketa antolatu dute

Parte-hartzaile bakoitzak lan bakarra aurkez dezake eta lanak udaletxean bilduko dira urriaren 5a arte

FERMIN ETXEKOLONEA

«Euskararen Egunaren harira, literaturari eta sormenari bere tartetxo emateko» helburuz, herriko gaztetxoentzat mikro-ipu eta ilustrazio lehiaketa antolatu dute. Ilustrazio lehiaketan bederatzi urtetik beheitikoei har dezakete parte eta Izaskun Zubialdek idatzitako

Aker mikro-ipu argitaragabea ilustratu beharko dute, A4 formatuko orrian, nahi diren margoak eta teknikak erabiliz. Mikro-ipu lehiaketa, berriz, hamar urtetik goitikoei bideratua bada ere, tikiagoek ere parte har dezakete. Kasu horretan, gaia 'Euskararen Eguna Zubietan' izanen da. Ipu-

nak gehienez ere 100 hitzekoa (eskuz edo ordenagailuz idatzita), originala, argitaratu gabeko lehiaketetan erabili gabeko izan behar du. Ipu lehiaketara aurkeztutako lanak, adinaren arabera, hiru kategoriatan banatu dituzte.

Lanak udaletxean aurkeztu beharko dira, urriaren 5a baino lehen eta datu pertsonalik gabeko (goitzen batekin). Aurkezteko bi gutun-azal beharko dira: handia eta txikia. Txikian, kanpoko aldean, goitizena idatziko da, eta barruan egilearen datuak (izen-abizenak eta adina); handian, berriz, idazlana eta gutun-azal txikia. Parte-hartzaile bakoitzak lan bakarra aurkez dezake.

Errotako gastuak finantzatzeko 22.081,83 euro

Gobernuko Kultura, Kirol eta Gazteria sailak museo eta bilduma museografikoentzako laguntzak ebatzi ditu. 1.131.000 euro banatuko dizkie lau udal eta zazpi erakunde pribatari. Onuradunen artean da Zubietako Errota. 22.081,83 euro jasoko ditu: funtzionamendu eta mantentze-lanetarako 10.855,83 euro; desgaitasuna duten bisitarien irisgarritasuna bermatzeko ekintzetarako (bideak, panelak eta liburuxkak egokitzeko) 1.806,00 euro; eta teilatua moldatzeko 9.420,00 euro.

Herriko lau haur hiru urteko gelan hasi dira

Oporraldiaren ondotik egunerokora bueltatzeko tenorea ailegatu da. Batzuentzat ohikoa da eskolako egunerokoa, beste batzuek, berriki eman dute pausoa. Naroa eta Maddi Elizalde, Enea Hualde eta Inma Castrorentzat lehendabiziko ikasturtea izanen da.

Osatz
Psikologia- Psikoterapia Haurrak-helduak
Garbiñe Goia Irazoki
GESTALT PSIKOTERAPEUTA ETA BIKOTE ETA FAMILIA PSIKOTERAPEUTA
BAKARKAKO TERAPIAK: haurrak, nerabeak, helduak
619 343 755 Altzate 1 BERA

"TELLETXEA"
Lorazaintza

Kimaketak | Mantentze-lanak
Lorategiak Diseinatzea eta Sortzea
Ureztatze Sistema Automatikoak
Paisajismoa

T. 619 418 683 | LESAKA | johntelletxea@hotmail.com
www.telletxealorazaintza.com

Zure haurtxoaz arduratzen gara

josta mendi
Txikiak

Gipuzkoako eraskusketarik zabalena:
sehaskak, konbertibleak, kotxeak, sillitak...
Autoetarako aulkietan adituak
(probatu eta instalatzen ditugu)

Letxunborro hirib. ,86 IRUN
(bezeroentzako parking estalia)
www.jostamendittikiak.com

69 ikaslek hasi dute ikasturtea Pulunpa eskolan

Joan den urtean baino hiru ikasle guttiago daude aurten eta sei dira eskolarako urratsa eman dutenak

ARKAITZ MINDEGIA

Irailarekin batera ikasgeletara itzuli dira irakasle eta ikasleak. Guztira 69 ikaslek hasi dute ikasturtea, joan den urtean baino hiru guttiagok: Haur Hezkuntzan 20k (2017/2018an 24k) eta Lehen Hezkuntzan 49k (2017/2018an 48k).

Aurten eskolarako urratsa eman duten sei neska-mutilek, Iraia, Ruben, Irati, Oier, Nai-kari eta Aishak, egokitzen fasea bukatu dute eta ohiko ordutegian dabilta. Gainera-koak bezala, urrian goiz eta arratsaldez hasiko dira.

Irakasleetan aldaketak izan dira. Bertzeak bertze, joan den urtean Dallasen izan zen Mixel Gereka irakaslea itzuli da; Ane Santamariarekin batera, ingelesa irakasteko. Gorputz Heziketan ere badira aldaketak. Aurten Aritz Arriola izanen da irakasle.

Orain artean ez bezala, Ixaka Cruz eta Iraitx Otxandorena tutore izanen dira aurten eta orientatzaile postuaren ardura Ana Artolak izanen ditu. Oraindik martxa hartzen ari dira baina lan ederrak egiteko gogotsu daude guztiak.

Aurtiztarrek sanmartinei begira hasiak dira

Udako bestak akitzen ari dira inguruan, baina bukaera ederra emateko, azaroko bigarren asteburuan, azaroaren 8tik 11ra bitarte, Aurtizen sanmartinak izanen dituzte. Herriarrak dagoeneko egitaraua osatzeko bileraz bilerak dabilta.

Zumba, Kenpo kai eta musika ikastaroak hastear

Ikasturtearekin batera, eskolaz kanpoko jarduerak hastear dira herrian. Aurten ere, trikitixa eta pandereta ikasteko aukera izanen da. Kenpo kai eta zumbak ere ez dute hutsik egingen. Zumba, erraterako, astearte eta ostegunetan izanen da, 20:30etik 21:30era.

Joaldunen hitzordua hilaren 22an izanen da herrian

Joaldunek Zarautzen, Euskal Jaiak girotzeko; Aurtizko Ostatua kudeatu duen Josu Esnal agurtzeko; Donostiako kaleak mugiarazteko... hitzorduak izan dituzte. Besta handia, ordea, ailegatzear da. Irailaren 22an herrian elkartuko dira, Joaldunen Egunean.

Bi herritarrek Sunbillako BTTn parte hartu dute

Herriko Josu Altzuri eta Mikel Altzuri lehengusuek joan den irailaren 9an Sunbillan izan zen BTT ibilaldian parte hartu zuten. Parte hartu zuten 125 lagunek, giro ederra lagun, kirola egiteko eta inguruko paraje ederrez gozatzeko aukera izan zuten.



MATTIN LARRALDE

Herriarrak auzolanean

Errotako kanaleko paretak zaharberitzen, Ameztiko pista garbitzen, hilerria txukuntzen... aritu dira herriarrak. Zuhaitzen kimatzeari buruzko hiru formazio ere egin dituzte. Lerro hauen bidez herritarren lana eskertu nahi izan dute: «herri ttikietan lan handia egiten da auzolanean».



MATTIN LARRALDE

Juan Mariezkurrena herritarra hil da

Bai herrian, baita herritik kanpo ere ezaguna izan den Juan Mariezkurrena abuztuaren 31n hil zen. Bestetako suzuria bota zuen eta zikiri egunean, emazteak Xalbadorren heriotzean kanta kantatu zion. Gaur, huts handia dute, karrika eta ostatuan haren solasa falta da: «ohorea izan da zu ezagutzea!».



Zalain Auzoa BERA t. 948 631 106 w. www.zalain.info

Irailaren 27tik urriaren 1era bestak ospatuko dituzte

Larunbatean herri-bazkaria egingen dute bertsolariekin eta igandean aizkora apustua izanen da

TTIPI-TTAPA

Irailaren 27ko arratsaldean hasiko dira aurtengo Urrozko bestak eta, horren ondotik, ekitaldiz ongi hornitutako asteburua prestatu dute. Musika, dantza, kirola, otorduak... uztartuko dituzte irailaren 30era arte eta, biharamunean, urriko lehenbiziko egunean, herria garbitzeko deialdia egin dute.

IRAILAK 27, ORTZEGUNA

18:00etan puzgarriak izanen dira. 20:00etan botako duten altxaferoarekin hasiko dira ofizialki bestak. Ondotik ezkil-jotzea egingen dute. 21:00etan Zopak dastatzeko aukera izanen da Herriko Ostatuan. 00:00etatik 05:00etara Modesto akordeoilariak dantzaldia eskainiko du.

IRAILAK 28, ORTZIRALEA

10:30ean haurrendako jokoak izanen dira. 12:00etan herriko dantzariak saioa eskainiko dute. Ondotik luntxa izanen da Herriko Ostatuan. 16:00etan mus txapelketa hasiko da. 21:00etan gazteek afaria egingen

dute. 20:00etatik 22:00etara eta 00:00etatik 03:00etara Frantziskorekin dantzaldia izanen da. Horrez gain, goizez eta arratsaldez puzgarriak izanen dira.

IRAILAK 29, LARUNBATA

10:00etan mus txapelketako finala jokatu da. 11:30ean meza izanen da eta 14:00etan herri-bazkaria Sebastian Lizaso eta Julio Soto bertsolariekin. Arratsaldez Salaberri musikariarekin dantzaldia izanen da. 00:00etatik 05:00etara Gabenara taldea arduratuko da plaza ingurua girotzeaz. Goizez eta arratsaldez puzgarriak izanen dira.

IRAILAK 30, IGANDEA

12:30ean aizkora apustua izanen da: Eneko Saralegi (Leitza) eta Iker Vicente (Otsagabia) Donato Larretxea (Arantza) eta Joxean Etxeberriaren (Ziga) kontra ariko dira. 17:00etan Doneztebeko dantza taldeak bere saioa eskainiko du. 18:00etan bizikletarekin ekitaldia egingen dute. 19:00etatik 21:00etara dantzaldia egingen



Dantzariak, haurrak jokoetan eta apar besta, iazko bestetan. ARTXIBOKO ARGAZKIAK

dute Joxe Angel akordeoilariarekin. 21:00etan tortilla eta postre lehiaketak egingen dituzte, baita bingo jokoa ere. Goizez eta arratsaldez puzgarriak izanen dira.

URRIAK 1, ASTELEHENA

Bestetako hondarreko egunean, denen artean herria garbitzeko deialdia egin dute. Garbiketaren ondotik gosaria izanen da.

Urrozko Udalak



besta zoriontsuak
opa dizkizue
urroztar eta bisitari
guztiei

Zurgin lanak
ingurulan

Etxeko
edozein
konponketa

616295420
Urrotz

joseba@ingurulan.com
www.ingurulan.com



Carnes Sein Haragiak, S.L.

Industrialdea, 27 • MAFRIDO ERAIKINA • DONOSTIA
T. 943 467 244 | 943 467 444 • carnessein@bordako.com



Ameli ipuin-kontalaria Beintza-Labaienen ariko da. IÑAKI ATXA

Malerrekako Kultur Bira urriaren 6an abiatuko da

Sunbillan, Zubietan, Urrozen eta Beintza-Labaienen egingen dira aurtengo kultur hitzorduak

TTIPI-TTAPA

Bertsoak, bakarriketak, ipuin-kontaktak... Euskara eta kultura uztartuz aurren ere egitarau erakargarria prestatu du Malerrekako Euskara Zerbitzuak urrirako. Kultur Biraren seigarren edizioa izanen da eta lau herri hauetan egingen du geldialdia: Sunbillan, Zubietan, Urrozen eta Beintza-Labaienen.

Bertso-afari musikatua

Urriaren 6an, larunbata, Sunbillan egingen da kultur hitzorduetan lehenbizikoa. Ulibeltzak elkartean bertso-afari musikatua antolatu dute. Bertsoetan Andoni Egaña, Alaia Martin eta Jon Martin ariko dira eta musikaz Ixak Arruti eta Gari Otamendi arduratuko dira.

Afaria 21:00etan hasiko da eta txartelak udaletxean eta Fonda ostatuan eros daitezke, 35 eurotan.

Bakarriketa saioa

Euskararen Eguneko ospakizunen barne, Jon Martinezen eskutik umorezko bakarriketari tokia egingen diote Zubie-

tan. *Barrez bai* emanaldia eskainiko da 20:30ean estalpean. Sarrera dohainik izanen da.

Saio honetan euskaldunen egunerokoan hurbilekoak diren gaiak ukituko ditu Martinezek, eta maitasunezko euskal abestien errepaso tiki bat ere egingen du. Inprobisaziorako tarte ere izanen du bere saioak, eta ikusleen parte-hartzea ere sustatuko du.

Ipuin-kontalaria

Kultur Biraren hondarreko bi hitzorduak Urrozen eta Beintza-Labaienen egingen dituzte, urriaren 20an eta 27an, hurrenez hurren. Lerro hauek idazterakoan Urrozko ekitaldia zehaztu gabea zen, baina Beintza-Labaiengoa itxia zen. Hala, urriaren 27an, Ameli ipuin-kontalaria Herriko Etxean ariko da, 17:00etan.

Euskara-irakasleen lan-poltsa osatzeko deialdia

Bortzirietako eta Malerrekako IKA euskaltegiek euskara-irakasleen lan-poltsa osatzeko deialdia egin dute, sortzen ahal diren beharrei erantzuteko. Curriculum urriaren 7a baino lehenagotik bidali behar da bortziriak@ikaeuskaltegiak.eus edo malerreka@ikaeuskaltegiak.eus helbidetara. Hona-ko hau eskatzen dute: EGA titulua (edo baliokidea), lizentziatura, komunikatzeko eta taldeak dinamizatzeko gaitasuna, B1 gidabaimena eta autoa. Glotodidaktika ezagutzak ere baloratuko dituzte.

Hizkuntza mentoretza proiektua Bortzirietan

Euskara maila hobetzeko beharra duten hurrei laguntzeko gazte boluntarioen bila dabil Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, hizkuntza mentoretza proiektu bat landu nahi baitu. Mentoretza haur eta gaztetxoei euren gaitasunak garatzen laguntzeko estrategia bat da, eta Bortzirietan errefortzua behar duten haurren euskararen erabilera sustatzea eta euskararekiko motibazioan eragitea du helburu. Parte hartzeko 948 634125era deitu edo euskara@bortziriak.eus helbidera idatz daiteke.



Lau film labur horiek ikusgai izanen dira Beran.

Euskarazko film laburren emanaldia eskainiko dute ortziralean Beran

TTIPI-TTAPA BERA

Bortzirietako eta Malerrekako euskaltegietan euskara doan ikasten ahal dela oroitaraztearekin batera, Bortzirietarako Euskara Mankomunitateak eta euskaltegiak film laburren emanaldia antolatu dute Beran. Ortzirale honetan, hilak 21, izanen da, 19:00etan Beralan-

detan eta lau lan eskainiko dituzte: Joxe Mari Goenagaren *Lagun Mina* (2011), Koldo Almandozen *Ahate pasa* (2009), Asier Altunaren *Zela Trovke* (2013) eta Telmo Esnaen *Amona Putz* (2009). Filmak gaztelaniaz azpigitulatuak izanen dira. Bukatzean, zine-forum gastronomikoa egingen dute.

ANTZUZELAI
S.L.

BERA • T. 948 63 13 17
info@antzuzelai.com
www.antzuzelai.com

HARGINTZA
FATXADAK
TXIMINIAK
ZOLAK
TAILLA ARTISTIKOAK
OBRAK



Udalak 8.700 euro bildu ditu ehiza postuen enkantean

Golbai alderdiko postuak 7.000 eurotan esleitu dituzte eta Txarutakoak 1.700 eurotan

TTIPI-TTAPA

Udalak enkantera ateratako ehiza postu guztiak esleitu ditu. Ehiztariak Golbai aldeko ha maika postuak 7.000 eurotan hartu dituzte eta Txarutako zazpi postuak, berriz, 1.700 eurotan, bi kasuetan BEZ kontuan hartu gabe.

Udalak enkantearen lehen-biziko deialdia egin zuenean, Golbaiko postuen hasierako prezioa 9.000 eurotan finkatu zuen eta Txarutakoena 2.300 eurotan. Abuztuaren 17an akitu zen deialdi horretara proposamak aurkezteko epea

eta eskaintza bakarra aurkeztu zuten, Golbaiko postuak hartzeko, hain zuzen. Eskainitakoa ezarritako prezioaren azpitik zegoenez, Udalak ez zuen ontzat hartu. Txarutako postuak, berriz, hutsik gelditu ziren. Horren ondotik, irailaren 3an eskaintza libreak aurkezteko deialdia egin zuen Udalak eta aldi horretan, bai Golbaiko postuak eta bai Txarutakoak ere esleituak gelditu ziren, 7.000 eta 1.700 eurotan, hurrenez hurren.

Usategien aprobetxamendua bi urterako izanen da.



Piboteak ibilgailuei plazarako sarbidea itxiz. JAIONE ARIZTEGI

Ibilgailuei sarbidea itxiz piboteak paratu dituzte berriz plazan

JAIONE ARIZTEGI

Kontua ez da oraingoa, lehenagotik ere jarri izan baitituzte piboteak herriko plazara autorik sartu ez zedin. Baina aspaldian, hautsiak izan zirelako edo bertze arrazoiren batengatik kendu egin zituzten, eta berriki arte plazarako sarrera libre egon da autoenda-

ko. Hori horrela, aunitzetan egoten ziren autoak plazan, bertan jostetan ari edo egon nahi zutenei eragozpenak sortuz.

Irailaren 1ean, berriz ere, sarbidea itxi zuten, piboteak jarriaz. Beraz, plazan egon nahi duen edozeinendako nahiko leku izanen da.

DONEZTEBEN neurrira egindako etxebizitzak



PROMOCIONES

MALERREKA

T. 629 951 170 (Aitziber)
650 328 879 (Sergio)

*Etorri
eta erakutsiko dizuegu!*



135.000€tik aurrera

Garaje marra + trastelekua prezioaren barruan

✓ Zure beharren arabera finantziatzea,
Rural Kutxaren babes eta abalarekin



**2. faseko
AZKEN PISUAK
eta LOKALAK salgai**



eraikiak





Plazan hasi eta bukatuko dute ibilbidea. ARTXIBOKO ARGAZKIA

Irailaren 29ko III. Leitzulirako prest daude kirolariak

Izen-ematea zabalik da irailaren 23a arte
www.kirolprobak.com orrialdean

TTPI-TTAPA

Irailaren 29an, larunbatean, izanen da Leitzuliaren III. edizioa. 09:00etan abiatuko dira kirolariak, 42 kilometro eta 1.400 metroko desnibel positiboa duen ibilbidea egiteko. Plazan hasiko dute ibilbidea eta Leitza inguratzen duten mendi guztietan barrena ibi-

liko dira txirrindulariak: Frankiko zubitik Lapurren galtzadaren barrena, Aizan eta Petriketa gainetatik pasata Uztarlekura jaitsi, Idiazabalerantz igo, Ihontza eta Uitziko gainetik Guratzera goititu eta Leitzako plazan bukatuko dute ibilbidea. Guztia prest dute dagoeneko.

Ibilbidean ez da ez jatekorik ezta edatekorik ere faltako, bi anoa gune jarriko baitituzte; eta helmugaratzean ere izanen da zer dastatua. Antolatzaileek adierazi dutenez, «beste urte batez 300 txirrindulari inguru bilduko dira Mendibil BTT taldeak ospatuko duen proban».

Izen-ematea

Orain arte izena eman ez dutenek badute aukera, www.kirolprobak.com webgunearen bidez. Parte-hartzaileek poltsa bat jasoko dute eta dutxatzeko, bizikleta garbitzeko eta zozketetan parte hartzeko aukera ere izanen dute. Federatuek 15 euro ordaindu behar dituzte; ez federatuek, aldiz, 18. Igandea, hilaren 23a izanen da azken eguna.

Txirrindulariak ibilbidean dabiltzan bitartean, eguraldi ona bada behintzat, plazan trialsin erakusketa izanen da ikusgai.

Antolatzaileek larunbat ederra pasa nahi dutenei proba ez lehiakor honetan parte hartzeko deia egin diete. Era berean, ingurunea zaintzea eskatu dute: «sortutako zarrak ontzietan botatzea eskertuko genuke».

Zine inguruko kaleak itxita Herri Aretoa berritzeko

Hilaren 5ean Udalak bando bidez jakinarazi zuen bezala, Herri Aretoko zaharberritze-lanak egin ahal izateko zine inguruko kaleak itxi zituzten. Hilabete batzuz itxita egongo denez, autobus geltokia Lopeneko biribilgunera lekualdatu dute.

Martikoneko tunela moldatu eta ireki dute

Abuztuaren 28tik irailaren 10a bitarte, ia bi astez, Natur Bidean dagoen Martikoneko tunela itxita egon da, moldaketa lanetan aritu direlako. Zehazki, tuneleko paretan eta sabaian hormigoia bota behar izan dute. Aurrerago, berriz, argiteria berrezartzeko asmoa du Udalak. Lanek guztira 39.878,20 euroko (BEZik gabe) aurrekontua dute eta Nafarroako Gobernuak turismo zuzendaritzak bere gain hartu du bai esleipen prozesua baita ordainketa ere. Tesina enpresari eman diote ardura.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Stock azoka egin dute irail hasieran

Irailaren 8 eta 9ko asteburuan herriko sei komertzio beraien salgaiak kaleratu zituzten. Eguraldi ederra lagun, herritar eta ingurukoek ez zuten aukera pasatzen utzi nahi izan. Antolatzaileen arabera, jendearen harrera «ikaragarria» izan zen.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Kepa Junkera eta sorginen erritmora

Jendetza bildu zen plazan irailaren 7an Kepa Junkera eta sorginen emanaldia ikusteko. *Maletak* hustu zituzten, bidaietako esperientziak bilduz osatutako lana plazaratu zuten. Junkerak Perurenari eskaini zion kontzertua, azken aldian izan duten hartu-emanagatik.



Joan den urteko auzolanean talde ederra bildu zen. ARTXIBOKO ARGAZKIAO

Leitzaran ibaia garbitzeko auzolana urriaren 12an

Auzolana egiten duten boluntarioei, bukatutakoan, 14:00 aldera, jatekoa eskainiko zaie

TTIPI-TTAPA

Udalak, Life Irekibai proiektuaren laguntza eta finantza-ketari esker, Leitzaran ibaia garbitzeko auzolana antolatu du. Besteak beste, hondakinak eta plastikoak bildu eta garbi utzi nahi dute. Urriaren 12an, ostiralean, dute hitzordua, 09:00etan herriko plazan eta goiz osoz ariko dira lanean, 14:00 arte.

Parte hartzeko deia

Antolatzaileek parte hartzeko deia egin dute. Besteak beste, izena ematen duten boluntario guztiak aseguruak egonen

direla eta bukatzean hamai-ketakoa eskainiko dutela jakinarazi dute.

Era berean, eskularruak, poltsak eta matxardak antolatzaileek jarriko dituzte. Hala, parte hartu nahi duten boluntarioek arropa egokia, botak eta euritako zira (badaezpada ere) baino ez dituzte beharko.

Informazio gehiago lortzeko eta izena emateko Udalera edo GAN_NIKera, 948 510009 edo 848 420737 telefonora, deituz edo leitza@leitza.eus edo avarelaa@gan-nik.es helbidera idatziz eskuratu ahal izanen dute.

Kiroldegiko bazkide egiteko aukera doan irailean

JM BARRIOLA

Abuztuan pilotalekuan mol-daketa-lanetan aritu dira: margotzen, ezinduendako sarbidea egokitzen, teilatuko itoginak konpontzen, argiteria berritzen... Igerileku denboraldiari, berriz, irailaren 9an eman zieten bukaera. Aurten 587 bazkide izan dituzte eta kudeatzaileak denboraldia «oso ongi» baloratu du. Orain kiroldegiko bazkide egiteko kanpaina abiatu dute. Irailean izena ematen dutenek ez dute sarrerarik ordaindu beharko (urte bateko iraunkortasunarekin). Bazkideek ikastaroetan izena emateko lehentasuna eta prezioak merkeagoak izanen dira bazkide direnentzat. Hainbat aukera eskainiko dituzte: zumba, pilates, karate, yoga, tonifikazioa, multikirola, zirkuitu gidatuak... Goizez eta arratsalde, ordutegi anitz antolatu dute



Kiroldegian lanean aritu dira.

Emakumeen parte hartzea aztertzeko beka deialdia

Leitzaldeko Berdintasun Bartzordeak Goizueta eta Arano-ko emakumeen parte-hartzea aztertzeko beka deialdia egin du. Deialdiaren helburua «Goizueta eta Aranoko emakumezkoek XX.mendearen bigarren erditik gaur egunera bitarte Goizueta eta Aranon izan duten lanaren oroimena berreskuratzeko da, berdintasunaren alde jardundakoei dagokien aitortza eginez». Eskerak eta gainerako agiriak irailaren 25era arte aurkez daitezke, Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko bulegoan (Elbarren 1, Leitza).

Bekaren ezaugarriak

Bekak, esleitzen den egunetik hasita, bost hilabeteko balioa izanen du. Bi hilabete luzatzeko aukera egonen da. Kasu horretan, luzapen-eskakizuna epea bukatu baino hilabete bat lehenago aurkeztu beharko da. Onuradunak 4.200 euro jasoko ditu ikerketa lana egiteko. Lan hori originala eta argitarabea izanen da.

Eskatzaileentzako baldintzak

Eskatzaileek adinez nagusiak izan behar dute eta euskara titulua (C1) beharko dute. Gehienez ere hiru pertsonen osatutako taldeak onartuko dira. Informazio gehiago: www.goizueta.eus edo idezakaria@mendialdea.eus.

Anikote

Amazabal Kalea, 39 LEITZA • T. 948 510 719

Zatoz guregana eta bizitza aktiboarekin hasi! EGIN ZAITEZ BAZKIDE

IRAILEAN AUKERA EZIN HOBEA:

- Irailean bazkide egiteko sarrera DOHAINIK (urte bateko iraunkortasunarekin)
- Bazkideak ikastaroetan ABANTAILAK izanen dituzue



Gai honen inguruko informazioa eman zuen udalak irailaren 7an egindako batzarrean. UTZITAKO ARGAZKIA

Elkartasuna elkartea desegiteko lehen urratsa eman dute

Estatutuak aldatzeko bilera egin dute larunbat honetan eta disoluzioa proposatuko duen batzarra irailaren 28an (18:00)

TTIPI-TTAPA

Elkartasuna elkartearen ondasunak eskumen osoz kudeatzera pasatzeko arrazoiak eman zituen Goizuetako Udalak irailaren 7an egindako batzarrean. 30 lagun elkartu ziren bilkuran. Besteak beste, Elkartasuna elkartearena da Iriartenea eraikina, garai batean Tifanitxo eta gaztetxea hartu zuen eraikina. Urteotan hainbat lan egin dira etxe honetan, baina ezin du Udalak diru-laguntza ofizialik lortu.

Jendeak ulertu ditu Udalaren arrazoiak Elkartasuna elkartea desegitea bultzatzeko. Baina bada bertzeko arazo bat: 18 urtetik gorako goizuetar guztiak dira berez Elkartasuna elkar-teko bazkide, baita zergaren bat herrian ordaintzen duten kanpotarrak ere. Estatutuen arabera, horien %80ak onartu beharko luke elkartea disol-

bitzea. Hori, praktikan ezin gauzatu ikusten du Udalak eta estatutuak aldatu nahi ditu.

Hori egiteko, pasa den larunbatean beste batzar bat deitua zuen Udalak eta uste-gaberikez bada, honen ondotik, disoluzioa proposatuko duen bilera irailaren 28an, ostiralean, 18:00etan egingen dute eskolan.

Historia

1901.ean Elkartasuna sozietatea sortu zen Azkote mendia-aren ustiapena egiteko, gaur egun Elkartasuna mendi be-zala ezaguna ere badena. El-

AZKOTE MENDIA USTIATZEKO SORTU ZEN ELKARTEA 1901. URTEAN

kartasuna, mendi aprobetxa-menduarekin lotutako zergak Udalak ez ordaintzeko tresna bat izan zen.

Elkartea herriko zein kanpoko zergadunek osatzen zuten hasieran. Gerora, herri-tar guztiak elkar-teko bazkide izateko aukera zabaldu zen. Zuzendaritza, bestalde, udal korporazioak, herriko hamar zergadunek, kanpoko bi zergadunek eta *veintena*-kosatzen zuten.

Gizartea asko aldatu da El-kartasuna sortu zenetik, *veintena*-ren figura erabat desagertu da (legez kontrakoa ere bada demokrazian), Udala da gaur egun Elkartasunaren ondarea kudeatzenduena, inbertsioak egiten dituen, esplo-tatzeaz arduratzen dena... Elkartasuna herriak herria-rentzat sortutako tresna izan zen, baina gaur egun inongo erabilerarik gabe dagoena da.

Udalak egoki eta beharrezko ikusten du Elkartasuna sozietatearen disoluzioa egitea, bere ondasunak Udalaren izenean jarritz, hau baita, gaur gaurkoz, herritar guztien organo eta hori baita Udalak ondasun hauetan egin nahi dituen inbertsioak gauzatzeko diru-laguntzak jasotzeko jarraitu beharreko bidea.



UTZITAKO ARGAZKIA

Antton Apezetxea txapeldun suertatu da Amezketan

Joxean Tolosa Txapelketan Umore Onako Antton Apezetxea txapeldun suertatu da buruz buru, gazte mailan. Irailaren 9an Amezketan jokaturako finalean, goizuetarrak 18 eta 7 irabazi zion Jon Alberdi zizurkildarrari. 3-7 aurretik izan zen gipuzkoarra, baina Apezetxeak buelta eman zion markagailuari.

Iskibi kanpinak azken denboraldia du aurten

Iskibi kanpinean azken bestak ospatzen ari dira. Irailaren 8an Garagardo Festa ospatu zuten eta hilaren 16an, berriz, 11. Euskal Jaia ospatzeko zuten, herri-kirolak, talo jatea, toka txapelketarekin...

Irailaren 22rako, larunbat honetarako, berriz, itxiera izanen da, kanpinaren azken denboraldia izanen baita aur-tengoa. Oiartzungo Nungua-yaz taldeak giro-tuko du agurra, eta nahi duenak, Djaren mu-sika lagun, parranda luzatze-ko aukera ere izanen du.



Herriko gaztetxoak Maisuenean. OHIANA CALPARSORO

Ikasturteko egitaraua lotzeko bilkura irail bukaeran egingen dute

Maisuenean herriko haur, gazte eta helduendako aukerak eskaini nahi dituzte

OHIANA CALPARSORO

Iraileko bigarren hamabostaldian Jubiloteke zerbitzua has-teko nahia eta asmoa izan baziren herrian, baina lerro hauekidazterako orduan hainbat kontu lotzeke zituzten.

Halere, adinekoek ez ezik, haur eta gazteek ere gozatu ahal izateko ekitaldi gehiago antolatzeko asmotan zebiltzan zenbait herritar. Hori horrela, iraileko azken asterako bilera deia egina zuten Jalki kultur elkarteko kideek. Bilkura horretan azken kontuak lotu nahi zituzten. Ideien artean zera-biltzaten ikastaroetako kontuak zehaztea eta urrian hastekoak diren ikastaroetako azken kontutxoak lotzea.

Haurren elkargune

Besteak beste, urritik aurrera, Maisuenean haurrentzako zerbitzua eskaintzeko asmoa dute. Herriko txikiek elkargune bat izateko, astelehenero, arratsaldetan, 17:00etatik 19:30era bitarte, irekiko dituzte ateak. Herritarren artean txandak egingen dituzte, gaztetxoek arduradun bat izan dezaten. Maisuenearen ire-

kierarekin ongi pasatuz ikasi eta jolasteko aukera izanen dute herriko gaztetxoek.

Yoga ikastaroa

Joan den urteko arrakasta ikusirik, aurten ere yoga saioak izanen dituzte herrian. Iñaki Roteta izanen da gidari. Asteazken ilunabarretan, 19:30ean zehazki, biltzen hastekoak ziren. Ez dira horiek eskaini nahi dituzten zerbitzu bakarrak, musikari ere tartetxo bat egin nahi izan diete.

Gitarra ikastaroa

Aurreko ikasturtean bezala, Jon Mari Beasain irakasle dutela, herriko haurrek gitarra ikasteko aukera izanen dute. Lerro hauekidazterako orduan eguna eta ordua zehazteke zituzten.

Izen-ematea

Ikastaroetako buruzko informazioa edota izena eman nahi dutenek irakasleekin harremanetan jarri edo udaletxean galdetuz egin dezakete. Azken zehaztepenak lotu ahala, hurrengo zenbakietan informazio zehatzagoa eskainiko da.



ANE BARAIBAR

400 lagun baino gehiago mendi martxan

Herritar talde batek eta Mendialdeko Kirol Mankomunitateak, elkarlanean, antolatutako Aresoko Mendi Martxaren XI. edizioak jendetza bildu zuen. 420 mendizale inguru bildu ziren eta itzulia egindakoan herritarrek prestatutako paella dastatu ahal izan zuten.

Uso postuen enkantea irailaren 22an eta 29an

Udalak enkantera ateratarako egur loteak Eraman enpresak eskuratu ditu eta hasierako prezioa hobetuta, 34.982 euro ordaindu ditu. Egur enkantea bukatuta ehiza denboraldia prestatzen hasteko, postuen enkanterako deia egin du. Iraileko azken bi larunbatetan izango da Urteagako postuen enkantea. Irailaren 22an egingo dute lehenbiziko enkantea eta 29an bigarrena, tartean ohikoa denez, sesteorako aukera ere izango da. Biegunetan udaletxean dute hitzordua, 19:00etan.

Mankomunitateak bi konposta gune jarriko ditu herrian

Mendialdea Mankomunitateak herrian auzo konposta egiteko bigune gehiago jartzeko asmoa du. Horrela, plaza zaharreko konposta guneaz eta etxez etxekoez gainera, Bi ahizpak inguruan eta Oxene ondoan ere izanen dituzte laster. Gune horiek gainerako edukiontzia dauken tokira hurbilduz, konposta egiteko aukera eskuragarri jarri nahi dute. Konposta egiten hasi nahi duenak Mendialdea Mankomunitatera, 948 510444 telefonora, deituta eskura dezake informazio gehiago.



Joan den urtean Azpilkuetan ospatu zuten besta. ARTXIBOKOA

Eskola Ttikien Besta irailaren 30ean Lekarozen

11:00etan hiru eta zazpi urte bitartekoendako Ilargi arrantza ikuskizuna izanen da; eta atsatsaldean jokoak eta dantzaldia

TTIPI-TTAPA

Urdazubi, Zugarramurdi eta Baztango herrietako eskolen eskutik, irailaren 30ean, igandean, Eskola Ttikien Besta izanen dute. Aurtengoan Lekarozen dute hitzordua eta haur, guraso eta irakasleak bilduko dira egun osoko bes-tan.

Egitaraua

10:00etako harrerarekin hasiko dute eguna. 10:30ean, herriko txokoak ezagutzeko, ibilbideari hasiera emanen diete (bi aukera izanen dira: luzeak bi ordu inguruko irau-

pena izanen du; laburrak, aldiz, ordu erdi inguruko). 11:00etan hiru eta zazpi urte bitartekoendako, Ilargi arrantza ikuskizuna eskainiko du Banakike Txotxongilo Taldeak. Emanaldia herriko aterpetxean izanen da.

Ikuskizuna akituta, 13:00 aldera, frontoian bilduko dira, bazkaltzeko. Bazkaria autogestionatua izanen da. Bazkaldu ondotik, ikasleek saldu-tako txartelen zozketa egingen dute. Eguna borobiltzeko, arratsaldean, haurrentako jokoak eta dantzaldia izanen dituzte.



NEREA MORTALENA

Arraiozko bestak giro ederrean

Otordu ederrez, lehiaketez, tailerrez, jolasez, dantzaldiz eta musikaz... hornitutako lau eguneko bestak izan zituzten Arraiozen, abuztua agurtu eta irailari ongietorria egiteko. Aspertzeko tarterik gabe, haur, gazte eta helduak ekitaldiz ekitaldi ibili dira.

Elizondoko Osasun Etxean zahartzaroa eta osasunari buruzko ikastaroa

TTIPI-TTAPA

Irailaren 19an eta 26an, asteazkenetan, osasuntsu zahartzeko gakoak izanen dira hizpide Elizondoko Osasun Etxeko Erabilera Anitzeko Aretoan. 11:00etatik 13:30era bitarte izanen dira saioak. Izena eman nahi dutenek 948 581833 te-

lefonora deituz edota Osasun Etxeko harreraren galdetuz egin ahal izanen dute. Irailekoa ez da eskainiko den ikastaro bakar-ra. Izan ere, azaroaren 21ean eta 28an, estresa eta antsietateari aitzin egiteko tailerrak egingen dituzte. Azken horiek ere goizetan izanen dira.

NELI YANCI
BIZI eta OSASUN AHOLKULARIA
ASEGURU MOTA GUZTIAK
C007272664074J


GENERALI

Santiago 72B 31700 ELIZONDO
T./F. 948 580 504 • 649 947 182
generalielizondo@hotmail.com

Behiratu aukera gehiago gure web orrian
comeliayanciberrueta.seguros.generali.es

*Utzi zure aseguruak gure esku
eta gutiago ordainduko duzu*

KOTXEA | ETXEA

BIZIA | ISTRIPUAK | OSASUNA

NEGOZIOA | ENPRESA | AUTONOMOAK

Pirinioetako behi-azienda lehiaketa asteburuan

Ortziralean abelburuak Merkatu plazan sartuko dituzte eta asteburuan Piriniotar behi-azienda lehiaketaren XXXI. edizioa izanen dute. Erakus-keta eta lehiaketaren bueltan, eskualdeko ekoizleek beraien salgaiak kaleratuko dituzte. Xehetasunak: 717. zk.

Anizko bestak urriaren 5etik 7rat ospatuko dituzte

Urriaren 4an eta 8an, besta aitzinetik eta ondotik, auzolana izanen dute

TTIPI-TTAPA

Ortziraletik igandera bitarte hainbat ekitaldi izanen dituzte. Bertzeak bertze, larunbatean 19:00etan, Tio Teronen Semeak dantza ikuskizuna izanen da ikusgai. Bezperan Gan-torri autobusa ibiliko da herriz herri.

URRIAK 5, ORTZIRALEA

11:00etako ezkil jotzeak, altxaferoak eta herriko musikarien itzuliak iragarriko dituzte bestak. 11:30ean herri-krosa izanen dute (haurrendako ibilbide bat eta helduendako bertze bat). 12:00etan, aniztarren artean, frontenis txapelketa jokatu dute; finala 16:00etan izanen da. 20:00etan, Mutil dantzak dantzatu dituzte. 21:00etan, ohiturari eutsiz, Baztan zopak afalduko dituzte. 00:00etan dantzaldia izanen dute, Salaberriren eskutik. Goiz aldera, indarrak berrartzeko, xingar jatea izanen dute.

URRIAK 6, LARUNBATA

11:00etan puzgarriak eta tirolinaz gozatzeko aukera izanen

dute. 14:00etan paella eta postre lehiaketa egingen dute. Ondotik, lehiaketan egindako paella eta postreak dastatzeko bazkarian bilduko dira, herriko frontoian. 15:00etan, berriz ere, puzgarriak eta tirolina izanen dira. 16:00etan mus txapelketa jokatu dute. Arratsaldea goxatzeko, 18:00etan txokolate jatea izanen dute. 19:00etan Tio Teronen Semeak dantza ikuskizuna izanen da. Ondotik, dantzaldian bilduko dira, Hauspolariek taldearekin. Akitzeko xingar jatean bilduko dira.

URRIAK 7, IGANDEA

12:00etako mezaren ondotik, bertako produktuekin prestatutako otordua izanen dute. Argazki lehiaketara aurkeztutako argazkien erakusketa ikusgai paratuko dute. 14:00etan zikro-jatean bilduko dira, Beñat akordeoilariak girotua. Xingar-jatea eta suaren inguruko kantaldiak ez dute hutsik egingen aurtengoan. Bestak akitzeko 'gaizoak aniztarrek' eta herriari itzulia emanen diete.



MAITANE MARITORENA

Oharriz Auzoa z/g · LEKAROZ
T. 948 452 143 · 948 452 449
info@harrilan.com www.harrilan.com

HARRI LAN, S.L.
CONSTRUCCIONES

EDOZEIN HARRI MOTAREKIN
LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU

BAITA HORMIGOI INPRIMATUA ERE

EN plus A1
ES 025

BEROPEL
egurrezko pellets
ECHEVESTE HNOS. SL

T. 948 637 232 • 618 264 654
31770 LESAKA (Nafarroa) • Fax 948 637 250
info@echevestehermanos.com
www.echevestehermanos.com



500 lagun inguru bilduko dira Lekarozen. ARTXIBOKOA

Garun Paralisiaren Kongresu Nazionala Lekarozen aurten

Garun paralisia duten pertsonen afektibitate eta sexualitate beharrak izanen dituzte langai

TTIPI-TTAPA

'Ez begiratu bertze aldera' lelopean, urriaren 5ean eta 6an, ortzirale arratsaldean eta larunbatean egun osoz, Aspa-cek kudeatzen duen Lekaroz aterpetxean egingen dute Garun Paralisiaren VIII. Kongresu Nazionala. 500 lagun inguru espero dituzte. Bi egunotan,

hainbat tailer eta hitzaldi izanen dituzte. Horien artean, bertzeak bertze, garun paralisia duten pertsonen afektibitate eta sexualitate beharrak izanen dituzte langai. Era berean landa eremuko arreta eta mugimendu asoziatiboaren nondik norakoei ere helduko diete.



ZALDUA

Artzapezpikuaren bisita Almandozen

Artzapezpikuak Pakita Otxotorena, ortziralean 100 urte beteko dituena, bisitatu zuen. Aimar, Nerea, Miren eta Uxoak sendotza egin zuten eta abesbatzak girotu zuen elizkizuna. Ondorik, denendako luntxa izan zuten. Berroeta eta Anizen irailaren 23an izanen dute hitzordua.



MAITANE MARITORENA

Anizko Mendiarte elkartean auzolanean

Anizko Mendiarte elkartean auzolanean aritu ziren irailaren 1ean: teilatua konpondu, barneko aferak egin eta egurra xehatu zuten. Ondotik bazkaria egin zuten elkartean. Udari akabaila emateko, urtero bezala, xingar jatea ere egin zuten Plaxa-xaharren.

Baztango Udal Ikastaroetarako izen-ematea irekita irailaren 24tik 28ra

TTIPI-TTAPA

Urtero bezala, aurten ere Baztango Udalak hainbat ikastaro antolatu ditu: zura lantzen; xaboiak, txanpuak eta tigrebalsamoa egiten; atabala edota gaita jotzen; mugikorrekina argazki onak ateratzen; ogi ekologikoa egiten; mutildan-

tzak eta erraldoiak dantzatzeko... ikasteko. Ikastaroak urrian hastekoak badira ere, izen-ematea irailaren 24tik 28ra, astelehenetik ortziralerara bitarte egonen da zabalik, 07:30etik 15:00etara, Arizkunenean. Informazio gehiago; kultura@baztan.eus.

Literatura beltza sustatzeko bekaren onuradunak

Hilaren 19an egitekoa zen Balleko Etxean Euskal Herrian literatura beltza sustatzeko (H)ilbeltza bekaren 2018ko onuradunen aurkezpena. Alkatea, iazko sariduna eta Txalapartako ordezkaria izan ziren. Hurrengo alean emanen dugu saridunaren berri.

Auzo herriekin dauden mugak ikuskatu dituzte

Baztanek mugakide dituen Sara, Senpere, Ainhua, Ezpeleta, Itsasu, Bidarra, Baigorri, Banka, Aldude eta Urepeleko udalerriekin dituen mugen urteroko ikuskapena egin dute irailaren 3, 11 eta 13an. Bi aldetako udal ordezkariak ibili dira mugarriz mugarri.

Ttapi Txartela rekin beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...
TTAPI-TTAPA ALDIZKARIA
MUSUTRUK
-%80ko DESGRABAZIOA
ERRENTA AITORPENEAN
Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:
TTAPI-TTAPA
Koskontako bidea, 7 LESAKA
T 948 63 54 58 | F. 948 63 54 57
info@ttapi.eus | erran.eus

www.ttapi.txartela.info

717

aleko
irabazleak >



ZOZKETAK

Irrisarri Land - 2 sarrera

Josu Santesteban Grajirena | ZUBIETA

Zugarramurdiko lezeak - 2 sarrera

Inaxio Zabaleta Baleztena | LEITZA

Donostiako aquariuma - 2 sarrera

Faustino Maisterrena Ugalde | AMAIUR

Eureka! Zientzia Museoa - 2 sarrera

Jose Luis Lasarte Etxeberria | BERA

Onddo ta punto - Kamiseta bat

Rosario Gortari Garaikoetxea | ARRAIOZ

La Rhune - 2 sarrera

Jesus Ariztegi Arozena | OITZ

Wow Park - 2 sarrera

Maite Aranburu Aldabe | SUNBILLA

Ttarttalo - Liburu bat

Eusebia Barreneche Galainena | URDAZUBI

Ttarttalo - Liburu bat

Teresa Mariñelarena Zabala | UZTEGI

Ttarttalo - Liburu bat

Marijoxe Telletxea Altzuri | LESAKA

2 tiket

BAZTAN
ADENTURA PARK



BKZ ABENTURA

www.navarraaventura.com

2 sarrera



ASTIZKO LEZEAK

www.mendukilo.com

2 sarrera



DONOSTIAKO AQUARIUMA

www.aquariumss.com

EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA

www.eurekamuseoa.es



2 sarrera helduentzat

BUATXABAL

www.buatxabal.com



Kamiseta bat

LA RHUNE

www.rhune.com/eu



2 sarrera - Heldu bat eta gazte bat

**MU
SI
KA**



Itziarren semeak
EH Republik

baga-biga
MUSIKA IDEIAK
www.baga-biga.eus

**LA
GUN
TZAI
LEAK**



<http://wowpark.fr>



www.mendukilo.com

Abesbatza ttikiak urrian hasiko ditu saioak

Ez da urrian hasiko den ikastaro bakarra. Elizondoko Arizkunenean ahots teknikak izanen dira langai

TTIPI-TTAPA

Zintzurak berotzeko tenorea izanen dute urritik aitzinera Baztanen. Izan ere, Elizondoko Abesbatzak bi ikastaro antolatu ditu.

Iruritan Abesbatza ttikiaren saioak hasiko dira. Maiatzera bitarte, Kristina eta Maki gidari dituztela, asteazkenero bilduko dira, 18:00etan ttikiak eta 18:45ean koxkorak. Hila-betero 10 euro ordaindu behar-ko dira. Informazio gehiago eskuratzeko edo izena emateko 620 228455 telefonora dei daiteke.



Asteazkenero bilduko dira.

Elizondon, berriz, ahots teknikak izanen dituzte langai. Ikastaroa urritik ekainera bitarte eskainiko dute. Arizkunenean bilduko dira, 18:00etatik 20:00etara Isabel Lakarrekin. Izen-ematea: 670 322137.



VALLE DE BAZTAN

Txokotoko bestak giro ederrean

Baztan-zopak, kontzertuak, kalejirak, kankailuak, Mutildantzak, puzgarriak, jolasak... ekitaldiz jositako bestak izan dituzte Txokoton irailaren 7tik 9ra bitarte. Txirrindulari gazteen lehendabiziko topaketarekin borobildu zuten asteburua.



UTZITAKO ARGAZKIA

Euskararen ofizialtasuna helburu

'Euskara ofiziala Nafarroa osoan' lelopean, eskualdeko herritarrek, «hizkuntza eskubideak bermatuko dituen ofizialtasuna» lortzeko helburuz, urriaren 27an Iruñean egitekoa duten manifestazioari keinu egin zieten.

Euskal dokumentu urteko ondarea ikusgai urrian

Udalak, Nafarroako Gobernuaren laguntzaz, 'Euskararen gaineko dokumentu nafarren bi mila urteko ondarea' erakusketa antolatu du. Urriaren 4tik 23ra bitarte izanen da ikusgai Arizkunenea kultur etxean, arratsalde, 17:00etatik 20:00etara.

Ibilbide gidatua Erratzuko Xorroxin ur-jauzira

Larunbatean, irailaren 22an, Erratzuko Xorroxin ur-jauzira ibilbide gidatua izanen da. 10:00etan abiatuko dira Erratzuko sarreran dagoen apartakalekutik eta hiru orduko ibilaldia izanen da. Izen-ematea: info@orbela-beintza.com edo 659 477396, 7 eurotan.

ANZABAL
inmobiliaria



- Zurich Aseguruak
Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
- Lan aholkularitza
Nomina eta Aseguru Sozialak
- Aholkularitza fiskala
Errenta Deklarazioa, BEZa...
- Inmobiliaria
Baserri, borda, pisu, etab. salmenta eta alokairua
- Gestoria

Santiago, 15 ELIZONDO • T. 948 580 804 • anzabal@anzabal.com • www.anzabal.com

Errugbi eta herri-kirol eskolan izen-ematea zabalik

Irailaren 21ean eta 28an probatzeko aukera eskainiko dute eta, gustatuz gero, nahi duenak izena eman ahal izanen du

TTIPI-TTAPA

Abian da Baztango Rugby Taldearen 2018/2019 denboraldia. Irailaren 14an hasi zituzten saioak. Halere, nahi duenak oraindik badu izena emateko aukera. Irail hondarrean, azken bi ortziralde arratsaldetan, Lekarozko kiroldegira joan eta probatzeko aukera eskainiko dute. Entrenamenduak ortziraleroko jokatzeko dituzte, 18:00etatik 19:30era bitarte.

Haurrak hiru mailatan banatzen dira, sub-12 (2007/2008an sortuak), sub-10 (2009/2010an sortuak) eta sub-



Entrenamenduak ortziraleroko dira.

8 (2011tik aitzinera sortuak) kategoriatan zehazki. Argibide gehiago nahi dutenek 679 228189 telefonora (Mariano) dei dezakete eta izena emateko ere aurrez deitzea eskertuko dute.

Erratzuko besta ttikiak irailaren 29an ospatuko dituzte

TTIPI-TTAPA

Irailaren 29an, larunbatean, ospatuko dituzte Erratzuko besta ttikiak. Eguna behar bezala hasteko, goizean Fan-FarOnak taldearen musika lagun, zintzur bustitzea izanen dute. Eguerdian zikiro jatean bilduko dira, elkartean. Baz-

kariko txartelak Zubipuntan daude salgai, 30 eurotan eta irailaren 23a, larunbata, arte eros daitezke. Bazkalondan Hauspolariek taldeak girotuko du herria eta arratsean Azukre Beltzarana DJaren eskutik, nahi duenak besta luzatzeko aukera izanen du.



UTZITAKO ARGAZKIA

Kortariko gasna garaile Ordizian


Lekarozko Orabideko Kortaria gasnategiak Ordiziako 45. Gazta Onenaren saria irabazi zuen irailaren 5eko lehiaketan. Julen Arburuak jaso zuen saria. Gasnaren erdia enkantera atera zuten eta San Sebastian Gastronomika ekimenak erosi zuen, 8.750 eurotan.

Zahar-etxean ezinduendako komun bat egokitu du Udalak

TTIPI-TTAPA

Udalak adinekoen etxeko komun bat ezinduendako egokitu du. Lanak 16.029 euroko kostua izan du eta Putxiriak egin du. Egindako lanen artean igogailuaren konponketa dago, 2.540 euroko kostua izan duena eta balkoi baten inpermeabilizazioa, 1.130 eurotan.

Bertzalde, laster komun geriatriko bat moldatzeko lanak egiten hasiko dira, 11.400 euroko aurrekontua izanen dutenak. Gisa berean, urtea akitu baino lehen aurreikusitako gainerako lanak uholdeek



Zahar-etxeko komun egokitua.

hondatutako elektrizitatea koadroaren aldaketa eta teitlatuan egin beharreko konponketak izanen dira. 10.500 eta 6.000 euroko aurrekontua izanen dute, hurrenez hurren.

JOSEPHINE'S ENGLISH
Bertako irakasleak

KLASE PARTIKULARRAK:
Lehen hezkuntzako 4. mailatik goiti, DBH,
Batxilergoa eta helduak

Josephine Etcheverry eta Christina Irigoyen
948 453 453

LOKAL BERRIA:
Santiago, 38 Elizondo

MARMOLES
SOULE

www.marmolessoule.com

ARIZKUN | M. 688 605 182 | T. 948 453 444 | marmolessoule@gmail.com

LAPIDAK
PANTEONAK
KANPOSANTUAK
HARRI LANAK
ESKULTURAK

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA SARE SOZIALEAN

facebook

www.facebook.com/ttapi.eus

200 buru inguru Burgete arrazako zaldien lehiaketan

Lehiaketako 13 kategorietan lehendabiziko sariak Indart Ariztegi anaien esportazioko zaldientzat izan ziren

TTIPI-TTAPA

Ascana elkartearen eta Udaren eskutik, irailaren 9an Burgete zaldi-arrazako lehiaketaren XI. edizioa izan zen herrian. Urtez urte parte hartzaile gehiago dituen lehiaketan 23 abeltzainek hartu zuten parte, guztira 183 buru plaza-ratu zituzten. Gehien eraman zituztenak Legasa (Indart), Zuhatzu, Erratzu (Etxaide Mortalena anaiak), Lakuntza, Iruñea, Ziga (Bartolome Etxaide), Burgete eta Arruitzekoak izan ziren. Halere, eskualdeko gehiagok ere parte hartu zuten; Doneztebeko Aitor Arozena eta Lekarozko Guadalupe Otxandorenaren zaldiak izan ziren.

Artisauak

Lehiaketaren bueltan, ikuskitunaz gozatzeko, eskualdeko artisauek egindako produktuak erosteko eta taloak zein moxal haragia dastatzeko aukerarik ere ez zen falta izan. Zintzurak bustitzeko, berriz, taberna zerbitzua paratu zuten. Goizean goizik euri zaparrada ederra bota bazuen ere, be-

rehala giro eguzkitsua gailendu zen.

Hamahiru kategoria

Lehiaketa hamahiru kategoriatan banatu zen eta kategoria bakoitzean bortz sari banatu ziren: 100, 80, 60, 50 eta 40 eurokoak, hurrenez hurren. Orokorrean sariak nahiko banatuak izan ziren: eskualdekoei dagokienez, erratzuarrarendako 2. eta 5. sari bat eta 3. eta 4. postuetako bi sari; lekaroz-tarrarendako 2. eta 5. sari bat; doneztebarrarentzat 5. bat eta zigarrarentzat 4. bat izan ziren. Halere, kategoria guztietako lehendabiziko sariak Legasako Indart Ariztegi anaiarentzat izan ziren. Areago, bera izan zen sari gehien irabazi zituen: 1. postuko 13 sari ez gain, 2. postuko sei eta 3. postuko bi irabazi zituen.

Maila ederra

Harrera ederra izan zuen ekitaldiak. Bisitari anitz bildu zituen eta ikusleek eta epaimahaikideek, lehiaketara aurkeztu ziren zaldi guztien maila goraipatu zuten.



Giro ederra izan dute Burgete arrazako zaldien XI. lehiaketan. UTZITAKO ARGAZKIAK

zergalan | **asegi**
asesores y consejeros de empresa
enpresa kontseilari eta aholkulariak

- Kontabilitate zerbitzuak
- Zerbitzu fiskalak
- Lan-aholkularitza
- Aholkularitza juridikoa

- Herentzia eta Testamentuak
- Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzua
- Datuen babesa
- Mugaz bertze aldeko aitortpenen kudeaketa (langileak eta enpresak)

Baztanberri plaza, 6
31700 ELIZONDO
T. 948 581 300 · F. 948 580 648

www.zergalan.es | zergalan@asegi.es
www.asegi.com

Eliza Kalea, 22
31740 DONEZTEBE
T. 948 450 395 · F. 948 451 304

ARMUA JATETXEA



T. 948 599 131
Zugarramurdiko errep. 3 km URDAZUBI



ttipi-ttapa

T. 948 635 458
erran.eus | info@ttipi.eus



Hainbat herritarrek parte hartu zuten Zubillagaren oroimenez egindako ekitaldian. Ondean, Agurtzane Anduezak egindako marrazki dotorea. JOSEBIÑE



Joxe Jabier Zubillaga gogoratuz ekitaldia egin dute

Hainbat arlotan lan egindakoa zen eta herritarrek oroimen ekitaldia eskaini zioten abuztuaren 26an

JOSEBIÑE ETA KORO

Abuzturaren 26ean oroimen ekitaldi bat egin zitzaion Joxe Jabier Zubillagari, ongi merezitakoa, zinez pertsona balio-soa eta maitatua baitzen. Bihotz onekoa (zernahitarako bere burua eskaintzen zuen), parte-hartzailea (udaleko zinegotzia zen, eta Akelarre Elkarteko batzordean aritua), eta horretaz gain, bertze gisako alor bereziak bazituen: herriko antzerki taldean par-

te hartua, refetako soka-dantza burua, Eguberritan Olentzerorena egiten, Burdinaren Eguneko ola-gizona...

Abuztuaren 26ean plaza eta kioskoa bete zituen Joxe Jabierren oroimenak. Familiari oroigarri bat eskaini zitzaion, kanta eta hitz politak izan ziren, eta finitzeko, haurrek *Olentzero* kantatu zuten (kantu hau abendukoa da, baino guk abuztuaren gure Olentzerori eskaini genion).



KORO IRAZOKI

Autokarabanak arazo bihurtzen hasi dira

Autoendako toki nahikorik ez eta toki aunitzetan bezala, gurean ere autokarabanak arazo izaten hasi dira. Gehienetan arratsalde apalean etorri eta biharamunean partitzen dira, baina zenbaitzuk egunak ere pasatzen dituzte. Argazkian, autokarabanak ageri dira Azketako aparkaleku berrian.

BERA (administrarritza)
31780 Bera

IBARDIN
31780 Bera

BEHOBIA
20305 Iruñ

DANTXARINEA
31712 Urdax

LUZAIDE
31660 Luzaide

EGUNERO IREKIA, ASTELEHENETIK IGANDERA ARTE
*Abenduaren 25ª eta urtarrilaren 1ª izan ezik

TEL. 902 210 800 / www.venta-peio.com

**TTIPI-TTAPA
ALDIZKARIA
SARE SOZIALETAN**

facebook

www.facebook.com/ttipi.ttapa
www.facebook.com/ttipi.eus

EGIN ZAITEZ GURE LAGUN

Bestak finitu orduko urriaren 6ko errebestei begira

Egun horretan eginen den herri-bazkarira joan nahi duenak irailaren 25a baino lehen eman beharko du izena

TTIPI-TTAPA

Batzuk finitu eta bertzeak hasi. Hala, herriko besten ondotik, errebestei begira jarriak dira herriarrak. Urriaren 6an izanen dira eta bertze urte batez, egun osorako egitaraua pres-tatu du Besten Komiteak.

11:30ean esku huska pilota partida izanen da. Calvet eta Endarak osatutako bikotea Berreterbide eta Dizabo bikotearen kontra ariko da. 12:00etan aperitifak eskainiko dute baina, horrez gain, ez da animaziorik ere faltako. 14:30ean herri-bazkaria eginen dute.

Arratsaldeko protagonistak haurrak izanen dira, 17:00etan Pontx pailazoak ikuskizuna eskainiko baitu. Eguna boro-biltzeko, 21:00etatik aitzinera DJ Jotaxo arduratuko da plaza ingurua girotzeaz.



Pontx pailazoak errebestetan izanen da.

Izen-ematea

Herri-bazkarira joateko irailaren 25a aitzin eman beharko da izena Herriko Etxeko Edantegian, Trinketean eta Baketun. 22 euro ordaindu beharko dira.

Usategietako tradizioaren besta igande honetan Lizarietan

TTIPI-TTAPA

Saratar eta etxalartarren bilgune izanen da igande hone-tan, irailak 23, Lizarietako lepoa, uso ehizari buruzko hitzarmena berrestearen buel-tan, bertze urte batez, hainbat ekitaldi prestatu baitituzte.

10:00etatik 13:00etara bi herrietako ekoizle eta artisauen erakusketa eta salmenta pos-tuak paratuko dituzte. Horrez gain, Sarako Ondarearen es-kutik, *Usoak sarean* erakus-keta ikusteko aukera izanen da. 10:30ean bota luze pilota partida jokatu dute eta



Bota luze, Lizarietan. TURISMO BULEGOA

11:15ean karrote txapelketa eginen dute. 12:00etan hitzar-mena sinatu eta 14:30ean bazkaria eginen dute. Saran-ga txarangak animatuko du bazkaria.

Euskal kantak entzuteko aukera irailaren 27an

Euskal kantak maite dituenak horiek adituz gozatzeko au-kerak izanen du irailaren 27an. Gizonezkoen abesbatza bat elizan ariko da kantari, 21:00etatik aitzinera. Sartzea 10 euro ordaindu beharko da, baina 12 urtez behe-tikoek urri-rik izanen dute.

Margo erakusketa Lur Berri gelan irailaren 24tik 30era

Larrungo Koloreak elkarteko kideen lanak ikusteko aukera eskainiko dute iraileko azken astean, hilaren 24tik 30era, Lur Berri gelan. 10:00etatik 13:00etara eta 15:30etik 19:00etara zabalduko dituzte atea eta sartzea urri-rik izanen da.



SARAKO GAZTERIA ETA LEIRE FAGAGA

Eguraldi eta giro ederra bestetan

Kirola ikusi eta praktikatzeko hitzorduak, dantzaldiak, kantaldiak, kontzertuak, dantza saioak, otorduak, bertsulariak... Bortz egunez, irailaren 8tik 12ra, eguraldi ederra lagun, Besten Komiteak prestatutako ekitaldietan gozatzeko aukera izan zuten herriarrek eta bisitariek.

BIZIKLETEN SALMENTA ETA KONPONKETA

GIMNASTIKA ETA FITNESS MAKINAK

bizikleta estatikoak, lasterketako zintak...

2. eskuko bizikletak

Kantfonberri, 1 | BERA
T. 948 631 218
joxemi@kateabike.com
www.kateabike.com

1.100 haur eta gazteek eskola urtea hasi dute herriko ikastetxeetan

Banaz bertzean aitzineko urtean bezainbat haur ibiltzen dira herriko eskoletan, buruilaren 4an abiatu den ikasturtean
Saint Cristophe lizeoan lehen aldikoz eskuara izanen dute hautuzko ikasgai

PIERRE BASTRES

Herriko eskola, San Josepe, Amotzeko eskola eta Ikastolaz gainerat, Arretxea Kolegioa eta Saint Christophe Lizeoa dauzka Senperetik.

Oro har, haur eta gazteen kopurua ez da aldatzen edo emeki-emeki goiti doa. Ikastolan 110 ikasle hasi dira, iaz bezala. Herriko eskolan ere iazko ikasle kopuru bera dute, 260, horietarik 160 elebidunak. San Josepen 177 ikasle dira (99 elebidunak). Amotzeko eskolan 84 ikasle hasi dira, iaz baino hiru guttiago. Arretxean 269 ikasle dira, iaz baino 29 gehiago (103 elebidunak dira). Saint Cristophen, azkenik, 208 ikasle dira, iaz baino zortzi gehiago.

Martine Arrancet hautetsiaren erranetan, «sartzea ezin hobeki pasatu da, haur guztiak onartu ditugu, ez diogu neho-ri ezetz erran. Logiziela berria plantan eman dugu, familie-kiko harremanak hobetzeko. Hau ere arrakastatsua izan da». Halere, aldaketa handiak izan dire antolakuntzan, frantziar estatuko eskolen egutegien erreformatatik. Elur Alberdi Herriko Etxean Jendar-te Saileko arduradunetako bat da, eta erraiten duen bezala, «kantinako lan moldea osoki aldatu behar izan dugu. Egu-tegien aldaketatik alde batetik, eta bertze aldetik, ohar-tzen gara aintz direla kantinean jaten dutenak. Lau urte lehe-nago haur guzietatik %60 egoiten ziren eguerditan, orain %90 direlarik. Beharbada gu-raso bakarreko familia gehia-go direlaketz, eta bertzalde



emazte gehiagok lan egiten dutelaketz ere bai. 230 jarleku izanik ere, ez dugu horrenbertze haur hartzen kantinean. Ezin egona litzateke arrabotsagatik. 120ek elgarrekin bazkaltzen dute, eta ondotik, bertze 120 sartzen dira. Giroa baketsuagoa da, haurrek hobe jaten dute denbora gehiago dutelaketz. Hori erdiesteko bertze bi langile berri hartu ditugu, 29 dira denetarat».

Saint Christophe Lizeoan, Benoît Verdenal eskolako buruak adierazi daukenez, «ikasleen kopurua mugatzen dugu nahitara. Aldiz, joan den urteko azterketen emaitzetaz atsegin handia dugu: banaz bertze gure ikasleek frantziar estatuko ikasleek baino %6 hobekiago kausitu dute azterketetan. Azpimarratu nahi nuke lehen aldikoz eskuara izanen dutela hautuzko ikasgai».

Azkeneko, Ikastolako haurrek ere ikasturtea hasi dute, giro



Ikastolako ikasturte hasiera giro berezian eta eskolako kantinean. UTZITAKOAK

berezian. Izan ere, Seaskak eskatzen zituen 25 irakasle postu berrien sortzea ukatu du Hezkuntza Publikoak. Huenbertzez, manifestaldi eta haserre erakustaldi zombait antolatu dituzte berriki Seaskak eta gurasoek, deus erdie-tsi gabe egundaino. Hauxe zer dion Beronika Zamorak, aurtente arte zuzendaria egon denak:

«erreformatatik egutegiak arrunt aldatu ditugu. Buru hauste aintz izan eta izaten ditugu, baina hautsi-mautsi batzuen ondotik zerbait egin dugu. Haatik denaren beharra dugu, ez da batere erraza hola lan egitea. Egoera hits horrek mugatzen gaitu, izigarri damugarria da haurrentzat eta eskuarentzat».

Ipar Euskal Herriko errebote txapelketa Saran erabaki da

Gazte eta mintegia mailako finalak jokatu zituzten buruilaren 8an Omordian eta elite mailakoa hilaren 9an plazan

TTIPI-TTAPA SARA

Ipar Euskal Herriko pilota eskoletako pilotariak nahasiz errebote txapelketa antolatatu du Ipar Euskal Herriko Pilota Batzordeak. Hiru mailatan banatu dituzte pilotariak eta bakoitzean lau talde aritu dira. Sarako bestetako asteburuan jokatu dituzte finalak, giro ederrean.

Buruilaren 8an, larunbat goizean, mintegia mailako finala jokatu zuten Omordian. Alexandre Lolibe (Aviron), Oihan Borteyru (Noizbait), Julien Parison (Hiriburuko Ainhara), Ewen Moal-Darri-gade (Amikutze) eta Antoine Pechberty (Kapito Harri) osatutako boskoteak 13-8 irabazi zion Pantxoa Pelletat (Kapito Harri), Antoine Espilondo (Atharratze), Benjamin Erasun (Goizeko Izarra), Julien Samo-

ra (Endaiarrak) eta Peio Iriarte (Endaiarrak) taldeari.

Gazteen finala larunbat arratsaldean jokatu zuten Omordian. Talde batean Sarako Izarra taldeko Xanti Sansinea eta Oihan Iribarren, Mati Borteyru (Nozbait), Juan Ekaitz Zaldunbide (Hardoytarrak) eta Clément Gaime (Hiriburuko) aritu ziren eta bertze taldean Sarako Izarrako Eneko Mounho, Ximun Etcheberry (Aviron), Joritz Arrizabalaga (Urruñarrak), Bixente Amagat (Hardoytarrak) eta Abenttin Dubois (Nozbait). Lehenbizikoek 13-8 irabazi zuten.

Hoberenak igandean

Buruilaren 9an, igande goizean, elite mailako finala jokatu zuten Sarako plazan. Sébastien Etcheberry (Aviron), Jöel Sistiague (Hardoytarrak), Bruno



Gazte, mintegia eta elite mailako finalistak Saran. IEHEPB

Driolet (Hardoytarrak), Raphael Eyheramono (Luzean) eta Bixente Bidegainek (Zaharrer segi) osatutako taldeak 13-6 irabazi zion Yon Larronde (Noizbait), Nicolas Sanse-

bastian (Endaiarrak), Bastien Lissar (Zaharrer Segi), Panpi Lefranc (Zaharrer Segi) eta Fabien Mendibourek (Gaia Cedims) osatutako boskoteari.

Bigarren mailako aizkorako finala eta koxkor biltze txapelketa Igantzin

TTIPI-TTAPA IGANTZI

Igantziko besten barne, herri kiroletako bi hitzordu garrantzitsu jokatu dituzte. Irailaren 30ean izanen dira, 18:00etatik aitzinera.

Alde batetik, Nafarroako bigarren Mailako Aizkora Txapelketako finala jokatu da. Arantzan egin zen kanporaketaren ondotik, bortz aizkolarik lortu zuten finalerako txartela, eta horietatik hiru eskualdekoak izan ziren. Iban Resano (Dorrao), Asier Pellejero (Areso), Jesus Etcheberria (Beintza-Labaien), Goizeder

Belza (Etxarri Aranaz) eta Mikel Indakotxea (Zubieta) ariko dira Igantzin jokatu den finalean. Bi kanaerdiko, 60 ontzako bi enbor eta oinbiko bat moztu beharko dute.

Koxkor biltze txapelketa

Lerro hauek idazterakoan hiruk emana zuten Euskal Herriko koxkor biltze txapelketan parte hartzeko izena: Maika Ariztegik (Ituren), Ainhua Irazozek (Nafarroa) eta Zuriñe Frutosek (Araba). 1,25 metro-tara eta bi lerrotan jarritako 50 koxkor bilduko dituzte.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Kontxako bandera zati bat eskualdera

Segundo eskas batengatik bertzerik izan ez bada ere, Donostiako Kontxako bandera eskuratu du Hondarribia arraun taldeak, Agoitz Irazoki lesakarra eta Iker Marizkurrena sunbildarra aritu dira estropada handiaren eta, beraz, bandera zati bat ekarri dute eskualdera.



Gazte eta gaztetxo mailako txapeldun eta txapeldunordeak, Jaime Urroz Oizko alkatearekin. UTZITAKO ARGAZKIA

Oizko taldeak garaile gazte eta gaztetxoan laxoa txapelketetan

Doneztebeko taldeei nagusitasunez gailendu zaizkie irailaren 8an Oizko plazan jokaturako finala

TTIPI-TTAPA OIZ

Oizko bi taldeek, iaz gertatu zen bezala, irabazi dute gaztetxoan eta gazteen laxoa txapelketa. Bietan Doneztebe

izan dute arerio. Bi finalak Oizko plazan jokatu ziren irailaren 8an eta herriko bestak zirela eta, plazan sortutako giroa hagitz polita izan zen.

Gainera, arratsaldea eta besta borobiltzeko herriko taldeek txapelak lortu zituzten. Jaime Urrozek, herriko alkateak, banatu zituen txapelak eta sari guztiak finala hartu zuten jokalariei.

Neska bat txapeldun

Oizko gaztetxoan taldean al daketa bat izan zen. Markel Leatxe jokalaritarrak ezin izan zuen finala jokatu gaixorik zegoelako eta bere partez Uxue Ilarregi aritu zen. Neska honek aurreko urtetan ere jokatu zuen txapelketako partida bat edo bertze, baina

oraingoa finala jokatu eta txapela irabazi du. Berak hartu zituen animo eta txalorik handienak. Berekin batera, Xuban Ilarregi, Mikel Mikelarena eta Aimar Ariztegi aritu ziren eta 9-3 irabazi zioten Doneztebe Cri (Oier Apezetxea, Markel Jabalera, Jokin Arozena eta Julen Pikabea).

Gazteen finalean, Oizek (Ioritz Zelaia, Aimar Saldias, Zorion Zelaia eta Jon Oiarzabal) 9-4 irabazi zion Doneztebe Ari (Aimar Jabalera, Iñigo Belarra, Oier Aldabe eta Mikel Tajadura), ordubete eta 40 minutuko lehiaren ondoren. Nahiz eta markagailua argia izan, borroka handia ikusi zen plazan, ordu eta erdi iraun zuen partidaren.

Gaztetxoan partidaren gerta zuen bezala, nahiz eta oiztarrek beti aitzinean ibili, finalaren hasmentak ematen zuen azken markagailua estuagoa izanzen zela. Baina 6 eta 4tik akitu arte etxeko laukotea aise hobe aritu zen eta joko guztiak irabazi zituen.

Dena den, aurten Oizko jokalariek batzuk aritu diren bezala, bi taldeetako jokalariek datorren urtean handien txapelketan parte hartzeko prest daudela erakutsi zuten.

Urrizak buruz buruko seigarren txapela lortu du Utergari erraz menderatuta

TTIPI-TTAPA

Urrizak aunitzek uste baino errazago irabazi zuen bere seigarren txapela. Kutxabank Torneoaren finalean 30-15 hartu zuen mendean Xanti Uterga doneztebarra irailaren 8an Galarretan. Iruñeko aurrelariak asmatu zuen sakearekin, pilotean eta banakako jokoak eskatzen dituen baliabide guztietan. Utergak, berriz, ez zuen bere jokorik egin eta ez zitzaizkion gauzak nahi bezala ateratu. Zortzi tanto bakarrik lortu zituen pilotean eta hiru sakez. Bi pilota galdu zituen.

Urrizak sei txapela ditu dagoeneko eta Ezkurra eta gero gehien dituen da.

Xanti Uterga: «Nahi eta ezin»

Uterga etsita zegoen partida amaieran. «Nahi eta ezin izan da. Pena handiena nire maila ez ematea izan da, partidatik kanpo ibili naiz. Lagun pila etorri da eta tristura horrek ematen du. Konfidantza guztiarekin nengoen baina egunean ez dut asmatu eta ez dut neurea eman. Garbi genuen disfrutatu behar genuela eta ez da horrela izan. Gero berak



Uterga txapeldunorde eta Urriza txapeldun. MAIALEN ANDRES

4-5 tantoren aldea ateratu du eta ondoren partidatik ateratu naiz. Ez nuen asmatzen. Urriza txapeldun handia da. Ligaxkakoa sistemarekin zaila da

eskua sartzea. Kontuan hartu dezala enpresak. Partida batera agian errazago izanzen litzateke. Ezkurrari eta Rete-giri egiten zieten».

IRAILAK 20 - URRIAK 4

INFORMAZIOA BIDALTZEKO: Tel. 948 63 54 58 edo info@ttipi.eus

IKASTAROAK

LESACA

Herentzia eta testamentu bitala hizpide

Beti Gazte elkartearen egoitzan, irailaren 25ean, 16:30ean.

Hizkuntza garapenaren alderdi soziolinguistikoak haurtzaroan

Harriondoan, irailaren 28an eta 29an.

Dantza ikastaroa

Beti Gazte elkartearen egoitzan, ortzegunetan, 19:00etatik 20:30era.

ELIZONDO

Ahots teknika langai

Arizkunenean, urritik ekainera, astelehenetan, 18:00etan.

Osasuntsu zahartzeko gakoak

Osasun etxean, irailaren 19an eta 26an, 11:00etatik 13:30era.

IRURITA

Abesbatza ttikiak

Urritik maiatzera, asteazkenetan, ttikiak 18:00etan; koxkorak 18:45ean.

ETXALAR

Muxikoak

Larraburuan, urriaren 3tik aitzinera, asteazkenero, 19:00etatik 20:00etara.

ESKUALDEA

Yoga ikastaroak

Beran, Zubietan eta Donezteben. Urrian hasita (ikus. 717.zk.).

IKUSKIZUNAK

IRURITA

'Le petit théâtre de pain-axuti!' antzerkia

Gizarte Bilgunean, urriaren 14an, 19:00etan.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

LESACA Erraldioen topaketa

Lesaka, Bera, Igantzi, Etxalar eta Elizondoko erraldoiak. Irailaren 22an, larunbatean.

BERA

Film laburren emanaldia

'Lagun mina', 'Ahate pasa', 'Zela Trovke' eta 'Amona putz' filmak. Beralalandetan, irailaren 21ean, 19:00etan.

Pirritx, Porrotx eta Marimotots, 'Borobilean'

Sarrerak Berako Purienean, Lesakako Telletxea argazki-dendan, Doneztebeko Kimetz belar-dendan eta Etxalarko Herriko Ostatuan. Frontoian, irailaren 30ean, 11:00etan.

KIROLA

LEITZA

Leitzulia

Irailaren 29an. Izen-ematea: irailaren 23a arte.

LEKAROZ

Errugbi eta herri-kirol eskola

Probatzeko aukera. Irailaren 21ean eta 28an, 18:00etan.

ERRATZU

Ibilaldi gidatua Xorroxinera

3 orduko ibilaldia. Irailaren 22an, 10:00etan, aparkalekutik abiatuta.

IGANTZI

Bigarren mailako aizkora finala eta koxkor biltze txapelketa

Irailaren 30ean, 18:00etatik aitzinera.

DONEZTEBE

Ibilaldi gidatua bizikletan Behobiara

36 kilometroko ibilaldia. Irailaren 29an, 10:00etan abiatuta.

KONTZERTUAK

SARA

Saiberri abesbatza

Elizan, irailaren 21ean, 21:00etan.

Euskal kantak

Elizan, irailaren 27an,

21:00etan. Sartzea: 12 euro.

BERA

In Tempore Abesbatza

San Esteban Elizan, irailaren 22an, 20:00etan.

BESTAK

DONEZTEBE

Besta ttikiak

Irailaren 21ean eta 22an. Xehetasunak: 26.orrialdean.

IGANTZI

Herriko bestak

Irailaren 28tik urriaren 1era.

URROZ

Herriko bestak

Irailaren 27tik urriaren 1era. Xehetasunak: 29.orrialdean.

ANIZ

Herriko bestak

Urriaren 5etik 7ra. Xehetasunak: 37.orrialdean.

ERRATZU

Besta ttikiak

Irailaren 29an.

SARA

Besta ttikiak

Urriaren 6an. Xehetasunak: 44. orrialdean.

OSPAKIZUNAK

ITUREN

Joaldunen Eguna

Irailaren 22an. Xehetasunak 717. zenbakian.

LESACA

Erraldioen topaketa

Elutxa txarangaren eskutik. Irailaren 22an.

ETXALAR-SARA

Usategietako besta

Irailaren 23an.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

LEITZA Leitzulia

42 kilometro eta 1.400 metroko desnibela.
Irailaren 29an, larunbatean.

LEKAROZ

**Baztan, Urdazubi eta
Zugarramurdiko eskola
ttikien besta**

Irailaren 30ean.

AZOKAK

ELIZONDO

**Pirinioetako behi-aziendaren
lehiaketa**

Irailaren 22an eta 23an.

SARA

Ekoizleem azoka

Irailaren 28an, 16:30ean.

**Artisau, sortzaile eta
merkatarien azoka**

Irailaren 24an, 09:00etan.

ERAKUSKETAK

ELIZONDO

**Francisco Escuderoen margo
erakusketa**

Arizkunenean, irailaren 7tik
30era.

**Euskararen gaineko
dokumentu nafarren bi mila
urteko ondarea**

Arizkunenean, urriaren 4tik
23ra, 17:00etatik 20:00etara
bitarte.

SARA

Margo erakusketa

Lur Berri gelan irailaren 24tik
30era bitarte, 10:00etatik
13:00etara eta 15:30etik
19:00etara.

LEHIAKETAK

ZUBIETA

**Ilustrazio eta mikro-ipuin
lehiaketa**

Haur eta gaztetxoendako.
Lanak bidaltzeko epea: urriak 5
udaletxean. Xehetasunak: 27.
orrialdean.

BERA

**Aire zabaleko XIV. margo
lehiaketa**

16 urtetik goitikoendako.
Urriaren 7an, 09:00etan.

Nire aukera

«Herri ttikietan auzolanak garrantzi handia du»

GABON GAMIO ANIZKO GAZTEA

«Geldirik egoten ez dakien 26 urteko aniztar gaztea» da Gabon Gamio. Esku pilotan, lasterka, pala txapelketan, bizikletan... ikusi izan dugu. Batean zein bertzean «gustura» aritzen da. Ttikia zelarik sartu zen kirol munduan, eta ordutik han eta hemen dabil: «kirola deskonektatzeko eta ongi pasatzeko modua da niretako». Haurra zelarik, herri-kiroletan hasi zen:



UTZITAKO ARGAZKIA

«Basaburuan herri-kiroletan aritzeko ohitura handia dago, ni ere ibilia naiz, baina badira urte batzuk aritzen ez naizela». Kirolzalea bezain bestazalea da aniztar gaztea, eta denera ailegatzeko «momentuan momentukoari begiratzea» eta «nahi duzun hori egitea» dira bere sekretuak. Hemendik guttira, herriko bestetan, biak uztartzeko aukera izanen du. Herri-krosa, esku pilota eta

frontenis txapelketa... izaten dituzte eta «ahal izanez gero» denetan parte hartzea gustatzen zaio. Anizko bestek «sekulako giro herrikoia» dutela erranen luke, «haur, gazte eta helduak elkarrekin egoten gara» adierazi du. Herri batzuetan bestaren bueltan biltzen da jendea, baina aniztarrek argi dute: «bestak aitzinera ateratzeko lana egin behar da». Hortaz, «denen artean», bilerak egin eta lanak banatuz «besta politak» antolatzen dituzte. Gamiok momentu ederrena «Baztan-zopetako afaria» dela erranen luke, «lehendabiziko eguna da eta denak gogotsu egoten gara», gaineratu du. Izan eguna edo izan gaua, bestako momentua bada, ez dago eragozpenik aniztarraren ustez. Halere, egunez besta «gero eta gusturago» egiten du. Segur aski, biharamuna arintzen lagunduko dio horrek. Pasatuz gero, izerdia botatzea ez da gaizki, eta herrian bertan badute aukerarik. «Urlegiko haitzak» gomendatu dizkigu, «betidanik» gustuko izan duen txokoa. Besta eta kirolaren bueltan zoriotsu egiten diona aurkitzen du: «nire inguruko jendearekin egoteko aukera izaten dut». Baina, tarteka asteburu-pasa joatea gustatzen zaionik ezin ukatu...

ZERBITZUAK

MERKATU TTIKIA

ETXEBIZITZAK

SALGAI

ETXALAR. Borda bat salgai, bere lurrarekin. ☎661 121540.

DONEZTEBE. Rosa Seminario karrikako 4. zenbakian, 3. pisua salgai, 100 m². Sukaldea, 2 logela, bainugela, egongela handia, balkoi eta terrazarekin. Hagitz argitsua da. Prezioa 85.000 (+ BEZ). ☎608 758793.

LESAKA. 4 logelako pisu ederra salgai, igogailuarekin. Sartzeko prest. Eskaintzak entzuteko prest. ☎662 515372.

LESAKA. Pisua salgai. 3 logela, egongela, sukaldea eta bainugela. ☎661 082543 / 646 395388.




NARBARTE. Bajera eta baratzea dituen eta erdi mobleztatua dagoen etxea salgai. 3 logela, egongela, sukalde handia, bainugela, despentsa eta balkoia. Dena kanpoaldera begira, hego eta mendebaldera. ☎646 021262.

ERRENTAN EMATEKO

LESAKA. Apartamentu mobleztatua errentan emateko, logela bakarrekoa. Garajeko marrarekin. ☎696 127601 / 639 509148.

BERA. Toki Ona Institutuaren parean, pisu konpartitu batean, logelak errentan emateko. ☎629 008081.



NARBARTE. Bajera eta baratzea dituen eta erdi mobleztatua dagoen etxea errentan emateko. 3 logela, egongela, sukalde handia, bainugela, despentsa eta balkoia. Dena kanpoaldera begira, hego eta mendebaldera. ☎646 021262.

ERRENTAN HARTZEKO

ELIZONDO. Bi logela dituen etxean errentan hartu nahi dute. Ez du axola hutsik badago. ☎620 454664.

IRAGARKIA JARTZEKO:



948 63 54 58



www.erran.eus



744 48 43 61



info@ttipi.eus

Sail honetan **IRAGARKIA** jartzeko **10 €** ordaindu behar da **ARGAZKIAREKIN** jarri nahi izanez gero **12 €** iragarki bakoitzeko **GEHIENEZ 25 HITZ** onartuko dira

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta **ERRAN.EUS** webgunean hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako **ES86 3008 0080 5607 0330 4329** kontuan

Ttipi-Ttapak ez du bere gain hartuko argitaratu diren iragarkien ondorioz sortu ahal diren operazio bidegabeken erantzukizunik

Lanean ari garen bikote batek logela bat edo bi dauzkan pisu bat errentan hartu nahi du, Elizondo, Doneztebe, Elgorriaga... edo inguruan. ☎687 018716.

25 urteko neska pisu bila. Bederatzi hilabetetarako. Ez dio axola hutsik bada. ☎686 167746.

GARAJEAK/LOKALAK

SALGAI

DONOSTIA. Portuetxe auzoan, bi garaje marra salgai. ☎948 637862 / 678 855056.

LANA

ESKAITZAK

LESAKA. Iturbena kafetegian zerbitzaria behar da lanaldi osoan aritzeko. ☎620 700964 (Leire).

BERA. Idazkari/harreragilea behar dute osasun kontsulta batean. Bidali curriculumak: eviviancd@hotmail.com. Tratu atsegina eta irribarretsua eta jende aitzinean lan egiteko gogoia baloratuko dituzte.

SENPERE. Pagatxa oihangintza enpresan lagun bat behar dute lan egiteko: egurra botatzen, traktorearekin tiratzen, sekatzeko... ☎(0033) 676 626952.

BERA. Lantegi batean, lanaldi osoz aritzeko CNC fresadoran esperientzia duen langilea behar dute. ☎670 428143.

IBARDIN. Beola Etxean jatetxean lan egiteko sukaldari burua behar dute eguerdiko zerbitzurako. Bidali curriculumak: beolaetxea@gmail.com.

Berako enpresa batek Zugarramurdi inguruan lan egiteko elektrizistak behar ditu. ☎639 125046.

BAZTAN. Panificadora Baztanetan langile bat behar dute gaez ogia egiten aritzeko. Esperientziaduna baldin bada hobe. ☎948 583305.

BERA. Jatetxe batean zerbitzaria behar dute. ☎607 827309.

ETXALAR. Hotel Benta Etxalarren langile bila. Ordezkapenak egiteko norbait behar dute, gaez lan egiteko, garbiketan aritzeko, sukaldeko laguntzaile gisa aritzeko eta barran zerbitzari aritzeko. Bidali curriculumak info@etxalar.com helbidera edo deitu telefonoz hitzordua hartzeko. ☎948 635000.

ZUGARRAMURDI. Urtxola jatetxean asteburutan lan egiteko sukaldaria eta zerbitzaria behar dituzte. ☎(0033) 559542131.

ESKARIAK

Emakumezko bat lan bila (espainiarra). Adinekoak zaintzen orduka, goizez edo gaez ariko litzateke. Tituluduna da. Garbiketan orduka ere ariko litzateke. Kotxe propioarekin. ☎640 138930.

Emakumezkoa eskualdean lan bila. Adinekoak zaintzen interna bezala edo orduka, edota garbiketa lanetan lan egiteko prest. Adinekoak zaintzen esperientziaduna. ☎722 237313.

Emakumea lan bila, adineko pertsonak edota haurrak zaindu edo garbiketa lanak egiteko. Orduka edo interna moduan lan egiteko prest. ☎635 296717.

Emakumezkoa lan bila. Etxeko eta garbiketa lanak egiteko eta adineko pertsonak eta haurrak zaintzeko interesatua. Adinekoak zaintzen hila-bete batzuetako esperientzia. Disponibilitate osoa. ☎644 778212.

Emakumezko bat adineko pertsonak interna moduan zaintzeko interesatua. Esperientziaduna interna moduan adinekoak zaintzen eta etxeko lanak egiten. ☎644 963820.

Gizonezko bat adineko pertsonak zaintzeko edota nekazari lanetan aritzeko lan bila. ☎631 202480.

30 urteko neska lan egiteko gogoz. Haurrak zaintzen esperientziaduna eta lantegi edota dendaren batean aritzeko prest. Ahal bada astelehenetik ostiralera. ☎687 222320.

Gizonezko bat eskualdean lan bila. Eraikuntzan, zerbitzari lanetan, nekazaritza edo abeltzaintza lanetan eta adineko pertsonak zaintzen interesatua. ☎631 720108.

BASERRIA

BEHI-AZIENDAK

Aretze gizenak:

Idixkoak: €/kg kanal

- Extra 4,29
- 1.koa 4,07
- 2.koa 3,93

Urruxak: €/kg kanal

- Extra 4,31
- 1.koa 4,17
- 2.koa 4,03

Oharra: prezioak 180-220 kg kanalean pisatzen duten aretzeenak dira

Aretze tikiak

- (15 egun ingurukoak).

Aretze mestizoak

- Urruxak 168,00
- Idixkoak 250,00

Aretze nabarrak

- Urruxak 160,00
- Idixkoak 180,00

ZALDI-AZIENDAK

Zaldikoak: €/kg

- Sortu berriak: 3,29/3,39
- Zaldi-behorrak 1,93/2,10

ARDI-AZIENDAK

Bildotsak

- 6-8 kilokoak: 8,70/9,40
- 8-10 kilokoak: 7,20/7,90

ZERRI-AZIENDAK

Zerrikumee (19 kilo): 34 €

Zerri gizona 1,245 €

Zerramak 0,570€ kg/bizirik

Data iturria: Nafarroako Gobernua (abuztuaren 31tik irailaren 7ra bitarteko prezioak)

MOTORRAK

SALGAI

Renault Megane Coupe 1.5 dci autoa salgai, 110 cv. 2011koa. Hagitz egoera onean (57.000 km). ☎ 697 265618.



Discovery 3 autoa salgai. Automa-tikoa. Engantxearekin. 130.000 km. ☎ 677 594892.

TAILERRAK

GANIX
Tailerra

948 63 06 69
Zalain Pol., 11 . BERA
EUROMASTER zegoen lekuan

ZERBITZUAK

KLASE-PARTIKULARRAK

BERA. Latinezko klase partikularrak hartu nahi ditu. ☎ 637 926659.

BERA. Ingelesa, matematika eta bertze ikasgai batzuekin laguntzeko prest. ☎ 678 968495.

ZURGINDEGIAK

ARANTZA
ZURGINDEGIA

Klase guzietako zurgin lanak
Eskatu aurrekontua
konpromisorik gabe

Joxe Miguel Errandonea · ARANTZA
647 810 144 · 626 093 181

DENETARIK

SALEROSKETAK

Domusa markako **kaldera** salgai, gasezkoa. 1.500 litroko akumulatzai-learekin. Berria. ☎ 696 127601 / 639 509148.


OPARITZEKO

Zakurkumeak oparitzeko: **Border Collie mestizoak.** ☎ 622 774110.

LEITZA. Collie arrazako zakurkumeak oparitzeko, lau hilabete ingurukoak. ☎ 948 610689 / 636 022311.

ITUREN. Katakumeak oparitzeko. ☎ 607 269294 / 948 920936.

Hiru katu oparitzeko. ☎ 626 077751.



Bi **zakurkume** oparitzeko. ☎ 671 834607.



ZUBIETA. Katakumeak oparitzeko. ☎ 651030 775736.

GALDU-AURKITUAK

GOIZUETA. Giltzak, sakeleko telefonoa, kartera... aurkitu dituzte. Uda-letxean daude. ☎ 948 514006.

LESKA. Urrezko eskumuturreko fina galdu da. ☎ 610 893804.

BERAKO UDALA

Osoko Bilkuraren Akordioa -HIRIGINTZA-

Berako Udaleko Osoko Bilkuraren akordioa, 2018ko abuztuaren 22koa:

U.U.16.1eko jarduketa sistema aldatzeko espediente, boron-datezko birzatiketa sistematik konpentsazio sistemara, hasiera batez onestea.

Espediente hau jendeaurrean izanen da 20 egunez, dagokion iragarkia N.A.O.n argitara ematen denetik.

Bera, 2018ko irailaren 10ean Alkatea, Josu Iratzoki Agirre



2. eskuko bizikletak



Kanttonberri, 1 | BERA
T. 948 631 218
joxemi@kateabike.com
www.kateabike.com

• TTIPI-TTAPA | KULTURKARI •
KARTELAK
A3 | A2 | FORMATU BEREZIAK

• ESKAINTZA •
WHATSAPP ez bidaltzeko
IRUDI DIGITALA OPARI
info + 948 63 54 58
www.kulturkari.com

EMAN KOLOREA MUNDU GRIXARI!

AVIA
E.S. SANTESTEBAN
Leitzako errepidea, 49 | DONEZTEBE | T. 948 451 679

KOTXE GARBITEGI BERRIA!
ShineTecs®
"KONPONTZE EFEKTUA" duen pintura babeslearekin

FURGONETA GARBITEGI BERRIA!
2,60 m

> "Acrylonic" formula patentatua. Argizaria baino hobea.
> Kapa babeslea indartzen du garbiketa bakoitzean
> Distirak denbora gehiago irauten duela bermatzen du

2,60m bitarteko furgoneta edo kotxea garbitu gurean!

www.doneztebe.com

HERIOTZAK

- **Juana Cordoba**, Sarakoa, uztailaren 18an, 92 urte zituela.
- **Josette Iramuno**, Sarakoa, uztailaren 30ean, 91 urte zituela.
- **Marie Etxeberri**, Sarakoa, abuztuaren 3an, 91 urte zituela.
- **Mauricette Dalsheimer**, Sarakoa, abuztuaren 21ean, 95 urte zituela.
- **Michaly Nyaradi**, Sarakoa, abuztuaren 27an, 90 urte zituela.
- **Benito Baraibar Astibia**, Leitzakoa, abuztuaren 31n, 70 urte zituela.
- **Juan Mariezkurrena Gastesi**, Elgorriagakoa, abuztuaren 31n, 82 urte zituela.
- **Feliciana Zestau Zabaleta**, Leitzakoa, abuztuaren 31n, 82 urte zituela.
- **Patxi Gogorza Zabaleta**, Leitzakoa, irailaren 2an, 77 urte zituela.
- **Lina Berrio Garzia**, Iurretakoa, irailaren 2an, 83 urte zituela.
- **Maria Taberna Arozamena**, Berakoa, irailaren 3an, 83 urte zituela.
- **Martin Irazoki Perugorria**, Berakoa, irailaren 4an, 88 urte zituela.
- **Alberto Arretxea Bertiz**, Sunbillakoa, irailaren 8an, 91 urte zituela.

EZKONTZAK

- **Martin Oskabi Hagolle** eta **Catherine Larzabal**, Sarakoak, abuztuaren 17an Saran.
- **Housein Jono** eta **Anaiz Garat**, Sarakoak, abuztuaren 30ean Saran.
- **Ximun Garcia** eta **Claire Grillard**, Sarakoak, irailaren 1ean Saran.
- **Beñat Zabaleta Alduntzin** eta **Amaia San Migel Agirre**, Leitzakoa eta Doneztebekoa, irailaren 8an Donezteben.
- **Jon Makazaga Otxandorena** eta **Gorane Zabala Narbarte**, Goizuetakoa, abuztuaren 14an Goizuetan.
- **David Saenz Karrera** eta **Leny Maritza Ortez Avila**, Logroñakoa eta Hondurasekoa, irailaren 10ean Goizuetan.

SORTZEAK

- **Imanol Iturbide**, Sarakoa, abuztuaren 10ean.
- **Elaia Gubia Vera**, Legasakoa, uztailaren 27an.
- **Patrick Escobar Orellana**, Legasakoa, uztailaren 26an.
- **Unax Bertiz Urriza**, Legasakoa, irailaren 5ean.
- **Aiora Arhex Fernandez**, Iturengoak, irailaren 4an.

ESKELAK JARTZEKO edo OROIGARRIAK EGITEKO:
948 63 54 58 edo info@ttipi.eus

- **Eskelak, Esker Onak** eta **Urteurrenak**
Ttipi-Ttapa aldizkarian + ERRAN.EUSen: 90 € Ttipi Txartela dutenek %10eko deskontua.
- **Oroigarriak** egiten ditugu, pertsonalizatuak, nahi den argazki eta testuekin prestatuak. Ikusi ereduak gure bulegoan, (Koskontako bidea, 7-1 · 31770 LESAKA).

OROIGARRIA

Miguel Joaquin NOBLE TELLECHEA

Ezkurran, 2018ko abuztuaren 27an,
83 urte zituela

Izan zarelako gara.
Eskerrik asko atta,
ez zaitugu ahaztuko.

Maitasunez,
ZURE ALABAK.



IZARRA
HEMEN, ZURE ONDOAN
AZUL, A TU LADO

BEILATOKIAK ELIZONDON ETA BERAN
Zerbitzuak Baztan, Beran eta Bortzirietan

URTE OSOAN 24 ORDUKO ZERBITZUA

T. 948 05 90 90
izarratanatorio.com

IRACHE tanatorioak

24 ORDUKO TELEFONOA 948 63 74 04

BERA (SAN JOSE) | BERA (ITURLANDETA)
DONEZTEBE (SAN PEDRO) | ELIZONDO (BAZTANDARRA)
ELIZONDO (BAZTAN) | LESAKA

TRASLADOAK IRUÑEA, DONOSTIA ETA IRUNGO OSPITALEETATIK EDOZEIN HERRITARA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK, ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK



**BAZTAN
BIDASOA**
Ehorzketa Zerbitzuak

BAZTAN:
ELIZONDOn Santiago kalea, 79
BORTZIRIAK:
BERAN San Jose Beilatokian
MALERREKA:
DONEZTEBEn Aparan ind. 1-3

Baita BERTIZARANA, BORTZIRIAK, URDAZUBI ETA
ZUGARRAMURDIKO ETXEETAKO ZERBITZUAK ere

**24 ORDU
365 EGUN**

948 48 95 50
info@funerariabaztanbidasoa.com




web: funerariabaztanbidasoa.com

Betiko taldea zu laguntzeka

KONTATU KONTUAK



Eskualdetik Damavand mendira. Lesakan bizi den Asier Ruiz eta Imanol Otero elizondorria Irango Damavand sumendira igo ziren abuztuan. Irango mendirik eta Asiako sumendirik garaiena da Damavand (5.610 metro), eta tontorrera igotzeko biderik ohikoena hegoaldekoa bada ere, Ruiz eta Oterok iparraldekoa aukeratu zuten, luzeagoa eta gogorragoa. Lehenbiziko egunak aklimatatzeke aprobetxatu zituzten eta abuztuaren 16an igo ziren goraino. Gainerako egunak turismo pixka bat egiteko aprobetxatu zituztela kontatu digute eta «oso pozik» ibili zirela eta «oso jende jatorra» topatu zutela adierazi diote TTIPI-TTAPARI.



Goienetxetar eta larraldetarren urteko hitzordua. Aurten seigarren urtez, Goienetxe-larraldetarrek lehengusuen hitzordua ospatu zuten udan, bazkari eder batekin. Zuhaitzaren hamasei adarrak Etxalarko Bentan elkartu ziren eta hantxe zen familiako *matriarka* ere, Dolores Goienetxe Larralde, Etxalarko Agerrebereko bordako alaba gazteena, 91 urterekin. Hori da hori marka, segi horrela! TTIPI-TTAPARI kontatu diotenez, gustura egon ziren Goienetxe-Lizarreta, Larralde-Goienetxe, Mendia-Goienetxe, Negueruela-Goienetxe, Mikelestorena-Goienetxe eta lurrebaso-Goienetxe familiak.

Kontatu, kontatu!

Baduzu ospakizun edo ateraldiren baten berririk eta argakia erakutsi nahi zenuke? Zerbait ikusgarria aurkitu duzu eta horren berri ematea gustatuko litzaizuke? Edozein argakiz erakutsi nahi duzula ere, kontaiguzu!

Posta elektronikoa edo Whatsapp

Bidali mezua info@ttipi.eus helbidera edo whatsapppe 744 484361 zenbakira.

Ttipi-Ttaparen egoitzan

Etor zaitetz TTIPI-TTAPAREN bulegora: LESAKA, Koskontako bidea, 07-1.

URTEBETETZEAK



Zugarramurdiko **Onintza Camino Subizar** gure sor-gintxok irailaren 2an 6 urte bete zituen. Muxu bat familiaren eta bereziki Oihan anaiaren partetik.



Etxalarko **Nahiak** 26 urte beteko ditu irailaren 28an. Zorionak eta muxu haundi bat etxekoan partetik.



Igantziako **Unax Urtxegi Rodrigok** 7 urte beteko ditu irailaren 29an. Zorionak eta muxu haundi bat familia guziaren partetik eta bereziki zure arreba Izaro eta Enararen partetik!



Mattin eta **Eiderrek** urteak beteko dituzte irailaren 23an eta 25ean. Ongi pasatu eguna! Zorionak etxekoan partetik, bereziki Unax eta amatxoren partetik! Muxu potolo!



Eneko Iriarte Iturzaetak urteak bete zituen irailaren 14an. Aunitz urtezzzzz etxeko guziaren partetik. Muxu haundi bat!! Noiz gaten ahal gara zure opari berrian ibiltzera? :-)

Bagoaz, baguzi, bagazi ttipi-ttapa haziz!

ZUK	ttipi-ttapa	ZURI
Zuk TTIPI-TTAPARI 50€ ematen badizkiozu ...eta zure ekarpenekin zer eginen du Ttipi-Ttapa Fundazioak? eta guztia... EUSKARATIK ETA EUSKARAZ • TTIPI-TTAPA aldzakaria argitaratu eta zure etxera eraman • ERRAN.EUS eta sare sozialen bitartez egunero informazioa zabaldu • Euskara eta euskal kultura sustatu LAGUNDU	MECNAK zuri 40€ bueltatuko dizkizu 40 euro berreskuratuko dituzu 2019ko errenta aitortenean ONURA FISKALA PARTIKULARRENTZAT Egindako donazioaren %80a itzuliko zaizu errenta aitortenean lehen 150 €tan, eta %40a kopuru haundiagoetan. AURREZTU	

ttipi-ttapa


Informazioa lortu nahi baduzue deitu 948 635 458 telefono zenbakira edo gurekin harremanetan jarri bagoaz@ttipi.eus posta elektronikoa

PLAZAN BAZAN



EGUZKI SISTEMA

Eguzkiaren eta Jupiterren artean lau planeta daude: MERKURIO, ARTIZARRA, LURRA eta MARTE. Hain justu, ordena hori jarraitu behar duzu labirinto honen bide zuzena aurkitzeko. Laukiz lauki joan behar duzu, ezker, eskuin, gora eta behera eginez, baina inoiz ez diagonalean.



INTERNETEN ERE BAI !




<http://plazanbazan.eus/>



Kontsultatu soluzioak
www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak

MARGOTU

Margo itzazu beheko marrazkiak, moztu eta zure istorioa sortu ezazu!



Hurrengo Plazan Bazan-etan marrazkitxo gehiago jarriko ditugu. Zure unibertso partikularra sor ezazu!!



LABIRINTOA

Zein bide egin beharko dute txirrindulariek dauden tokitik abiatu eta helmugara heltzeko?





ARAUTUTAKO KILOMETRAJEA
KILOMETRAJE REGLADO

#casolina18



5 & 10 KM.

V. CARRERA SOLIDARIA NAVARRA

IRUÑA-PAMPLONA

V. NAFARROAKO LASTERKETA SOLIDARIOA

www.carrerasolidarianavarra.com

2018ko URRIAK **7** DE OCTUBRE DE 2018

SALIDA: P. SARASATE - 11H.

IRTEERA: SARASATE P. - 11ETAN

INSKRIPZIOAREN DIRUBILKETA **ANFAS**EN ALDE IZANGO DA
LA INSCRIPCIÓN SERÁ ÍNTEGRAMENTE PARA AYUDAR A **ANFAS**

DN

DIARIO DE
NAVARRA

Rock the sport



banka kooperatiboa



LABORAL
kutxa